

MUNDUALDI BAT ZATIKA

Xabier Amuriza

*Etxano jaioterriari
nire mundualdia
gehien eta barruren
markatu duenari*

Ez dakit «bizitza» eta «mundualdia» sinonimo zehatzak diren. Badakit mundualdiak bizitza barne hartzen duela, baina alderantziz ez nago ziur. Batera nahiz bestera izan, nik bietaz, «neure bietaz», asko idatzi dut. Erretiroaren betegarri atsegin bat izan da idatzi dudan guztitik pasarte neuretzat esanguratsu batzuk hautatzen joatea. Horrek ez du esan nahi garrantzitsuen guztiak hemen daudenik. Iritsi naiz une batera non neure buruaren garrantzia ez baitzait askorik interesatzen. Soil-soilik, neure izatearen, hots, neure pentsamenduen eta sentimenduen erretratu bat nahi nuen. Edo argiago esateko, ez nuen jakinki hori bilatzen, baina horixe atera da. Esan dezaket, beraz, *Mundualdi bat zatika* neuretzat idatzi dudala eta neure oroimenaren espresioa dela. Horrela, «oroitzen naizena naizenez gero», badut bitarteko on bat naizena eta naizenaren kontzientzia berritzeko, nahi dudan noiznahi. Horixe baita bizitza baten eduki nagusia. Analogiak beste norbaiti balio badio, poz erantsi handi bat izango da, baina ez da horretarako egina izan.

LEHENIK, HIL

Zuk segi idazten. Baina zer egin behar dut aintzat hartua izateko? Lehenik, hil. Hori nahikoa izango al da? Ez! Zu hiltzen zarenetik mende eta erdira, lan bat agindu diote ikasle flotante bati. Honek ez du jakingo zer egin, eta azken orduan, derrigorren esturan, zure izena aurkituko du nonbait, kasualki, bazter batean. «Joño! –pentsatuko du–. Hau nobedade bat izan daiteke». Anfetamina batzuen laguntzaz, zirriborro bat hornituko du zure izenaz. Lagun batek ondo dagoela esango dio, hark ez baitaki ezer izen hartaz.

Ikasleak aurkikuntza bat bezala aurkeztuko du lana, berriro bete dadin behin aldarrikatu zenuena: «Zerbait antzinakoren aurkikuntzak esan nahi du bere garaian ez zitzaiola jaramonik egin». Zurea abantaila handia da, inork ez baitaki ikasle haren lanak zer kalifikazio izan zuen. Ezta lana egin zuenik ere. Beraz, zure izena zain gelditzen da, beste ikasle flotanteago batek lehen ikasle anodino hura aurki dezan.

CERVANTES ALA COLON

Nire galdera gehienak ez dira zerbait jakiteko, baizik esan nahi duenari aukera bat emateko. Zeren, zer jakin? Unibertsoa handia izango da, baina ni ez naizenean, hura ere ez da izango. Unibertso txikian, espainol kontsekuenteari, Cervantes ala Colon hautatzera behartuz gero, kostako litzaioke kolonizatzailea baztertzea. Zorionez, espainol guztiak ez dira kontsekuenteak, nahiz eta, beharbada, bai gehienak. Kultura baten umeak baikara. Zein da Espainiaren «batasuna»? Kuba eta Mexiko barne zirena? Hego Amerika barne zena? Maroko eta Filipinak barne zirena? Eguzkia ere barne zena? Zer da oraingo Espainiaren «batasuna», gerra galduen eta irabazien emaitza bat besterik?

Beste estatu inperial guztiena berdina izateak ez du galdera baliogabetzen. Guztiak izatea da, hain zuzen, beren arrazoi bakarra. Bada, hala ere, beste galdera bat, arrazoiarentzat zentzuzkoago duda gabe. Armek erabaki zutena zergatik ezin da berrikusi borondateen arabera? Hori ezin zaio galdetu espainol kontsekuenteari, baina bai inteligentziari. Erantzuna izango da, zoritxarrez, inteligentziak oso gutxi agintzen duela munduan. Baina badugu lasaitasun bat ezen «batasun batzuk» inteligentziaren aurkakoak direla.

BURU GAZTEA

Aurreko horman bazen koadro bat, zintzilik egoten nekaezina. Franco gaztearen buruak bekoz beko begiratzen zigun, bere zianurozko irribarrez. Erdi-erdian eta goian, maisuaren atzean, bazen gurutze bat, zintzilik egoten ohitua hau ere, burumakur, albora begiratzeko lotsaz bezala. Beldurrez ere baietz ematen zuen. Hirugarren buru bat ere bazen triangelua osatuz, baina bego horretan, omisioa aski aitorten baita.

SHOPENHAUER

Heriotzak hainbeste misterio handi eta inplikazio bikain zeukan kontradikzio fenomenologikoen artean non, irakasle haren ahoan, ematen zuen Alemanian jendeak hiltzeko txanda eske ari behar zuela; eta hilkutxek oihan kosmikoko zuhaitz traszendenten zur immanentez eginak behar zutela. Shopenhauerrek ez zuen gutxi irabazten irakasle haren ahoskeran. Akats bakarra zen, Alemanian, hiru kiloko haurrei ere Shopenhauer edo Snakcenburg zeritzela. Eta bazirela jakinduria bost axola zitzaienak ere, Beckenbauer edo Nindelberger dei zitezkeenak.

MENDITIK MUNDURA

Hau guztia esateko
ez dago zertan
poeta izan
baizik begi bat itxi eta
besteak zer dakusan
esan.

Eta hau eta hori eta bestea
eta ni eta zu eta besteak
hori gara gure aberria
hori da nire aberria.

KIOSKO NIMINO BAT

Senar-emazteak batera sartzeko, bietako batek irten egin behar zuen. Harik eta telebisioa sartu zuten arte. Orduetik, hirurak kabitzen dira. «Telezaborra ikusten? – Ez! Guk jan egiten dugu». Tokirik doienak ere komuntxo bat ez luke falta izan behar, kanpoak hain okupaturik daudenean. Inon ezin duzu zer premiazko hori egin, larrialdietara eroan zaitzaten lortu ez baduzu. Handik lehenbailehen etxera bidaliko zaituzte, baina, behintzat, dena kakazturik utzi ahal izan duzu. «Hara berau, kirofanoan masturbatzera etorria!». Egunkaria, mesedez? Hartu zeuk hortik. Hemen ezin naiz mugitu. Eta

ordaina? Ba, ez dakit. Etorri gerotxoago. Mundu handian, kontu handiak.

NEU NAIZ GUZTIA

Maiz gertatzen zait neure iragan-buru bat aurrez aurre aurkitzea. Eta ezin iskin egin. Batzuetan bruskoak badira ere, talka horiei esker aktualizatzen naiz. Bitarteko denborak ezerezturik, danba kolpatzen naiz neure lehengo hamaika buruetariko edozeinekin. Lehen sustoaren ondoren, lasaitasuna. «Ezagutzen zaituztet». Neu naiz guztia, bitarteko denbora barne.

KANK ETA KRANK

Umetan ezagutu nituen eskudelak meheegiak ziren, haietan ipurdia lerratzeko, eta eskailerak, ilunegiak. Elizako korurakoa zen bat, oso egokia, non iluntasuna abantaila baitzen. Astiro-astiro abiatuko nintzen eskudelean behera, atzez beti, arriskurik ez ikusteak hartatik libratzea bailekarren, harik eta behin, txarto kalkulaturik, eskudelaren amai-burua, esku-bonba baten antzekoa, uzornoak kank jo zuen arte, krank sentitu nuena. Barre-hezurak ez zidan utzi negar egiten. Gauzarik hutsalenak, ez gutxitan ergelenak, gordetzen dituen oroimen hau itoko nuke, berari esker ez baneki bizi naizela. Hots, berari esker bizi ez banintz.

BI LISKARTIAK

Orduan, bi liskartiek elkarrekin uztarri egin zuten, besoak sorbaldatik sorbaldara, auzia eurek euretara konpontzekoa zela adieraziz. Sen basikoren batek abertitu zien ezen, elkarri zerbait puskatzeko, elkarren sostengua behar zutela.

ERROMA HANDIOSA

Gizakia animalia bezala asko interesatzen zait. Pertsona bezala, ez hainbeste. Erromaren historia handiosak damaidan plazer nagusia da ia inor inportanterik ez zela berez hil.

ORNITORRINKOA

Kanpandorrea herriko etxea baino hiru bider gorago jaso diote elizari, non Jainkoa errezuekin distraitzen baitute, kanpoan trabarik egin ez dezan. Mojen kanpaiek zergatik dirudite hain mojakoi, eta fraideenak hain fraidekoi? Erantzuna zaila da, gutxik baitauka

ornitorrinkoaren dohaina, zeinaren mokoia ez baitakizu mirakulua den ala faltsifikazioa.

MARKESARENA

Doi-doi begiztatzen dut Markesa Anderearen parkea, zeinaren berri garbirik inork ez baitaki, ez herrian, ez inguruan. Madriren bizi ote den, parasito handiei suposatu ohi zaien habitatean. Harik eta jauregia udaletxetzat erostea otu zitzairen arte, opulentzia herritarren zerbitzu bihurtzeko alkimia politikoari esker.

UNE ARRUNTAK

Sarritan gertatu zait. Tantarik irten ez, eta dena bikain buruturik bezala itxi brageta, miroiek esateko moduan ze: «Horrek hartu dik asaskua!». Obserbazio hauek ez dira, noski, Einsteinek apuntatu beharrik ez zeukan ideiak bezalakoak, baina balio izan didate bide bazterreko gozotasun batzuk apailatzeko.

OROIMENAREN ORAINA

«Orain» famatu hori, horrela zuzen eta berbertan, nori interesatzen zaiola esan genezake? Gure pentsamendua hartatik atzera edo aurrera ibili ohi baita, ia beti. Nirea, beti, esango nuke. Ez, ez! Ez dut ukatzen oraina. Bakarrik diot giza denbora oroimena dela, etorkizuna ere hartzen duena. Oroimenean ez dago orainik.

BADAGO BEGO

Ez da harritzekoa exekuzio indibiduala masakrea baino teatralago izatea. Azken batez, tragedia ez baita gizateria akabatzea. Tragedia da norbera hiltzea. Erljioa. Zerbait izan dadin desioa. «Badago bego, badago bego, katutxoa mizpira gainean dago». Eremua estutuz doa: Unibertsoa → Mundua → Euskal Herria → Eskualdea → Etxea → Logela → Hilkutxa. «Zer ondo nagoen hementxe!».

ZORIONAREN NEKEA

Zorionaz garatu diren gogoeta amaigabeak eta figurazio artistiko guztiak sintesi labur batera ekarriz gero, ez dago argi hura lortzeko ahalegina ez ote den gutxiago nekagarri, lortuari eusteko aditasuna baino.

ISPILUZKO KATILUA

Eskubete inurri ispiluzko katilu batera jaurti. Haien antzera, badirudi ametsek ere, euren irudiei iheska, zorionaren ibilera nolabait gidatua ridikulizatu nahi dutela.

ATSEKABETIK ZOROTASUNERA

Norbait etortzeko itxaropenetik bizi den txakurra askatu dut, eta nostalgiaren senik ez daukaten oilo txalinei atesarea ireki diet. Ez dut uste beste animalia dependenterik hemen bizi denik, ganbara hustutik baino izutik iheska zetozen saguen auzo-etxerik hurrena suak irentsi baitzuen, beste auzune bateko gizaseme batek bere burua hantxe erretzea erabaki izanaren patu gorian. Ez zen patua bere jaiotetxean errematatzen ausartu, egite horren barkaezinak hil eta gero ere jazarriko zuelakoan.

Giza errendizioaren modalitate sarrastagarri hura ez zen besteongan asko haragotuko esklamazio asaskugarrien letaniatik edo gizon gazte baten hezur ikaztuek beti ere eragitekoa den bizitzarekiko larriduratik, baldin, berarekin batera, holokaustora eramanez ez balitu zortzi eta hamar urteko bi alabatxoak, baserri abandonatuko zokondo amaigabe eta ilungune misteriosuetan galtzera jolasteko pozean joan zirenak. Alferrrik saiatu ginen oroimena apur bat lasaituko zuen aitzakia dohakabeen bila, umeen ama, atsekabetik ez bazen, zorotasunetik salba zedin.

ITURRI ZOKOA

Noan orain iturrira, seminariotik bueltan, etxea baino lehenago bisitatu ohi nuen bazter txiki agorgaitzera. Alde batetik sasitzak eta bestetik aldats oso erripeak ostentzen duten zoko ia abandonatu honek ez du ematen ezin gogoren bilgune mina izan litekeenik, baina nik ur-txorro xume honetantxe aurkitzen dut zeru-lurren seberitatea biguntzen duen elementua eta ingurua.

TXOKOLATE BEROEGIA

Armario ate loka haiek irekitzen hain trebea zen katu hark ez zuen bere burua saiakera gozoan ikusi, lapikokada txokolatea burutik behera erori zitzaionean, etxean urteko txokolate-egun bakanetarikoa zela kalkulatu ez zuelako. Nahiz eta, sustoaren ondoren, bere gorputza mihizkatzen nabari zitzaion gozamenetik, berariaz eginga zuela iruditu. Ez zuen, nonbait, gertaera lotu beste katu-lagun batekin, zeinak lapiko txikiagoan burua nolabait sartzea lortu baitzuen. Txokolatea beroegi aurkitu, ordea, eta burua libratu ezinik, ontzia buruan-da ziztuan irten zen, bazterrak joz eta inguru bizidun guztia izutuz.

ZAHAR BERRIAK

Ezin dut orain zehaztu zergatik zaharberriak tiratzen didan berririk originalenak baino gehiago. Seguruenik izango da berria aurkezten zaidalako oroimen gabe, zeina, noski, lo batzuk bertan egiteak sortuko bailuke. Baina zaharrea gertatzen zait, baldin gomutak amorrus erbelatzen zaizkidan gazteluak, katedralak edo jauregiak ez badira, neure oroimenaren zuntzekin bat datorren elementu piloa aurkitzen dudala, batez ere nire hirutasun estetiko osatzen duten harri-zur-burdinak badira. Zaharberriak, bai-baiki, neure izatea eguneratzen du, hobeturik.

ARIMA GOIAN

Gizaburuagako Urrusolatik ordubete luzeko andabidean, bazekarten gorpua basabide erripen eta bihurtean behera, euria goian-behean. Hilotza etxean jaso behar nuela suposatzen zitzaidan honek, neure akolitoz, gurutzez eta hornimen santu oroz jantzirik, zapata garbi-garbiak barne, ibarreko errepidean itxaron nion, elizatik berrehun bat metrora. Segizioaren eta, batez ere, andarien itxura lorrin eta errukarriaz oharturik, salmo-kantari hasi aurretik, gizalege iruditu zitzaidan euren ahalegina aitortzea. «Badakarzue?» galdetu nuen, eta andari batek ihardetsi zuen: «Hau badakargu, baina arima goian geratu da eta haren bila berorrek joan beharko du». *In paradisum deducant te angeli...* Ikasi nuen, bai, isilik egoteak zenbat balio duen, aplikatzea kostatzen zait baina.

IZEN GABEKO TRISTURA

Negar haietan eta beste modalitate gehienetan ... Ez naiz «guztietan» esaten ausartu, haur baten negarbideak bere inkontzientzia sortzailearen egintzak bezain kontaezinak izan baitaitezke. Negar haietan, ba, banekien zeri eta nola negar egin, eta horixe izan daiteke negar haiek gerora gomuta pozgarriztat etortzeko arrazoa: neure kreaioak izatea. Baziren beste negar batzuk, urteen buruan ere mindura gabe gogoratu ezingo nituenak. Eta mingarriena zen zerena edo zergatik ziren ez-jakinean sentitzen nuen atsekabea. Izen gabeko tristura buru gabeko gorputz bat agertzea bezala da.

GERTAKARIEN OSOTASUNA

Esplikazio hauek nire orduko buruan guztiz ezinezkoak izateak ez dio ezer kentzen gertakariaren egiari, zentzugabeki onartu nahi ez bada esplikazioa dela gertakariaren sortzaile. Bai onartuko nuke, beharbada, gertakaria bere esplikazioan osatzen dela.

MEMORIAREN AHALMENA

Eta dena, berriz ere, memoria bati esker, zeinak gertakariak, sentituak diren neurrian, bere erara atontzeko ahalmen deabruzkoa daukan.

ETXEA ETA NI

Badirudi etxea dela izate baten barne-forma. Hots, haurrak barruren sentitzen duen edo barrurantz dakusan irudia. Bere buruaren hipotesi sinesgarriena. Etxe askotan bizi izan naiz, baina denengatik ezin dut esan «gure etxea». Hori bakarrik gertatzen da etxeari neure antza hartzen diodanean. Ezin dut neure burua ikusi, baina ezin diot etxeari begiratu neure burua bertan ez dela. Azkenean, bera bihurtzen da nire irudi. Horretaz ohartzea ezin da gertatu sentimenaren hondorainoko zirrara gabe. Neure aurpegia ikusi nahi dudanean, etxearen aurrealdeari begiratzea besterik ez daukat.

Nire haurtzaroa eta gaztaroa argindar gabe joan ziren. Beharbada, horrexegatik gara etxea eta ni honen antzeko, diferentziak ilunetan ezabatzen zirelako. Torreburu. Hemendik ez da pasatu Lukrezio, Shakespeare, Marquez, Kafka, Poe, Proust, Aresti... Hemendik neu bakarrik pasatu naiz.

GIZATERIA RIDIKULUA

Naturari zer axola dakioket gizateria ridikulu baten planeta ezerezteak, beste milioika lurretan ari bada esperientzia duinagoak (edo ankerragoak) amaitzen edo abiatzen? «Duinagoak» esan al dut? Ez dakit. Gure planetaren analogiatik, ez daiteke hipotesi baikorregirik jaurti. Gizateriaz daukadan sentimendu nagusia dezepzioa da. Arrazoiak asko eta nabariak dira. Adibide bakar bat jartze alde, giza historia lideratu duten izen nagusi gehienak hiltzaile eta harrapari gorenak izan dira. Haien momumentuak bisitatzeko lehian dabil mundua.

Naturaz ere daukadan sentimendu nagusia dezepzioa da. Kate trofikoak esan ohi dena ez da besterik kate اساسinoa baino. «Has eta ugal zaitezte elkar hilez eta janez». Hain «zoragarria» den natura hori ezin al zen garatu beste era batera? Hau al zen era posible bakarra? Beharbada, oker nagusia adimenera iristea izan zen. Arte handiek kalte handiak egin dituzte, munduko kriminal handiak prestigiatuz.

GAMETOEN GENOZIDIOA

Izan zitekeen nesken izaerak euren baitan alarma moduko bat eramatea, areago gordetzera bultzatzen zituena, handik urteetara baitetsirik ikasi nuenean bezala. Gameto emea geldi-geldi egoten da, gameto arren izurriak galdu-gordean inguratzen duela. Bakarrak aurkitzen du sarrera fatidikoa, beste milioi guztien genozidiotik.

PENTSATZETIK LIBRE

Eta nire adimena horrelaxe doa, analogia dudazkoen bitartez ziurtasun bat garatzen, harik eta, bat-batean, kate guztiak ezer esplikatzeko ez duen unea jo arte. Ez da bera unerik txarrena, pentsatzeko premia orotatik libratzen baitzaitu.

ILUNTASUN FRESKOA

Sukaldeko mahaian eseri naizenean, zirrarratu nau maiz jo nauen sentsazio deliziosoak, zoriontsu esaten ausartzen ez naizenak. Seguruenik, laburragatik hain sakon bera: iluntasun freskoak babesten nau argitasun mingarritik. Argiak asoziatu lekarkeen kanpoko oldar eta amilbide orotatik bereizten nau iluntasun freskoak.

ARGIA ETA NI

Gozamen hori guztia, izatez, aurreragoko hautu pretentzioso eta erratu batetik dator. Etxea, nik ezagutzen eta maitatzen nituen landare guztien senez, eguteren orientatzen ahalegindu nintzen, eta leiho handiekin, beirateak exhibizionismo mediterraneartzat errefusaturik. Horrekin ez nuen errakuntza erdibide burlegarrian kokatzea besterik lortu, argiak, gorputz solidoen antzera, bere buruaren tamainako sarbideak behar balitu bezala. Argiaren izen nobleak engainaturik, etxearen gailentasuna leihoen handitasunarekin batu nuen inozenteki, kanpoa barruan edo barrua kanpoan plantatzeko gogo primarioan. Gure etxearen aurpegia beren beregi kokatua dago haran beherakorrak eta aurrez aurreko Udalatxek eta Anbotok obserbatua izateko moduan. Eta beharbada, ikuspegi hori guztia sukaldeko mahaitik atzemateko afanari zor zaizkio leiho handiok, pentsatu gabe leihorik txikiena baino askoz txikiagoak diren begiak panoramikarik zabalenak hartzeko gai direla.

ANBOTO, AMORRAGARRI

Anbotok lasaitzen nauelako irudipena ez dakit ez ote den haren presentzia huts gabeak lasaitasunari eransten dion edertasun bat besterik. Garbi esanda, Anbotok ondo nagoenean bakarrik laguntzen dit benetan, zeren, esturatik edo nahigabetik begiraturik, haren profil inperturbablea lagungarri baino iraingarri baitzait. «Hi ere hortxe beti, ezertarako odolik gabe! Ba al dakik noiz haizen ederren? Lainoan hagoenean».

HAUR BAT ONDO-ONDOAN

Bilboko Areatza parkeko aulki batean eserita nagoela, besteen jolasari jarraitzeko oraindik guztiz gai ez den haur bat ondoan eseri zait. Ondo-ondoan. Gustura esango nioke zerbait, baita xeratu ere, ikara dadin beldur ez banintz, susmatzen baitut errakuntzaz eseri dela nire ondoan, aita-edo naizelakoan. Oinak elkar joz, arnasestuan, barreak egiten ditu lagunen bihurrikeriez. Eskutxo bat iztarrean jarri dit, eta aurrean ikusten dituen mugimenduetan arriskurik edo zerbaiten inminentziarik somatzen duenean, atximurka egiten dit. Noiz behinka, burua alboratzen dut, begiratu behar didala pentsatuz, baina, zorionez, haren baitan ez dago dudarik. Ustez nahikoa atsedean hartu duenean, edo berak ere egiteko moduko zilipurdiren bat hauteman duenean, etorri bezain otzan alde egin du, inguruan dabiltzan usoetako edozein bezala.

Neu ere zutitu naiz, halako errakuntza dohatsua bigarrean zapuzturik gerta ez dadin, eta hauraren ama dela atera dudanari diotsat: «Jagoizu umea, edonoren ondoan jesartzeko bizioa baitauka». Pasadizoa entzun duenean, emakumeak hots egiten du: «O! Horrek non dabilen ere ez daki oraindik! – Segi deiola luzaro zorte horrek». Urmaeleko ahateengana hurreratu naiz, munduan beste zereginik ez balego bezala.

Hainbestekoa ez bazen ere, bazuen bere zirrara lau-bost urteko haur guztiak kalean neuri begira gurutzatzeak, lehenengoz zapaltzen nuen hiri batean. Nire triunfalismoa asko apaldu zen, Olentzerotzat hartzen nindutela igarri nuenean.

TXAKURRA ERE ONDOAN

Parke bateko alde bakarti samar batean eserita nago, inguruan ez oin-hotsik, ez barbarorik, ez arimarik. Usoak ogi birrinez erakarri eta makilaz ukitu nahian zebilen agure biseradun bat besterik ez da. Eta txakur bat, zuhaitz artetik sigi-sagan agertu eta itzulinguru handi eta itxuraz arbitrarioetan hurreratu zaidana. Aulkiari usna bat eginik, niri begiratu ere gabe, ondoan jarri da, ia neure hanken kontran, lehenago

hainbat aldiz, hainbat mundualditan, halaxe egonak bagina bezain lasai, bere ibilera deslarian eskala orientagarri bat aurkitu bailuen. Halaxe begiratzen du parke osora, norbaiten ondoan dagoela jakinik, baina hartaz interesatu gabe, ezinezkoa baita txakur bat horretaraino erratzea. Edo gaztea bada, umea nolabait, honen geldi eta absente egotea, praka-barrenak endredatzen saiatu gabe. Txakur-buru mugikordun igeltsuzko pitxar baten gisan, kolorea ere zuria baitu, bere erreferentziatzat hautatu bide nauenez beste guztia ikusmiratzen dihardu. Beharbada, etorri batera ukitu banio, jaramon egingo zidakeen, edo horzka beharbada, eta ez ginateke aurkituko egote erdibitu honetan. Nire aldetik behintzat, zeren berak agian usteko du txakur baten presentzia hutsa badela aski mezu.

Neu, oster, zer esango dizuet, ba, artekatzen hasita nago, beldurtzen ez esateagatik, disimuluan nola alde egin ahal diodan asmatu guran. Zorionez, egotaldi gratuito bat eginik, aurrea hartu dit alde egiteko erabakian, inondik ere hauteman ez dudana motiboren bat bide. Seguruena, orientazio soil bat, norabide imaginario bat, txakurrak irudimenez hornituago baitaude euren usna proberbialez baino. Halako elegantziaz alde egin du ezen pentsatu baitut neu nengoela okerreko lekuan. Distantzia egokira ikusi dudanean, neuk ere alde egiteari eman diot, ernegu apur batekin gero, zeren buruak ez dit ematen, noraezean esertzea taktikoki normaltzat jotzekoa bada ere, nola altxa nintekeen nora joan ez jakiteko.

HARROBIETARA ZERTARA

Errekara joateari, beste gabe, helburu ebidentearen izaera suposatzen zaion moduan, badirudi, harrobien kasuan, jendea ezbaian geratzen dela. «Harrobietara zertara?». Susmoti ere bai, han ezer onik pentsaterik ez balego bezala. Guretzat harrobiak eszenatoki fantastikoak ziren, non elementu guztiz errealek eta liluragarriek era guztietara elkar hartzen edo ukatzen zuten. Hondar mota guztiak, garbiak, nahasiak, dunetan pilatuak, hedatuak. Tamaina eta forma guztietako harriak, nahi adinako kopuruan. Orgak, errailak, bagoiak. Arrapalak, suabeak eta malkarrak. Hormak, zuloak, gordelekuak. Etxean ezagutzen ez genituen erreminta ikusgarriak. Barrura erraz sartzeko moduko kasetak, non iltze okerretatik esekitzen baitziren harrobiko langileen arropa zelebreki higatuak. Mahai truskila, aluminiozko edontziak eta txoletak, ardo-garrafoiak ere bai bazterrean, ez beti hutsik, bai sarritan hondakin mingostuan, ajrrr! Hitz batez, lurak, bere azal milenarioa erretiratzen hasten zaizkionean, ager ditzakeen dekorazio amorratuak.

Erreka ere bertatik pasatzen zen, udako mehealdian hareak hertsaturiko meandrosketan. Eta tartekako urlo epela, banan, binan zein multzoan palastatzeko moduko zabalera hautagarrietan, eta ura bera ere dudana, aurrera jarraitu ala bertan geratu. Inoiz atzerantz saiatzeko zen, bidea ahaztu bailitzaion. Guk, xuabeki baina ez geldoegi

ere, aurrera jarrai zezan nahi genuen. Eta azkenean, horixe egiten zuen beti, geuk lagundurik, geuk oztopaturik.

ENPIRISMOA BUZTANPETIK

Norbaitek eragotz lezake ea, behin hilez gero, zer ardura dion lastoa buztanpetik nahiz esplikazioak enpirismotik. Ongi da, baina bizi gareino, gertagai erabat imposibleak ere gai dira gure gogoia zauskatzeko. Esan nahi baita gai garela errealitate inapelablea nahasteko, sentipen arbitrarioak sortuz. Sentipen gisan, besteak bezain errealak eta sarritan bortitzagoak. Izango da aldarrikatzen duenik, gaitasun maneiataile horixe eskerrak zaigula bizitza hau eramangarri. Baita liluragarri ere, mundualdi arrakastatsua egokitu bazaizu. Miseriak edo zorigaitzak ez luke distintzioen hautematerik jasango.

Ez dut nahi izaten gauza onegirik gerta dakidan, gero alderantzizko erpinen batek jo ez nazan. Egintzek, nahitaezko zaien segida batean gertaturik, batak bestea esplikatzeaz beste erremediorik ez daukate. Esan nahi baita ez dutela, propietatez hitz eginda, inolako esplikaziorik behar. Halako zerbait nola ditxosozko zoriona delakoa, zeina posible dela suposatu zuena esplikazio infinituetan eta argibide imposibleetan ahituko baita. Benetako zorionsua, horrelakorik badela pentsa baliteke, nekez arduratuko da ezer esplikatzen.

«LARROSIA TXOLETEROA»

Nire haurtzaroko egirik fantastikoenetako bat «Larrosia» izan zen. «Larruzea» abizenetik. Herri eta auzoetako jaietan, «Larrosiak» txoletxosna original bat muntatzen zuen, non tiratzea magikoa baitzen. Lehenengoz ikustean, begiratze hutsa nahiko lan eta zorte izan zen niretzat, txunditurik bazter batean, halako gizaseme gerakaitza, isilgaitza, aurpegia gari-jotzeko harria baino zailduago, euskara hutsean entzuten nuelako. «Txarlatan» bat euskaraz!

Tiraldiko bost txakur txikitan, distantzia jakin batetik, trapuzko hiru pilotarekin jo beharreko txolet-piramidea. Sei, lau, bi, bat, apal batean. Denak osterantz botatzen zituenak halako sari bat zuen. Hori zen ohikoa. «Larrosiak» erreklamu deigarriago bat asmatu zuen. Txoleten lekuan, bere aurpegia eskaintzen zuen itutzat. Barregarriro ikusgarria zen nola, suge tentearen burua bailitzan, saihesten zituen pilotakadak, gehienez jarraian eta ziztuan eta ez gutxitan errabiaz jaurtitzen zizkietenak. Keinuz eta aldrebeskeriaz beteriko hizjario sinesgaitzez, tiratzailea errarazten zuen. «Jaurti! Jaurti pilota gozatsuak! Amamaren kirruzko kamisoi-mozkinez eginak. Aititaren belarri-sobraz forratuak. Jaurti! Jaurti sua urarekin nahastean! Burua egosi premian daukat».

Burua justifikazio gabe ezkututzen bazuen, beste tiraldi bat eman behar zuen doan. Aurpegia azartatzen zioten bakoitzeko, bazen sari bat, baina saririk onena azartatzea bera zen. Umeekin ez zen hainbesteko arriskurik, baina baziren mutil kazkonduak, apunteria zorrotzekoak, hari aurpegia handitzeko leihan etortzen zirenak. Pilota inofentsibo samarren aitzakian, jaurtitzailaren grinari «Larrosiaren» begia harrapatzea gehituz gero, aberia ere gerta zitekeen, batez ere beti izan ohi den gaitzerako jeniodunen batek, dismuluan, pilotak ardotan edo limonadatan astuntzen bazituen. Halakoak behin egingo zuen azioa, zeren «Larrosiak», berez ere hartarako gutxi falta zuen gepardosenez, txosnatik jauzian kanporatu eta erromeria guztian zehar jazarriko baitzuen grazioso. Harrapatzen zuenaren errukarria! Eta beti harrapatuko zuen, harrapatu arte ez baitzuen etsiko.

Aurpegirako tiraldi haiek txoletenak baino garestiagoak izan arren, ez zuten bezerorik falta izaten. «Horrek irabaziko du diru pila!», pentsatzen nuen, txunditurik. Gerora jakingo nuen dozena bat nebarrebararik hamaikagarrena zela bera. Amak, taloak egin ahala, buru gainetik atzerantz jaurtitzen zituen. Ez zegoen lurra jo zezaten beldurrik, atzean hienakumeak bezala zain zeuden umeek aidean harrapatzen baitzituzten talo zatiak. Etxean, ez urik, ez garbitzeko astirik izan ez arren, amaren oinak bonboiak baino garbiago egoten ziren. Umerik txikien biek ohean bular bana edoskitzen zuten bitartean, beste pare bat handitxoagok oinetan haren behatzak xurgatzen zituzten.

Ume pila harekin argi ibili behar zen, patatak soroan bertan gordirik jan ez zituzaten, bareekin untaturik. «Nongo txerrikumeak ibili dituk gure patata-soroan?» –galdetuko zuen aita ernegatuak, beti ere beranduegi. Oraingoan, «txerrikumeena», metafora iraingarria barik, laudagarria zen, txerriaren muturra patata-ateratzaile artosoa baita, lanak kurioso egin zale ez bada ere. Amak, geroago, soro espoliatua etsipenez ikustetik bueltan, galdetuko zuen, lapiko zaharrei mehatxu-airean eraginez: «Auzoko soroetan ere ez zineten ibiliko, ezta?».

Orain ia ipuintzat gogoratzen dudan arren, orduko egoera orokorrak guztiz sinesgarri egiten zituen zertzelada hauen guztien ezagutzak ez ninduen, noski, «Larrosiaz» liluratuko, komedianta erdaldunen mundu urrunetik euskaraz agertu izan ez balitz. Eta jakin izan ez banu geure jaiotetxetik bistan zegoen auzo batekoa zela. Eskolan ikasazten zizkiguten zerrendetako konkistari baskoak, Lope de Aguirre eta abar, errazago imaginatzen nituen haren auzoa zen Boroatik irteten, «Larrosia txoletteroa» baino.

Urte batzuk geroago, prosperaturik edo desesperaturik, txinberazko tiraketa ere ipini zuen aukeran. Zizpa txiki hark perdigoï bakarra jaurtitzen zuen, itu biribilaren ninia joez gero, goiko partean mozolotxo baten irteera akzionatzen zuena, sari seinale. Tiraldi hari ez zegoen aurpegia jartzerik, benetako tiroa baitzen. Tiratzaileak ere adin

bat behar zuen, hartan jokatzeko. Ni baino urte batzuk zaharragoa zen ikaskide bat, tiratzaile trebea ei zena, bi begiak zabalik zituela jaurtitzen ikusi nuen, harriturik. «Horrela zelan joko duk, ba?». Begi bat eskuarekin estali nion. Tiratzen jarraitu zuen, eta «Larrosia» deabruak harturik oldartu zitzaigun, garrasi gorrian: «Zertan zabiltzate belekume madarikatuok? Txosna guztia birrindu behar al duzue, neu barne?». Apaizgaiak edo «belekumeak» ginela ikusi ez balu, zehatuko gintuen duda gabe. Izaturik gelditu nintzen, sustoagatik baino gehiago, gertatuaren ezin-ulertuagatik. Handik urteetara jakingo nuen nire lagunak, halakoxe txinbera batekin umetan izandako ezbeharretik, begi bateko ikusmena guztiz galdua zuela. Begi sanoa estali nion, antza, baina hark tiratzen jarraitu, bere gabezia ez deklaratzearren.

HAURTZAROKO EZKONTZA

Eskolaro primitibo hartatik oroitzapen atsegingarri bakar bat gorde behar banu, haxe litzateke, seguruenik: nire lehen ezkontza. Bi mutiko, ni eta Katxin, neskato banarekin «zertu» ginen, eta bazirudien eurek ere «zerari zertzen» ziotela. Neskek bazuten eskola inguruko lorategian partzelatxo bana, hiru-lau metro karratukoa, eta ni atzea galdu beharrik ibiltzen nintzen neure laguntxoaren esanak egiten. Loreentzat ura ekarri, harri-koskorak batu, bareak apartatu, noizean bat jan ere bai, eta halakoak. Laurok baztertxo batean biltzen saiatzen ginen disimuluan, eta esplizituki deklaratu gabe bazen ere, bagenekien «elkarrekin» genbiltzala. Elkarrekin eta bakoitza berearekin. Hartan, pentsatzen hasi ginen: «Zergatik ez gara ezkontzen?». Bi mutikoak akolitoak baikin, berehala antolatu genuen plana.

Egunak eta asteak aurrera, inork ez genuen, geure artean, «nobio-nobia» izen kilikagarri hori aipatzen. Niri, lantzean behin, eskola inguruetatik at, eskapatzen zitzaidan «nobio» neukala. Gozatzen nuen guztien harridura-zeinuak obserbatuz eta inork ez zuela sinesten ikusiz. «Izorratuko zarete, ba, egia baita!». Amamari ere zerbait iradoki nion, posibilitatea bakarrik, eta hark egin zituen aitarenak eta joseusak!

Elizan eta elizkizunetan adituenak akolitoak direnez gero, eguna eta gainerako estrategia guztia mutilon esku geratu da. Nire aldetik ez da hutsik izango, bietarik zahartxoagoa naizen aldetik. Urduri nabil goizeko jolasorduan, Gotzoneri lorategian laguntzen, atzera-aurrera inkoherentean, beste mutil guztiek elizpean arrapaladan diharduten bitartean. Loreak hautatu behar dira, baina ez orain moztu, inork ez baitu susmatu behar gaur arratsaldean ezkontzea erabakita daukagula.

Ezkontza askotan akolito jardunak izanik, badakigu egitekoen berri, nahiz eta meza gabe izango den. Hori ere bagenekike, eta egitekotan ginen, denbora luzatzea arriskua zela pentsatu ez bagenu. Zeremonia bizkor amaitzea komeni da, eliza ixteaz arduratzen den sakristaua-edo halabeharrez agertu eta, atea giltzaturik aurkitzean,

hark guri eskandaluren bat ez armatzeko. Tamalgarri bada ere, arrazoi beragatik, argiztapen gabeko ezkontza izan beharko du. Kanpotik ezin da ezer igarri.

Belaunaulki luzea, ohiki jaunartzeko erabiltzen dena, aldare-mailen barrenera erdiratu dugu. Beste hirurak hortxe belauniko, nik, sakristiatik, ezkonberriei uztarri-seinaletzat bizkarreratzen zaien humerala dakart. Neskak erdian, mutilok alboetan, estutu beharra dugu, birentzat izan ohi den oihalak laurok estal gaitzan. Zirrarez nahasturiko lotsa larria sentitzen dut, Gotzonek nire gorputzaren dardara nabarituko ote duen. Dardara ez bada, taupada hauek ez daitezke oharkabean igaro. Inoiz ez gara honen arrimaturik egon. Belaunaulkia ere dardar nabari dut; dena ez daiteke neurea izan. Lau harmaila gorago Sebas dago. Lekukotzat aukeratua dugun mutiko lagunak aldare nagusiaren paretik begiratzen digu. Goi-izaki bat begitandu zait, zerbaiten zain baino dominatzaile. Une batez, zeremonia antsios honetako figura behinena bera ez ote den bururatu zait.

– Hasi! –agintzen du Sebasek, eta hasi egin gara, berari obedituz bezala.

– «Aita gurea, zeruetan zagozana... Emoiguzu gure eguneroko ogia... Agur, Maria, graziaz betea... Santa Maria, Jaungoikoaren ama... Gloria patri eta filio... sicut erat in principio... Amen. Sinesten dot Jaungoiko Aita ahalguztiduna... Salve Regina, mater misericordiae...».

Ezkon formularioa gidatzeko abaderik ez dagoenez, geuk zuzenean galde-erantzun beharko. Ene ama! Izango ote naiz gauza?

– Izan gura al dozu, Gotzone, nire emazte, onean eta txarrean, heriotzak banandu gaizan arte?

– Gura dot, bai. Heriotzak banandu gaizan arte, eta gero zeruan, betiko.

– Izan gura al dozu, Xabier, nire senar, onean eta txarrean, heriotzak banandu gaizan arte, eta gero zeruan, betiko?

– Gurako ez dot, ba?

– Horrela ez, lelo hori! –Gotzonek–. «Gura dot, bai» esan behar dok.

– A, bai! Gura dot, bai.

– Bai zer?

– Guztia! Azkenean, bertan harrapatu behar gaitue!

– Barriro itaunduko deuat. Izan gura al dozu, Xabier, nire senar, onean eta txarrean, heriotzak banandu gaizan arte, eta gero zeruan, betiko?

– Gura dot, bai. Heriotzak banandu gaizan arte, eta gero zeruan edo inpernuan, betiko.

– Inpernuan?

– Ez, ez! Parkatu. Inpernuan ez.

– Amaituko al dozue? –Sebasek.

– Bai! Hasi beste biok –agintzen du Gotzonek.

- Izan gura al dozu, Maribel ...?
- Izan gura al dozu, Katxin ...?

«Izan gura al dozu? Gura dot, bai».

– Une hau zergatik ez ote da eternal bihurtzen? –pentsatzen dut. Batez ere, «bai» llabur hori. Handik ia laurogei urtera, pentsatzen dut baietz. Une hark eternal dirauela. Sebasek agintzen digu:

– Jaungoikoak zuen gogoia onartzen dauen seinale, emioizue alkarri loratxo maite bana.

Eraztunik eta dirurik ekartzetik izan ez dugunez gero, oraintxe da unea, Gotzonek eta Maribelek goizean hautatu eta arratsaldean moztu dituzten arrosak bikoteka elkarri emateko. Neskak mutilari zuria, mutilak neskari gorria, nagusiek egingo luketen alderantziz.

Beste hirurek eta lekukoak belaunulkia bankuen parera alboratzen duten bitartean, nik humerala sakristiara daroat. Bueltan, lagunak irtenak direla baliatuz, elizan bakarrik aurkitu naizenean, zeremonia eranskin intentsoki pertsonal batekin bermatu guran, ezin dut ekidin, beheengo harmailan belauniko, neure bizi guztiko aitagurerik sentituena errezatzea, «dena ondo irten dadin». Hamar urteko mutiko batengan, intentzioaren argitasun horrek benetasunaren adierazle huts gabea izan behar du. Aldaretik ateranzko bidean, dena ondo irtengo den euforia txit segurua nabari dut, beharreko guztia hain ondo eta zintzo egin dugunez gero.

Jada elizpean, amets betearen poz gainezkoari larribide esterno barik burutu izanaren sentipen triunfala gehitzen zaio. Mutilok bakoitza bere neska defendatzera jolasten gara, eta hauek bestearen mutilagana hurbiltze-planteekin probatzen gaituzte. Ni horrek mindu egiten nau, gero «jelostu» esango zutena. Baina dena mukuruk konpentsatzen da, hurrengo bueltan nire neskak defenda dezadan uzten duela ikustean. Elizpean atzera-aurrera erritual batzuk egin ondoren, ezkontza onez amaituak badakigu bidaia bat duela bidezko jarraipen, eta hor abiatu gara Goirienaren harrobi zaharretara, bata bestea gabe kontzibitu ezin ditudan eskolaren eta hilerriaren aurretik.

Ez daukagu bazterrak ikusmiratzeko astirik, nahiz eta dena ikuspegi berriz ageri zaigun. Sagasti erripean trabes, aspaldi abandonaturiko harrobi gorrira doan pistak belar fin-finezko alfonbra bizikor baten energiaz hartzen gaitu. Sagastiak harrobiaren ebakidura hartzen duen marrik harantz, bazter ezkutuak bai, baina inklinazio zaskarrak eta leize arriskutsuak daude. Zoratuta ere ez nintzateke ausartuko neskei hain paraje zikin eta arriskutsurik iradokitzen. Ertzean gelditu gara, zertara etorri garen ideia agian ezberdinen tentsioa gaintzeko lotsaz bainoago beldurrez. Bakoitza bere lagunaren ondoan geldi, edo hara-hona txit motzean. Badakigu bidaiaren xedea ez daitekeela izan itzulera soila, baina bitartean

jakintza baino gehiago da jakin-mina. Eskua ematerik ez zaigu bururatzen, inon ikusi ez dugulako. Ondoan egotea edo paseatzea intimitate ageriaren summuna da guretzat, zirrara posible ororen biltze ia gehiegizkoa. Besteak ez dakit, baina ni horrelaxe nago.

Kontzientzia osoz saiatzen gara neska-mutil helduen arrimu ohiki edo taktikoki zehazgabea ontzen. Gure kasuan, argiz eta agerian, gaueko neska-laguntzen izaera ez baitugu ezagutzen hizki-mizki ostuetatik baizik. Sebas zintzoak, eserita dagoen muna gaineko sagarrondoaren kontratik, ez du sumatzen, nonbait, berak itxaroten zuen lekukotza berrirako martxarik, eta bere toteltasun saiakorretik, agintzen du:

– E-e-e-eeeizue, ba!

Nik uste denok dakigula zer den egitekoa, eta neskek ere badakitela pentsatzeak erabat urduritu nau. Azkenean, harrobi-bidaia hartatik sagar batzuk ostu eta mutil bakoitzak bere neskari emateaz beste atrebentzia gabe itzuli ginen. Pozik eta dohatsu, hurrengo egun amaigabeek eginkizun ororen kulminazioa ekarriko zutela eta. Aurrerantzean, lagunak baino zerbait gehiago ginen, eta ahalak egiten genituen elkar babesten, eskolako fauna hartan ez baitzen falta zertatik babestu. Historia luzatu zen pixka bat, baina erabat moztu zen, fraide joan nintzenean. Zornotzan bertan, internatu zorrotzean.

Geroztik ia urtebetera, udako oporretan itzuli nintzenean, banekien segregazioa totala izango zela. Ez neukan nire laguntxoarekin traturik izaterik, ezta hitzik egiterik ere. Baina ikusiko nuen, eta hori bazen aski ilusio. Lehen igandeko meza nagusian, eliza bete-beterik, ikus-min handia zegoen nolako fraidetxo agertuko zen Torreburuko mutikoa. Nire ikus-mina beste bat zen. Orduan mezak latinez eta erretaulara begira izaten ziren. Akolitook ere halaxe, belauniko, atzean, ez tul eta otoitz, herri osoaren presentzia nabaritut. Pentsatzen nuen: «Hortxe egongo da! Gogoratzen ote da bera ere?».

Baziren une batzuk, eliztarrenganantz buelta ematekoak. Abadearen sermoia zen bat, non akolitook eskuineko banku batean esertzen ginen alboz, jendea ikusteko moduan. Bazen Jaunartzea ere, non «gure neskak» ere etor zitezkeen, kokotsa nire patena gainean jarriz. Eta batez ere, bazen diru-batzea. Hemen ilara guztiak banan-banan pasatu behar ziren, eta ziur hur-hurretik ikusiko nituela Gotzone (nirea) eta Maribel (nire lagunarena).

Baina ez zeuden han! Nire ikus-mina kezka-min bihurtu zen. Igande hartan beste norabait joanak izango ziren. Astelehenean, fraidegaiak mezatara joan behar zuen. Egunero, goizeko zortzietan. Meza amaitzen zenerako, bederatzietan eskolara sartu beharreko neskato-mutiko guztiak han ibiliko ziren, elizpean edo plazan. Eskolara atesare beretik pasatu beharko zuten guztiek. Baina Gotzone eta Maribel ez zeuden han. Ez asteartean, ez hurrengoan, ez aste

osoan. «Zer gertatu da hemen?». Ez nintzen ausartzen galdetzen, nire interesaren arrazoiak igarriko ziren beldurrez. Denbora batera jakin nuen zergatia, era oso zeharrean. Bi neskatoak ez ziren Etxanokoak, aitita-amamen etxera etorriak baizik, zirenak ziren arrazoiengatik. Ni komentuan nintzela, euren jaiotetxeetara itzuli ziren, urrun, betiko. Lasaitu nintzen alde batera, pentsatuz: «Jainkoak merezi du horrenbeste».

Hurrengo kurtsoan Derioko seminariora aldatu ninduten. Urteak joan ziren, eta hamasei nituela, udako oporretan, Etxanoko abadeak herriko beste apaizgai bat eta biok egunpasan eroan gintuen. Bueltan, Zornotzako El Cojo jatetxean, abadeak askaltzera gonbidatu. Nire poza eta «mundua» zapaldu nahia handiak ziren halakoetan, Torreburuko mendialdetik apenas jaisten bainintzen. Zerbitzen ari zen neska gazteak eta abadeak konfiantzaz eta txera handiz hitz egiten zioten elkarri. Abadeak izena ere esan zuen behin –Maribel–, eta barruak zauzk egin zidan. Dena zetorren bat. Neska zerbitzari hura nire lagun akolitoaren behinolako «emazte» Maribel zen. Bigarren zauzkada berehalakoa izan zen. «Eta nirea? Gotzone non ote dabil?». Ez nintzen ausartu ezer arakutzen. «Jainkoak merezi du horrenbeste».

Berriz ere urteak joan ziren, eta Derioko seminarioan, hogeita hiru urte nituela, sotana betirako hartu beharra zekarkeen ordenazio baten bezperan geunden. Subdiakonotza. Ordena horrek, sotana gainera, botoak zin egitea zekarren, tartean kastitatearena. Lau kurtsokidek azken «eskapada» zibila edo «prakaduna» egitea erabaki genuen. Ezkongaien despedida bat bezala, baina alderantziz. Eskapada, jakina, guztiz arauz kontrako eran izan zen, eta nire aldetik, behintzat, aldarte guztiz melankolikoan. Tristeian ere baietz esango nuke. Sotana betirako! Larunbata izanik, arratsaldean ordu batzuk libre genituen, eta Deriotik, Zamudio, Lezama eta Larrabetzun zehar, Erletxeraino iritsi ginen. Berrio jatetxea. Hango etxekoandrea ezaguna nuen.

«Zelan hemendik?» eta abar, diru askorik ez geneukan, baina askari gozoa ari zen mahaira etortzen. Neska zerbitzaria, ni baino urte bat edo bi gazteago zirudiena, oso atsegina eta txeratsua zen. Egia esan, guretzat orduan hitz egiten zigun edozein neska zen atsegina. Halako etortze batean, diost:

– Zu Torreburukoa zara, ezta? –Baietz nik, taupadak ezin gordez–. Ba, gu eskolara batera ibili ginen.

– Non? –galdetu nuen zentzugabeki, eskola bat baino gehiagotara ibilia izan banintz bezala.

– Etxanon.

Ia barrua zartatu zitzaidan, pentsatuz: «Hauxe da nire andretxoa!». Eta ausartu nintzen galdetzen:

–Gotzone zara zu?

Baietz. Ez nintzen ausartu galdetzen ea bera gogoratzen zen... Buff! Ezin nuen sentitu, aurrekoetan bezala, Jainkoak horrenbeste merezi zuenik, eta esan nion neure kautan, Gotzone hizketan ari zitzaidala: «Ene Jainko! Zelan pasarazten nauzu ataka krudel honetatik?». Beste hiru lagunei historia kontatu nien, eta esan zidaten, beldurturik:

– Ezin haiz apaiz egin! Ezkonduta egotea inpedimentu totala duk.

Apaiztu nintzen, ba! Eta utzi ere bai urte batzuetara. Eta mende erdi baten ondoren, duela ez urte asko, Gotzone berriz ikustea egokitu zitzaidan, familian zeramaten jantzi-denda elegante batean, Bilbon. Adinaren talaia baretik ausartu nintzen galdetzen ea gogoratzen zen eskolako erromantze hartaz, eta baietz erantzun zuen, irribarrez. Ez genuen solasa aurrerago eraman, jendea baitzegoen inguruan. On da gauza on batzuk amaitu gabe gelditzea, beti on jarrai dezaten.

AMA BIRJINA BILUZIK

Batak Eba, besteak Ama Birjina. Zuzendari espiritualarekin endredo handi bat izan nuen, Ama Birjina agertzen zitzaidala aitortu nionean. Nire ustezko ilusio mistikoa fenomeno arruntera ekarri nahi zuela igartzean, «zergatik ez zait agertu behar niri?» tematzen nion, haien mirariak kanonizatu arte, neu baino bidente arruntagoak izandakoen kasuak aduzituz. Bat-batean, haren konprentzio paternala erabat kizkurtu zen, azaldu nionean Ama Birjina biluzik agertzen zitzaidala. Orduan zuzendaritza espiritualaren manei guztiak neuk hartu behar izan nituen, haren aurpegi desfiguratutik begiek izaturik alde egin nahi baitzuten.

Beharbada, Ama Birjina barik Eba izango zela; beharbada, hostoa barik eskua izango zela; beharbada... Ez nion ematen, antza, hark tentazio biolento soiltzat jo zuenaren funtsa biguntzeko argudiorik, igartzen bainion pentsatzen zuela zer axola zuen agertua nor zen, axola zuena bestea bazen. Apur bat bere onera itzuli ahala, eta keinuak beste apur bat koordinatzera hurbildu zenean, platika bat murduskatzen hasi zen, eskema arrazionalik gabe, haren lanbide espiritualean halako kasurik nekez izango baitzen aurreikusia. «Jesus, Jesus! Ama Birjina biluzik! Bai inpietate satanikoa! Hau ere ikusi behar!». Begiak ixten egiten zituen ahalegin kontraktiboek zerakusten bera ere biluztasun birjinala bistatik kendu ezinik zebilela.

- Nik zer egin dezaket, berak hala agertzea erabaki badu?
- Hago isilik, otoi! Ez nian pentsatuko deabrua horren krudela izateko gauza zenik.
- Ba niri, halakoan, begiak ixtea errespetu falta begitantzen zait.
- Vade retro! Hoa zeruaren barkamenean. Jarraituko diagu beste batean, Jainkoaren graziak indar handiagoa dakarrenean.

MARRASKILOAK

Marraskiloari beti adar berak luzatzen zaizkio, ez dakit ordena jakinean, txandatuan ala aleatorioan. Nik uste dut... Beno, gero ehizatuko dut marraskilo bat eta obserbatuko astiro-astiro (nola, bestela?), bareekiko portaera konparatiboan. Astiroago, beraz. Ondorioek baliteke inor txunditzeko berritasunik ez ekartzea, baina ondo etorriko zait gastropodoen tritura ohitzea, herrestari mukizuak berriz jan beharrean gerta banendi, ihes egin ez diezadaten. «Berriz» diot, umetan zalea baintzen. Ama larritua konturatu zen zergatik ezin nituen ireki ezpain itsatsiak, eta orduantxe lasaitu zen, nire ezin-esana zerena zen argitzean.

ARISTOTELESEN HAGINAK

Orain unibertsoa plano da. Nigatik oboidea edo artazia izatea dauka. Galileo hil zen egunean Newton jaio izatetik atera daitekeen ondorio zientifiko bakarra da Aristotelesek ere ez dagoela guztiz fidatzerik, zeren, bi aldiz ezkondua izanik, emakumeak gizonak baino hagin gutxiago daukala uste bazuen, pentsa gai metafisikoetan zer ikusiko zuen.

BEGI-BERO ETA SINES-GOGO

«Hurrengoan ere etorri honelaxe», opatu zion gure amak agurrean neskatoari, neure desira transmititzen ari bailitzan. Uda guztian ez zen seguruenik gehiago agertuko, baina niregan oso-osorik gelditu zen posibilitate maiteminkor bat, zeinaren izatea intimitate librean mugagabeki handituz eta edertuz joango baitzen. Batez ere gero, seminarioan, neure kondaira samurki handitua kontatuko nionean ikaskide erromantiko bati. Honek dena begi-bero eta sines-gogo entzun zuen. Amodiozko literaturak hainbesteko arrakasta edukitzea ezin zaio beste ezeri zor, ez bada kontatzea zoragarriago dela bera bizitzea baino.

BERA ETA GERIZA

Metro batzuk luzeago, geriza zeure norabidean doa. Ez dakizu bera aurreratzen zaizun, ala eguzkiak alde egin nahi dizun. Horretan, etorbide sakon eta zuzenean, espaloi beretik, emakume bat zeuganantz dator. Bakarrik dator. Gerizarik ez dakar aurrean. Aitzakia gabe begiratu ahal diozu, behar diozu, elkar ez jotzeko. Hurreratu ahala, irudia zehaztuz dator. Sarritan, ezuste mingotsa, zeren prebisioren gaintiko edertasun bat izan dena, batzuetan, abiapuntuko irudi ederraren azpitik gauzatzen baita. Dezepzioak maiz ekarri dizu hasperena. «Hobe albora begira pasatu banintz!». Oraingoan zer egingo duzu? Pentsakizunotan ari zinela, emakumea igarora da.

Zalantza baten ondoren, atzera begiratzen ausarturik, haren geriza zeure oinetan aurkitzen duzu, hura zeugana lotu nahirik, baina, azkenean, geriza ere joan da, aurpegirik erakutsi gabe.

Zorionean, arrazoi askok bat egin behar dute. Zoritxarrean, bakarra da nahikoa. Maitasunaren destinoa dezepzioa izatea ez da hain nobedade, pentsatzen bada gizakide bat maitatzea, litekeen maitagarriena delako baino gehiago, dagoen maitagarri arrazional bakarra izateari dagokiola.

NAHIKARI NAHIGARRIA

Ardurak betetzen bizkorra naiz, ez arduratsua naizelako, ardurak bizkarretik kentzearen baizik. Ez da erraza zergatik idazten dudan jakitea, zeren, neure buruarentzat egiteak zentzurik ez badu, ez dauka handiagorik interesatzen ez zaizkidanentzat idazteak. Saiatzen naiz auziak ez nazan gehiegi kezkatu, ulertzen ez ditudan beste hainbat nahikariz egina bainago. Eta zer? Nahikaria bada, ezin al da nahigarri izan?

PAUMAREN MOZKORRA

Zaila da pauma emeak hainbesteko edertasuna behar izatea arrarengan, baldin naturak aurreikusi ez bazuen arraren marru dezepzionantea konpentsatu behar zuela. Dohatsuak badira animalia arrak (txakurrak, adibidez), euren zakila xurgatzeko gai direlako, zer ez ote dira izango, naturarekiko zor guztiak betetakoan, arra jateko gai direnak?

Maite dut manifestazio horietara joatea, non gomazko pilotaren bat beti harrapatzen baitut, txakurrari ekartzeko. Hilabete irauten dio. Paternina urdina. Bakarrean mozkortzen bazara, mozkor guztia zeuretzat da.

APAIZGAI BATEN LARRITASUNAK

Hogei urteko apaizgaia, internatu zorrotzetik, udako oporraldian. Inoren etxean lo egitea urduri puntua sortzen zion dohatasun mundanoa zen. Hori bera, artzapez baten etxean, ohore dibinoa izan zitekeen adin horretako apaizgai batentzat. Goizean, kasik bere leihoburutik zetozen albako kanpaiek iratzarri zutenean, bustitasun bat nabaritu zuen, bere gorputzetik kastitatera destinaturik zegoen eremuan. Izara-mantak albora jaurti eta ikaraturik jaiki zenean, plastoi bat hauteman zuen ohe zuriaren erdi-erdian. Lehortu ahala, kolore lizunagoa hartzen zihoala iruditu zitzaion. Gerora azalduko zuenez, behin, Txit Santuaren argiontzia iraultzen deskuidatu zenean, aldareko estalki zuriaren gainean zabaldu zen olio-orbanaren antzekoa.

Oheburuaren gain-gainean zegoen gurutzeari «Jauna, zuk badakizu nahi gabe izan dela!» auhen eginik, esku bateko lau hatz gorgoileraino sartu zituen. Okadak eta karraskadak ugari, baina ez zetorren aurreko orban hura goitika bat izan zela pentsatzen laguntzeko materialik, orbana nabarmendu zezaketen bilis-hariak baizik. Komunean aurkitu zuen bizar-mozteko xaboiarekin ere ez zuen lortu ezer konpontzeko modurik, usain larri bat zabaltzeaz besterik. Maindire orbanduari buelta eman eta ohea eginda uzteko lanean hasi zenean, bi maindireak, gaineko eta azpiko, bi aldeetatik bustita eta koltxoia lingirdaturik agertu ziren. «Nondik irten zait honenbesteko lorrina?» pentsatuz, lasaitu nahi zuen bere burua, bi eskuekin heldurik. Ohea ahalik kuriosoen eginda utzi zuen.

Sukaldean, «egun on», «zelan lo egin?», «oso ondo», eta halako hitz jakinen ondoren, artzapezaren neskameak kafesnea eskaini zion, baina berak ezetz. Abiatu beharra zeukala. «Zartagineko gozo-gozoa atoan ipiniko dizut». «Eskerrik asko. Ohetik hara ez naiz gose izaten. Lehenbailehen joatea komeni zait». Joan zen eta atera ahal izan zuen argitasun guztia izan zen ezen «fenomeno arraro bat» gertatu zela bere gorputzean. Gero, jada apaiz eginda ulertu zuen fenomeno osoa, baina hori beste istorio bat da, honela labur daitekeena:

«Ohean etzanda zegoen, luze, hankazabal, sotana eta guzti, bero handi eta freskoan pentsatzen, halakoxea baizen abadetxe zaharra. Gorputzean abiada arraro bat sentitu zuen. Abiada abiadura bilakatuz zihoan. Zerbait etortzen nabaritu zuen. Buf! Hau badoala uste diat. Bazihoak. Hoa, hoa! Joan duk!». Arrapaladan. Errekorren bat ondu guran bezala.

JAIKIERA

Ez dut jaikitzeke arrazoirik ikusten, kaleak ipintzeke baleude bezala. Edo trenak tuneletan hibernatzen. Mundua gomuta soil bat besterik ez bailitzan. Era propioagoan esanda, «insufizientzia sexuala». Ez daukat jaikitzeke behar den hori. Goizean-goizean, areago itzarkera bakoitzean, ezgaitasun absolutu horretantxe murgildurik aurkitzen naiz, gozo-gozo. Ezgaitasuna hain da, gainera, ausarta ezen, jaikitzeke aldetik krokodilo baten ahotzar irekia balego, ez uste saiaturiko nintzatekeenik beste aldetik ihes egiten. Lehenago onartuko nuke krokodiloa ohean sar lekidan, jaikitzea baino.

Mundua konkistatzera bezala jaikitzen direnek ez naute batere bekaizten, ordu horretako nire nahi bakarria mundutik alde egitea baita. Horixe ere ez, horretarako ohetik jaiki behar bada. Doala krokodiloa! Ezin dut esan nire afera adikzio prenatalen bat denik ere umontziarekiko, hortik garrasika eta ostikoka irten bainintzen, belarrietatik esekitako untxia bezala. Eskerrak hortzik gabe jaiio nintzen!

ARRATOIA

Iluntasun iraunkortuaren azpian abiatzen diren labezomorroak bezala. Ez diot konparazioari jarraitu nahi, labezomorroei, oinpe biluzian krisk zapalduak izateaz beste errurik ez dutenei, higuina baitiet. Beldur naiz, haiekin konparatzen hasita, haien usain mingotsa ez ote diodan neure gorputzari hartuko, bere burua Napoleonekin konparatzen hasirik, azkenean Alexandro Handia izaten amaitu zuenaren antzera. Saguak ez zidan hainbesteko higuinik ematen, euskal hiztun praktikanteak ordenagailukoari «arratoia» deitzen entzun arte. Brrr!! Aparatua zabortegira botatzeko gogoia ematen dit.

ARRAINA IRRATIAREN ONDOAN

Uste dut itsasoak ez duela entzuten. Horrexegatik izango da baleak hain buru handia eta belarririk ez izatea. Uste dut arrainek ere ez dutela askorik entzuten. Horrexegatik maite dut arrain-ontzia sukaldean, irrati-kasetearen ondotoxoan. Maite ditut edozer esan eta jaramonik egiten ez dutenak, ez niri, ez irratitari. Horregatik, sukaldean sartzen den edozein arrotz berriri, lehen-lehenik, arraina aurkezten diot, beti ere izena aldatuz, badaezpada. Arrainari ez dio ardura izaten, baina nik arrotzaren erreakzio fazialetik kalkulatu dut gizon fidagarria ala emakume maitagarria den.

URAREN INDIFERENTZIA

Zirraratzen nau uraren ezaxolak, indiferentzia osoak. Jar denak, dena, berari begira, eta ezer ez bailitzan dago. Hara, hona, geldí, ibil, beste intimitaterik ez dizu adieraziko. Aurki beza bitarte bat eta badoa, ez agurrik, ez itzuliko denik. Ez da harritzekoa ezer kanpokok hari ez ardura izatea, irudi guztiak berarengan baitaramatza. Ibai zabala, señoriala, une jakin batez, zintzur estu-estutik minik hartu gabe pasatzen zaizu. Harago, berriri, zabaltasun handian nasaitzen da, aurreko bera dela onartzea fede-egintza bihurtzeraino, dedukziotik zaila baita. Horizontea zergatik iruditzen zait nagoen itsas ertza baino askoz gorago?

PIZONTZIA OFRENDAN

Hamaika urterekin, seminarioko lehen instrukzio oinarrizkoetan, pixontziaren (orinalaren) erabilera azaldu zutenean, neure intimitatea hain desartikulaturik ikusi nuen, ezen ez bainintzen gauza izan neure buruari agintzeko puxikari lehertzen utziko niola, gauzez han pixa egin baino lehenago. Etxean ohituta nengoen pixontzira egiten, zeren loguraren eta ilunaren mende, argindarretik urrun oraindik, ukuilura oinutsik jaisteak, abentura endredoso eta arriskutsuaz gainera, etxe guztia iratzartzea baitzekarren, lagun eta animalia. Seminarioan, neure

ontzi zuri tripaduna ofrendan eramanez, lotegi amaigabea hainbeste begiren aurrean zeharkatu beharko nuela irudikatzeak gorputz guztia karranpatu zidan. Besteak ere eginbehar berdinean aurkituko zirela pentsatzeak, lasaitu beharrean, nire lotsariari efektu espantsiboa erantsi zion. Zorigaitzez, puxikari lehertzen uztea ere ezin zen erremedioa izan.

SINFONIA FANTASTIKOA

«Sinfonia fantastikoa». Berlioz. Bilboko plaza eliptikoan zegoen musika-denda batean geratzen nintzen ikusmiran, beti. Egun hartan, disko berriren bat erosi arte ez zidan bakerik ematen poltsikoan urduri zebilen dirutxoak. Zein erosi erabaki ezinik, har-utzi, ikus-usaindu niharduen. Etxe horietan, ez dakit egiaz dagoelako ala neuk emititzen dudalako hartu ohi dudan musika-usain guztiz identifikatuak exzitate egiten nau. Hartan, «Sinfonia fantastikoa» hauteman nuen. Berlioz. Pentsa nire jakintza musikalen maila, egilea ez ezagutzeaz gainera, abizen txakila iruditu zitzaidan, higuina hartua nion «pardiez»-en antzetik edo. Nongoa ote zen, ez nion hartzen austriar, errusiar, italiar, ezein europarren usainik. Berlioz! Gaztelaniak eta frantsesak bortxatzeko hain grina aihertsua duten euskal abizen bat, «Berriotz» adibidez, izan zitekeela pentsatzeak ez zidan sinpatiarik gehitu.

Bai gustatu zitzaidan izenburua: «Sinfonia fantastikoa». Pentsatu nuen: «Bere sorlan bati horrelako izena ipintzeko kuraia daukanak norbait izan behar dik». Arrazoi arbitrarioa, baina balio izan zidan. Diskoaren kontrazalean, frantsesa zela irakurri nuen. Ez zen, beraz, ez austriar, ez aleman, ez poloniar, ez errusiar, ez nafar, ez... Haren soslaia biografiko eta artistikoaren erreseina luzea ere gustatu zitzaidan. Baina hori horretarako idazten da, ezta? Gero pentsatu nuen: «Joño! Karajanek zuzendua izateko, ez duk edonor izango». Izena bai. Izen kontudentea zeukan: Hektor. Beharbada, Philippe Berlioz izatera, jaramonik ere ez nion egingo. Erosi egin nuen. Diskoak liburuekiko abantaila handia baitauka. Gehienik, ordubete gal dezakezu. Horrenbeste, txizalarriari eusten ere maiz egin izan dugu.

Iluntzean, etxean, disko-jogailua martxan ipini nuen. Hasiera delikatuak, intriganteak, hozkatu ninduen. Ondorengo erritmo eta melodien segida zirrargarriak erabat atxiki ninduen. Eta bizitzako ordurik txundituenetako baten buruan, durditurik nenbilen, egongelan atzera eta aurrera, neure buru agitatuari errepikatuz: «Baina zer izan duk hau?». Musika entzunaldi batek ez nau sekula menperatu izango halako inpaktu totallean. Zoria, oraingoan, hegazti fantastikoa izan zen, umetan eskura etorriko zitzaidala amesten nuena. Sinfonia hori berriz entzuten dudan bakoitzean, ez dakit bera entzuten dudan ala lehen aldiko inpaktu hura berritzen zaidan.

ANBOTO ERREALA

Ez neukan gogorik irtenbide gabeko labirintoetan biziatzeko, galdurik ibiltzea zerbait aurkitzeko metodoa bailitzan. Bai saia ninteeen ikusten nuena neure buruaren antzetik askatzen. Anboto mendiaren nire ikuskera, adibidez, gehiago zen berak ni nola ikusten ninduen irudikapena. Triste banengoen, Anboto tristagarria zen oso, ni are tristeago ikusten ninduela. Amorraturik banengoen, Anboto amorratzeko motibo bat gehiago zen. «Begiratu egiten duk, haitz konkor bihozgabe horrek?». Pozik banengoen, haitz konkor bihozgabeak maitale laztangarri baten gozotasun eternoa zabaltzen zuen. Baina ez zitekeen izan Anboto objektiboki aldatzea, nire aldartearen arabera. Nigandik nahitaez aparte egon behar zuen Anboto hura ikusi nahi nuen. Anboto erreala. Nire aurretik hantxe egona eta nire ondotik hantxe egongo dena.

Eta neure balkoi honetatixe, objektiboa urrunduz baino gehiago, neure buruaren isla bistatik garbitzen saiatuz, une llabur batean, mistikoeak lortzen ei zuten trantze horietako batean, errealitatea zen bezalako hauteman nuen. Ezin izan nuen probatu gustatzen ote zitzaidan, izutu egin bainintzen, bai ikusi nuenagatik, bai aurreko egoerara ezin itzultzeko beldurragatik. Zorionez, ez zen gaitz bueltagaberik gertatu. Brastako abismal baten ondoren, ikuspegia berriro neure izatearen mintzez baturik aurkitu nuen. Beharbada, dena izan zen errore bat, baina nire oroimenean dena da erreala.

KATU-BEGIEK INGURATUA

Plaza erdian, «ba al da inor?» galdetzen hasterako, kolore zikin guztietako katuz inguraturik aurkitzen naiz, beti erdian edo traban jartzeko daukadan jenioagatik. Ez ahal zaie irudipen freskoren bat bururatuko, zeren, arraina gustatzen zaienaz eta urik gustatzen ez zaienaz, lehorreko bakailaotzat har nazaten gerta liteke. Lehen ere eskarmentaturik nago, sardinazarrak afaltzen nituen guztian, logelako ate kontratan gaua miauka ematen zutenekin. Katu ezezagun batek zuzen begiratzen didanean, transpasatu egiten nauela nabari dut. Gaitz erdi, ze transpasatzea, azken batez, beste aldetik atera den bala bat izan daiteke, hor konpon, doala bere kapritxoa eginda. Zitalago dena da katuaren begirada norbere ninietan barrurantz errefraktatu eta erraietan aloiatzea. Edo garunetan, berdin dio. Nik zer dakit barru horretan zer dagoen, hain gutxi non dagoen.

Baina plaza huts baten erdian zaudela, bat-batean, kirats-sen utsiezin batek erakarririk, katu-aldra batek, bost metrora, zirkulu perfektuan inguratu zaituenean; tipula pintatuak bezalako aurpegi serial horien begirada radialekin topo egin duzunean; orduan kilikadura hotz bat sentitzen duzu, garratz-puntu umel batez. Izua baino areago, hezur barruko destilazio bat. Begiak zorura jausi zaizkizu, ez katuenak saihesteko sorginkeriaz, baizik orkatilei isurki

kolorgeren bat ote darien. Eta bide batez, zeure bakardadearen kontzientziara itzultzeko, une honetan ni aurkitzen naizen moduan. «Hau ere bada, ba! Berrizen txakurrak, Atxondon azkonarrak, Elorrion katuak. Beharbada, bizidunak espezieka batzeko esperimentu bat izango da, eta nik gizakiei non tokatu zaien jakin ez».

NESKA JAI O BANINTZ

Gero, nire pentsamena fantasiatik arrazoietara jaisten hasi zenean, hobespen femeninoa zapuzpen maskulinoaren alderantzia ez ote zen bihozkadak eman zidan. Bihozkada iragankorra, neure burua ere tarteko baitzen. Baina harra hantxe geratu zen, oharkabean pentsaraziko zidana ezen, berriro jaiotze kasuan, neskatasuna zoritxar txikiagoa izango zela agian, horrela askoz probabilitate gutxiago izango bainuke biolatzaila izateko, adibidez, edo torturatzaile, edo gerlari, edo polizia, edo jeneral, edo konkistari, edo enperadore, edo genozida... Askoz probabilitate txikiagoa, adibidez, mozkorti izateko, edo liskarti, edo pirata, edo kapo, edo bankari, edo intelektual, edo trafikari, edo ministro, edo jainko... Zerrenda luzatzeak exhaustibo itxura eman dezake, baina hasi baino ez da egin. Hobe bertan utzi, neure burua eliminatzeko sailera iritsi aurretik, baldin norbaitek jada sailkaturik ez banauka aurreko titulu horietariko batean.

Soluzioa ez zitekeen izan neska jaiotzea ere, nik biak batera izan nahi bainuen. Eta ez txandaka, aldi berean baizik. Eta ez bisexuala, sexu guztiz bereizietan baizik, gorputz beraren barruan eta kontzientzia beraren azpian. Ar-emeen sentipen eta kulminazio simultanoan, kopulazioa barne. Natura hondogabeak konbinazio ugariagoak eskain balitza, hartzeko prest nengoke. Eta zergatik ez ditu sortu, ba? Ez. Behin honezkero, ez dut itxaroten mirari adina basakeria sortzeko gai izan den naturak niregan horrelako saiakerarik egin nahiko duenik.

EZTERITZOMOL

Ohean eroso egokitzea lortu dudanean, psikiatriako kasu klinikoak irakurtzen hasi naiz. Jerga teknikoak eta botika-izen haluzinanteak: haloperidol, lormetazepam, jaunazuekim, levomepromacina, burutikerrena, risperidona, ezteritzomol, zuclopentisol, jotakelorrina... Zuzen kopiatzen ez zait gutxi kostatu. Onomatopeia lantzeko aproposak izanaz gainera, kasu kliniko laburrak dira. Ez dute kalte egiteko moduko ezer iradokitzen, izan ezik batek herrenka hasi eta burutik amaitu zuela, edo burutu ezinik zebilen senarragandik eskizofreniak libratu zuela, eta horrelako gaitz tipikoak. «Larruz jantzirik, ez beste deusik, ninduen amak sortu biluzik».

Bertso sorta bat mentalki kantatzeak laster dakarkit loa. Sarritan arrakastaz probatu dudana metodoa da, «biluzik, ama, zure azala ere

galdua dut kasik». Neure metodoa delako, seguruenik. Inorenak badirudi distraitu, barreiatu egiten nauela, «sastatu naute noiz-nonahi, pozoina sartu ere bai, baina niri zer, ni lasai». Nire metodoak, ostera, neuregan biltzen, laburbiltzen nau. Kontzentrazioa deritzona, zeinaren gorenara lo baita, «haitza golkoan ninteke joan urkabera ere pozik». Ondorio transzendentak beude han, heriotzako loan. Eta abar, «ez baitakit nik sentitzen minik, bihotzetik pasa ezik».

HILKUTXA GRAZIOSOAK

Hil baten alboan, egin beharrekoak eginda, maitale lokartuaren kontrari bezain lasai egon naiteke. Baita bi hilen erdian ere, mugitzen ez badira. Lo al zaude? Ni beldurtzen nauena deskonposizioa da. Horixe ezingo nuke jasan, ezta biziengan ere. Hilakuz graziosoak dira, bel-beltzak, txokolatzekoak, franbuesazkoak, banillazkoak. Barruan gizon alai bat daramate. Ño! Oraingoan apenas dagoen ondo, tabernan sartu gabe elizara zuzen joateko.

Etxe etsenplarretan, ardurak erdira banatzeko entenimendua izaten dute. Batzuek biziak zaintzen dituzte, besteek hilak, hain beharrezkoak eurok haientzat. Hau al da hilerrria? Turbo potens, goazen hemendik, denak banan-banan agurtzen ibili gabe. Premiarik daukaten ere ez baitakigu. Goiko bidetik ala behekotik? Ni, bizi nintzenean, beheko bidetik joaten ninduan. Andariek, izaturik, hilakuzari jaregin eta ihesari eman zioten.

GREGOR! NORA HOA?

Zigarroa piztera noala, zoruan, txapa kontratik, Samsa bati erreparatu diot, ertzari segika. Gregor! Nora hoa? Beste muturrean zerbait badagoela entzunik bezala doa. Joan gabe ez dago jakiterik. Txapa, beltza; bera ere, beltza. Laster azuleiu-tira batetik pasatu behar du. Hortxe deskubrituko dute. Hi martxan? Neu ere bai orduan. Saiatu nintzen Samsa soil bat zela pentsatzen, baina geroztik ezin dut Kafka sukaldetik atera.

URKIOLAN GORA

Nora ihes egin nezake? Urkiolara? Bihozkada dohatsu, atabiko, nerabe, intenporal, eutsiezin batek jo nau. Horixe ez al zen nire betiko irritsa? Urkiolan bizi, mundura neuk gura nuenean jaitsiz. Hasi naiz mendatea igotzen, eta bihurgune bakoitza tornu-bira bat da goiera handioserantz. Igo ahala, haitzak, egunsenti gorriaren kontra, inponentzia durdigarrian zabaltzen dira, bere igogailua neu naizen gotorleku inbulnerablerantz. Osteak argiaren jaikiera bainoago suaren iminentzia dirudi. Mundua haitzezko korola eskerga bat bihurtuz doa, ni, erle liluratua, Urkiola garailean, goragoko handitasunen

bilgune naizela. Ai, Urkiola, Urkiola! Gaur ere merezi zenuke behinolakoa: «Askok egiten deutso San Antoniori, egun batean joan da bestean etorri».

TALOA BEGIETAN

Ilargiari hitz egiten nion, eta haren gerizekin jolasten nintzen etxe aurreko parrapean, argiunetik argiunera saltari. Putzu garbi baten hondotik bekaizten ninduen talo perfektua apurtu gabe harrapatzeko, ura kontuz-kontuz husten hasi nintzen, entzuna bainuen nola azeriak otso goseari putzu guztia edanarazi zion, hondoan islatzen zen ilargi betea taloa zela esanik. Otsoa desengainuak eta ur-itoak luze eratzan zuenean, azeriak berak bakarrik jan zuen gatzatua, Malasko andreak sukaldeko leihoaren kanpoaldean freskatzen zeukana. Ezin sinetsiz azeria hain gaiztoa zela, eta gutxiago, otsoa hain ergela, ziur nengoen istorio hura neure putzu-zaletasuna mozteko asmatu zutela.

Ziotena edo ageri zena beti osteko zerbait hobearen estalkia zela tematurik nembilenez, neure kabuz egiaztatzea pentsatu nuen, isilpe osoan, ustearen ustelagatik inork burlarik egin ez ziezadan. Baina ez urez itotzen saiatur, baizik beti harexen irrikaz nembilen lapiko txiki gorri batekin hustuz. Ura agortzear, taloa desagertu zenean, gora begiratu nuen, «hemen zer gertatzen da?» galdez ilargiari, zeinak, belarritxoak mugitzen bezalako irribarrez –burlaz, duda gabe–, erantzun baitzuen:

- Taloa heure begietan zegok.
- Nik ahoan gura dut.
- Ahoan haginak zeudek!

Bere gorenetik apur bat alborago, ilargiari flekilo antzeko sudur punta edo alderantzizkoa agertu zitzaion, zioela:

- Begiak seguruagoak dituk. Horiek heure putzuak dituk. Hoa eta esaiok Malasko andreari gatzatua sartzeko arin barrura.

Ilargiarekin horrelaxe konpontzen nintzen, hura objektu poetikoa izan zitekeela susmatu baino askoz lehenagotik. Berba ere asko egiten nion. Berak ez hainbeste. Nahiko isila zen, baina ez zidan ardura, kolorean igartzen bainion zer esan nahi zuen.

FUSILAMENDUKO PENALTIA

Egoera batzuetan, arrazoa ridikulua da. Fusilamenduko horman zergatik dagoen ez dakienak, edo zergatik bai, baina zertarako ez, orduan, in extremis, egokitasun bat aurkitu du: tiratzaileak aitaren egin, penaltia jaurtitzeko bezala.

PUNTU BAT

Puntu bat banaiz, izan nadin bera. Animalien lurraldetasuna bekaiz dut. Espazioaren puntu bat izatea nahikoa dute pozik egoteko. Nik espazioa okupatu egin nahi dut. Ezin naiz konformatu espazioaren puntu bat izateaz. Puntu horretatik beste puntu bat dakusat beti, zeinera iristea lortzen badut, handik beste puntu bat ikusiko baitut. Dohatsu behar nuke neure puntuaz eta beronen inguruaz, hots, beronen zoruaz, aireaz, intsektuez, zuhaitzez, oztoparriez. Berdin etxekoez, auzokoez, herrikoez. Hauetako asko orain ez daude, baina puntuaren izatea ez da aldatu. Etxea hemen dago, etxe-aurrea hor dago, ereinotzak hor daude, zozoak hor dabilta, ura hor doa. Anboto ere han dago, horizontea markatuz, behin gardenago, behin ganduago, beti marra berdinean.

Etxetik atarira edo kalera pentsakor irten zara, eta bat-batean, eguzki argitsuarekin topo egin duzu, ortzi urdinean gora. Sentiarazi dizun bulkada biziari, golkoa beteko zirrara-kolpe horri, kontzientziaren sentipenak jarraitu badio –kontzientzia ere sentitu egiten baita–, giza esperientziarik esentzialena jo duzu. Gogoratu zara urarekin ere maiz gertatu zaizula berdin. Biek batera, eguzkiak eta urak, erdian hartu zaituztenean, esentzia hordimen bihurtu zaizu. Eta azpian lurra. Lurra edo zorua, lur, mendi, mortu, haitz, izotz, asfalto ere izan daitekeena. Hots, grabitateak hartatik ezin bereiztera eta bera hunkigarriro maitatzera destinatatu zaituen edozein elementu.

Esentzia hordigarri edo hordimen esentzial horri zoriona deitu nahi badiozu, auzi konfliktiboan sartuko zara. Baina hor zaude: puntu bat. Muga zaitez puntu horixe izatera, eta amaitu dira nahaste mental guztiak. Ez naiz ari zuri, neuri baizik. Nahitaez neuri, munduan ez baitago beste inor. Dena neurea dela esan dezaket, baina puntu bat bakarrik izaten darrait. Mundua hustu da, baina lehengo puntu berbera naiz. Puntu kontziente bat, hori bai. Puntu zoriontsu bat? Orain ez nago galdera zailtarako.

ARTEAREN KALBARIOA

Gizakideak desagerturik, tentsio guztiak desagertu direnean, puntu lasai bat izan behar nuke, adimen konbultso honengatik ez balitz, zeinak ez baitit uzten doan begiraten. Begirada beti desioari loturik doa, eta desioak espazioa atxiki nahi du. Baina espazioa atxikiezina denez, abiapuntua puskatzea besterik ez du lortzen. Oteiza haurra hondartzako zuloan aurkitu zenean, haren puntu-izaerak zulo huraxe gozatzeko agindu behar zion, baina zerua ikusi zuen. Espazio mugagabea desiatu zuen, eta hantxe hasi zen haren kalbarioa. Artistak paisaia bat, gorputz bat, ideia bat errepresentatzen du, eta hantxe egon nahi du, hantxe izan nahi du, huraxe izan nahi du. Hots, huraxe ezin izateaz amorratzen da. Arteak ezin du zoriontsu izan. Zorionak ez du arterik behar. Ez dut ukatuko zerurik badenik, sinesten dutenak ez

mintzeagatik, baina balitz, ziur han ez dela izango arterik. Hortik etor daiteke zeruak tristea izan behar duelako susmo zabaldua.

Demagun artistak (bebingoagatik sinetsi egingo diogu) lortu duela «huraxe» izatea. Nahikoa izan da sinets geniezaion, hark beste izan-nahi bat senti zezan. Adikzioa bezalakoa da: hartualdi baten eragina amaitu deneko, beste bat behar. Aurrekoak hurrengoa gartsuago desiatzeko baizik ez dio balio izan. Zertarako nahi zuen Arestik poemaginan jarraitu «Nire aitaren etxea»-ren ondoren, edo Oteizak Arantzazuko apostoluen ondoren, edo Häendelek Alleluiaren ondoren, Jainkoarena egin beharrean, zeina, bere lanak amaiturik, betiko erretiratu baitzen? Horiek denak eginda badaude, nik zertarako jarraitu nahi dut ezertan? Ez dago artistarik, artediktua ez denik. Hilko da pentsatuz –zortea, alde batetik– hasi besterik ez dela egin. Dena falta zaiola. Nahi nuke nire hilarrian irakur ledin: «Gizajoa! Ezin izan zuen jasan puntu bare bat izatea».

AMAMAREN ESNEA

Gure amamak kantinkada esnea egon ohi zen idulkia berak eskuz eginiko tapetez estaltzen zuen, zerraxodun barren eta guzti, etxez etxe pasatzen zen Karmengo Amaren beste idulki baten ondoan eta parean. Katuek ez harrapatzeko altuera baino zerbait gehiago zen hura. Ama Birjina etxean tokatzen ez zen egunetan ere, amamak idulki huts hartaraxe begira errezatuko zuen arrosarioa, gure katuak orduak egiten zituen moduan, behin txoria miragarriri ehizatu zuen langara begira. Amamari begira egoten nintzen, irudi santuari ala kantinkada esnari ote zion debozio handiagoa. Gastuagatik ez izatera, esnea bi kandelaz aldamentzea haren gogotik pasatua zela antzemana nuen. Behin, «zergaitik ez diozu esnari ere kandelatxo ipintzen?» nik tentaturik, erantzun zuen: «Jainkoak onetsiko luke, berarekin mantentzen gaitu eta».

Ez zen mantenu soila. Gure amamarentzat, esnea sendakinik behinena zen. Edozein gaitz zeukala, «ekarri esne beroa» hots egingo zuen ohetik, harekin dena egina zelakoan. Heriotza ohaburuan sumatu zuenean, esku arteko gurutzeaz gainera, haren ardura nagusia zen basokada esnea ez zedila mesanotxe gainean falta.

Gure etxean, esnearen benerazioa ez zegoen hain ritualizatua, baina zirraturik geratu nintzen behin aitak esan zuenaz, zerbaitetik etxean esnerik eza gertatu zenean. «Ez al duk txikitorik edan behar?» galdetu zion tabernandreak, eta berak erantzun: «gaur esnea eroan behar dinat». Esan balu bezala: «gaur Gure Jauna eroan behar dut». Tabernandreak ez zion gehiago ekin, arrazoiaren pisuaz jabeturik. Esneak gure bizimodu urrian izan zuen balioaz ez nintzen, beharbada, ohartu ere egingo, handik urteetara, apaiz nintzela, ostegun santuko elizkizunaren ondoren, urteko egun bakanetan bakarrik elizaratzen zen gizon batek esan ez balit:

- Sermoi polita egin duzu. Ogiarena ondo dago, baina ardoa barik esnea izan balitz, naturalago izango zen.
- Ardoarekin, misterioa alaiago izan zedin nahiko zuen –erantzun nuen, halako bihurgunea nondik hartu jakin gabe.
- Alai samar zeudelako egingo zuen, bai.

GIZA OILOAK

Oilo bat ezagutzea nahikoa omen, espezie guztia ezagutzeko, oilarra barne. Ondo dago geure espezie ustez norbanatuaz harrotzea, baina oiloena generikoa izatea egia balitz, ez genituzke hain ondo bereiziko Bush, Frida, Proust, Thatcher, Kristo, Marilyn, Aresti, Che de Guevara, Santo Tomas, Oteiza, Maradona, Madame Curie, Bixente, eta zu zeu. Ni utz aparte.

BARE LUBRIKANTEAK

Oinez ikasi berritan, bareak jaten ei nituen. Haiexek harrapatzen, antza, errazen. Ama harritua zen, nola neraman goiz guztia negarrik egin gabe. Beharko, ezpainak mukiz itsatsita gelditu baitziren. Halaxe jakin zuten bareak jaten nituela. Amak hori kontatu zidanean, jada kazkondua nintzen. Badaezpada, dudan jarraitu ez zezaten, barea jatea bekatua zela esaten nuen, baina molusku lubrikatzaile horri karinoa hartu nion. Gau batez, mortu-errepide batean, autoaren olio-txibatoa bat-batean sutzeraino gorritu zen, zero absolutua markatuz. Bare batzuk sartu nizekion eta gehiago ez zen kexatu.

Gero otu zitzaidan lubrikatzaile mekanikotzat balio zuena, beharbada, lubrikatzaile sentsualtzat ere dohaindun izan zitekeela. Etzaten zara biluzik baratze bateko freskuran, jartzen duzu barea sabel barrenean, ziletik bilora bitartean, eta gainerakoa berak egingo dizu. Bere abiaduran, noski. Hasierako sustoaren ondorioz, kostako zaio desbiltzea eta mugitzen hastea, baina gero, konfiantza hartzen duenean, begiak ixten badituzu, Venus ikusiko duzu.

Biloak zeharkatzerik gustatzen ez zaionez, kanaltxo bat irekitzen badiozu, glanderaino korrituko zaitu, bere igo-sen handia bide. Nonahi eta edozein jarrerratan lokartzeko gaixotasuna baduzu –baratzean tente, aitzurraren kontra atsedean hartuz, adibidez–, kirtenean gora, astiro baina seguru, sudurreraino eskalatuko zaitu, bitartean gautu eta egun berria argitu ez badu. Aho erdi-irekitik adurretan bazaude, eurt egingo du, goian bere ribalen bat dagoelakoan. Barea berriro zorura iritsi arte, ametsaldi mardula geratzen zaizu, bitartean azak hazi eta estali ez bazaituzte. Bizirik zaude?

BAREAREN EROSA

Izatez, barearen funtzio erotikoa aspaldikoa da, bestialismoa bekatu fisikoki ere mortala zenean. Barea inork ez baitzuen bestiatzat hartzen, disimulu osoan pasa zitekeen. Bestialismoa, gainera, ez zen bi sexu konbentzionalentzat abantaila berdinekoa. Gizonentzat, behia edo behorra guztiz asekinga izan daitekeen moduan, zenbait enperadorek majo probatu zuten, pentsa, alderantziz, zezena edo zaldia hartzea zer izan litekeen, dela emakume, dela gizon, dela nornahi. Eskerrak txakurtxo eta katutxo politak dauden, gehi nik ez dakidan beste hainbat maskota. Barea izan daiteke bat, eta baldin badaiteke, deskubritua izango dute, Kleopatrank, adibidez.

Hala ere, molusku perennalki fresko honen kasuan, inbentzioa guztiz fortuitotzat jo behar da. Hots, bere meritu eksklusibotzat. Pentsa noizko kontua den lehen gizakia, orbeltzan lo etzana, bareak iratzartzen zuenekoak. Oraindik ez zeukan garbi gizakia zen, eta bareak iztaialdea likintzen zion. Hauek guztiak jakin aurretik hartu nion aipatu karinoa, neure haurtzaroko esperientziatik. Eta bareari «Eskania» deitu nion. «Zertan habil, Eskania? Ezin al dun astirotxoago ibili?». Eskanio ere bai inoiz, bihurtze arraroren bategatik arra zela susmatzen nuenean. «Zer, Eskanio? Neuri eman guran?». Eta hona orain kamioien marka bat ere: Scania. Mundu guztira zabaldu zen nire historia.

KOLONIAK

Ez dakit zertarako behar izan nitzakeen, baina hain dira flasko bariatuak eta irribarkorrak, hain dira miniatura artistikoak ezen, arbuizatzen, neure arboreszentzia ameskorra tradituko bainuke. Egun bakan eta bistosoetarako bakarrik zegoen koloniatik (Gorpuzti, Pazko, Eguberri), amak janzteko baimena emana zidan anaia zaharragoaren jertse horian tanta batzuk zabalduko nituen (hau amaren ezjakinean), ez inor hurbilduko zen itxaropenean (apaizgaia nintzen), baizik lurrinak begiradak erakartzen zituelakoan. Berdin zen urtean behingo eskurtsioan zein hileta maizkorretan. Orduan jendea bi edo hiru bider hiltzen zen.

Hiletak ziren onenak, ofizianta ikusiegiez beste zerikusirik ez izanik, norbera hantxe ager baitzitekeen segizio buruan gurutze-eramale, anti-sits eta kolonia usainen nahastea hedatuz. Unerik gozatsuen bera, kontzienteena zelako beharbada, zeren gero, bertan, gertaera gainetik pasatuko baitzen beti, apaizgai baten obligaziozko desaxikimenduak itxurari eutsi behar ziolako. Eta itxurari errealtate asko eskapatzen zaizkio, zeren zer balio du begira diezazuten, zure suposizioen marra transpasatu ezin badute? Nahiz eta horrexek ere, posibilitate dohatsuari esker, gorpuz osoko dardara gozoak eragin aldizka.

Unerik gozatsuen, izatez, ispiluaren aurreko prestakuntza zen, luzeenean ere inoiz osatzen ez zena. Osatzea lorturik ere, lan amaituaren segurantzatik abiatu ezinik zabilta, berori baita unea, irteera desiatuaren poz kasik biolentoari eguneko poz guztien izate aurreratua gehitzen zaiona. Hain era trinkoan eta ohartuan ezen kasik berdin baitio gero errealitatea bera araberako nahiz huts gertatzea. Egiarik zekenenak ere ezingo du deuseztu hartaz hedatu zen ilusioa.

SUGEAREN ESTEAK

Atzera-salto izutu batetik bueltan, sugea segaz belartzan akabatu dut, ez kosta gabe. Esteak bistan dituela, sagar baten adarrean esekitzeko balentria lortua dut. Sugea eseki egin behar baita, lur energetikoaren kontaktuan piztu beharrean, haizearen bistan lehor dadin. Edo sairen batek urruntasun osasuntsurantz eroan dezan. Baldin aurretik bidaztiren batek, galtzen jaitsi beharrak sagarpera makurrarazi duenak, zutieran sugeari heldu ez badio, adarrean eseki ez zuen gerrikoa delakoan. Zailena zen heltzea egina denez gero, jantzi bera eta aurrera.

Hori guztia zenbait sentimenduren barkamenez, noski, zeren naturak, sugea pozoin-kolpeekin bezala, ni aldikada sadikoekin hornitu ninduenak, oraingoan haren zoritxarra erabaki baitu nire segaren bitartez. Irabazi dut, baina, okatu ezinik dihardudan tripen gainera ez jausteko, beste sagarrondo baten gerria besarkatu behar izan dut, distantzia batetik hautematen nauenak beste bizioren bat irudika badezake ere. Nire amaginarrebak ikusi ninduen, eta ez dakit zer edo zertzuk bururutzen zaizkion, baina kasua aipatzen den bakoitzean, barre mota guztiak egiten ditu.

KOLONIA USAINTSUAK

Esan nezake nire bizitza koloniarrekiko erlazioan ildotu dela, halako eran, non bere presentzian edo gabezian aurkitzen ahal baitira nire oroimena finkatu duten bizi-puskak. Koloniarrekin asoziatu daude egun handiak, nahiz eta agian ritualegiak, hala nola lehen jaunartzea. Edo Gorpuzti eguneko prozesioak, non lore-usain ambientalari haurrok etxetik generaman lurrina ez zitzaion gehiegi egokitzen. Edo eskolako urtean behingo txangoak, niretzat pozgarri baino kezkarriagoak. Amarik silbestreenei ere ez zitzaien ahaztuko ondo koloniatzea ilea eta prakak, hauek barruko aldetik. Edo beste egun ez hain zeremonial baina liluragarriak, hala nola senitarteko gonbidatu-egunak edo urteberri-eskeak. Edo, beste gabe, astegun soil bat, non oinez, trenaz, tranbiaz, edo, segun nora, denak konbinatuz, aitak edo amak erooten baikintuen senideak bisitatzea, Gorozika, Arratia, Bermeo, Gueñes, Mañaria, Mauma, Lutzana, Bilbo....

Edo oso geroago, apaiz garaiko konfesioetan, emakumeek albotik edo gizonak aurretik, kolonia mota guztien usainekin horditzen nindutenean. Gizon batzuekin zorabiatu ere bai, tabako merkeen, araberako ardoen, hortzore ugarien eta kolonia usainen nahaste gogor batekin golkoraino sartzen zirenean.

Haurtzarora itzuliz, eguna noiz argituko, itzarraldi amaiezinetik noizbait jaiki ondoren, arropatxo ez berriekin baina berrienekin, hor gaude atean prest-prest. «Ea! Noiz abiatu behar dugu?». Txakurra inguruan zurikeria guztiak eginez, berari ere joaten uztea lortu guran. «Ez, Bixkor! Hik etxea jagon behar duk». Amaren eskutik lurrin-igurtzi ondo neurtu haiek ilean eta praktetan hartzen genituenean, zoriona benetan ibiltzen hasten zen, oso luzerako guretzat orduan, garai guztietako haurrentzat bezala, seguruenik. Infinitua baitzen lotik lorako bidaia, zeinaren amaiari beste hainbesteko poza zen etxeratzeak jarraituko baitzion hutsik gabe. Has zaitezke etxea infernu txiki bat ez ote den kezkatzen, haur bati bertara itzultzeko poz handi bat nabari ez badiozu.

ERRAKUNTZA MINGARRIA

Apaiza nintzen garaitik, uste dut konfesioko erritua apropos pentsaturik zegoela, ea, enkubritu nahi zenetik aparte, homosexurantz subtilki deituz, emakumeei bakean uzten genien. Izatez, hauekiko tentazioa sadikoki hurbiltzen zizuten, hiru zentimetrora, gortinatxo batez forraturiko saretan burgoi baina zaugarri baten pentzudan. Norekin hizketan ari zinen ezin jakiteak aieruen zirimola biziagotzen zuen.

Oraingo e-mailetan bezalatsu, distantzia salbu. «Aupa, Amaia... Kaixo, Maddi... Besarkada bat» idatzi duzu, eta ez dakizu nori erantzun diozun. Batzuetan, «besarkada bat» ezabatu egin duzu, hurbilegi iruditu zaizulako. «Izan ondo». Hasierako «kaixo» edo «aupa» ere lagunkoiegi iruditu zaizkizu, nor den eta, batez ere, nolakoa den antzik ere ez daukazu bati ipintzeko. «Andere agurgarri hori». Eta andereñoa bada? «Andereño» ipiniko dugu, horrek halakoa ez dena ere loriatzen baitu. Baina hitz akademikoa ematen du. Azkenean ... Ba, horixe. Hainbeste aurrerapen, eta ez dakizu zer ipini.

Apaiz egin berri, lehenengoz konfesalekuan eseri nintzenean, aitortu zituen huskerien eta ahotsaren tankeratik, hirurogei bat urteko amamari zegozkion aholkuak eta penitentzia ematen saiatu nintzen. Amaieran, neska batek nire begien parean ahalik astiroen eta erakusguren gurutzatu zuen, sei-zazpi zentimetroko takoen gainean ipurmasailei garbosa eraginez, egin bide nion iraina aurpegira itzultzearen, dudarik gabe. Huraxe izango zen abagune bat non berriro ohartzen bainintzen nire baitan jende asko bizi zela. Bat lotsaz hiltzearen bitartean, besteek asko estimatu zuten detailea. Ikuskizuna, alegia. Lehen esperientzia izateko, nahiko erreakzio

konstruktiboa izan nuen, erabaki bainuen, aurrerantzean, arime
bakarrik hitz egingo niela. Adin gabeko gorputzei.

NEIRE

Apaiza nintzen, eta Neire zuen izena. Konfesalekua zitaleku intimo bihurturik, erromantze edeniko bat esku-eskura ikusi nuen, apur bat tiratuz gero. Depredazio espiritualaren marra izan zitekeen temeritate hura ez nuen, noski, egiaz burutu, ez hainbeste, kristauekiko begirune zintzoak eragozten zidalako, edo xoraldi hura isil eta lau igarotzeko zailtasunak lotsaizun larrira arrasta nintzakeelako, baizik gehiago gozaten dudalako osotasun pentsatuan biziz, puskatasun problematikoan menturatuz baino. Errealitatea behin bakarrik gertatzen da, eta berean, txarto sarritan. Pentsamenean, berriz, dena osorik eta seguru burutzen da, errealitaterik ezaren detaile hori sobera konpentsatzen delarik nahi adina eta noiznahiko errepikapenez, azkenean gertatua iruditzeraino. Zer axola du benetan gertatua ez izateak, gertatuzat senti badezaket? Zertarako nahi duzue Neirerekin katiga nendin, baldin handik dozena bat urtera, espetxetik bueltan, haren txera hunkituan bere lehengo apaizarekiko estimu otzanaz haragoko deribaziorik suposatzen ausartu ez nintzelako –adinen aldeagatik, hain zuzen–, gero ezkontzera iritsiko banintzen haren jaunartze-taldeko neskatila sei urte gazteago batekin? Errealitatea pentsaketarekin ordezteko arteak, sarritan, denborarekin, errealitatea bera ere ederragoa ekarri ohi du. Zorionaren alde hori badakit zer den. Beste aldeaz ez nago hain seguru.

GORRITASUN MAITEAGOAK

Urdaiazpi kasik esferiko haren liluramena ez zitzaion, beharbada, gutxien zor izango piper-hautsak ezarritako gorriskatasun sentsualari, zeina baita, harrezkero, nire gorriskatasun ideala. Beste kolore guztiak haren hurbil-urrunetik preziatzen ditut. Hala, etxe aurreko gorri hura, balkoia beteko piper-sorten ilara ikusgarritik barneratzen zena. Ez eseki berritako gorritasun berdexka hura, baizik geroagoko gorri-ilun trinkoa. Distiren azalkeria irentsi ondokoa. Hortik etor dakiket kolore dirdaitsuek larritzea edo harribitxiek hilaritatea sortzea.

Baldin esentzia espainolarekin asoziatzen ditudalako ez bada, «argi-jantzia» delakoagatik edo peinetengatik. Edo beste gabe, armen distiragatik, zeinaren arabera, espainol kontsekuentea Cervantesekin ez baita beragatik baino gutxiago harrotuko Lepantoko batailan gudukatu zelako. Halako eran non, hura ala Colon hautatzera behartuz gero, kosta egingo litzaioke kolonizatzailea baztertzea. Badakit espainol guztiak ez direla kontsekuenteak, baina sinbolo nazional baten hautaketan, Lepantoko beso-elbarria baliteke lotsagarri urrun gelditzea kolonizatzaile anbizioagandik. Nola dei dakioke

«aurkikuntza» Amerikara iristeari, gizakiak han milenioak bazeramatzan?

ANTZAK ETA ANTZEKOAK

Posibilismoa akatsa izan daiteke. Inposibilismoa, krimena. Azkenean, aukera bakarra geratu zait. Idaztea. Honek ezertarako balio ez badu, zer egin behar dut? Bai dela erraza irabazlearen apaltasuna! Ba, bai! Arrazista naiz. Beltzak nahiago ditut zuri gehienak baino. Ez nau arduratzen idazten dudana inori ez gustatzeak. Funtsean, atseginen dudana da erabat bakarra izan nadin. Beharbada, arrakasta izan banu, ez nintzatekeen honen harroa izango. Gauza bat dago ni baino indartsuagoa. Premia. Horretara makurtzeak ez nau lotsatzen, aurretik bere zenbait konkrezio ukatua banaiz ere.

Prousten argazkiak nire lehengusu baten antza dauka. Lehengusuak nire antza dauka. Hirugarren baten antzekoak diren bik elkarren antzeko izan behar dute. Beraz, Proustek nire antza dauka. Atsegin inefable bat: intxaurrak txikitu, Stravinsky entzunez. Stravinsky alda nezake Griegez, Usandizagaz, Berliozez, Verdiz, Guridiz, Smetanaz, Bernaolaz ... Alda bezate musikaria, baina intxaurrik ez niri ken. Jenioaren formatu osoa daukat. Ahala bakarrik falta nuen, eta orain horixe ere alferrik dut.

GURE AMAREN KARTA-JOKOA

Gure amak, laurogeita hamahiru urterekin argitasun osoan hil zen arte, laugarren adin guztia bere buruarekin karta-jokoan entretenitu zuen, egunkaria osorik irakurtzetik (irakurri edo) geratzen zitzaion denboraren osagarri. Harriturik genekusan nola ez zen harentzat denbora-pasa egoki bat bakarrik, adin horretako bakartasunean beste edozein izan zitekeen bezala. Behin baino gehiagotan ihes egingo zion esneak edo erreko zitzaion lapikoa bere kartengana joan-etorrian, joanean gehiago etorrian baino, norbait gainean egon ezik. Harentzat, kartak ez ziren gauzak, izaki berba-lagunak baizik. Egun argia ahitu arte ekingo zion, baldin, argindarrik ez gastatzearen, egunkariari heltzen ez bazion. Bai. Ilunabarrean, egunkaria. «Baina andre honek zer ikusten du ilunetan?», pentsatzen genuen. Tentatu ere bai inoiz, «zer dio hor?» disimuluan galdetuz, eta harrigarria, paperean zetorrena zuzen esango zizun. Laurogeita hamahiru urterekin, egunkaria betaurreko barik eta ilunetan irakurtzen zuen.

- Zuen amak ba al zekik, ba, irakurtzen?
- Hori duk miraria areagotzen duena!

Karta-joko ultramundanoan ziharduela esango nukeen, ezpainak ahotsera itzuli guran zebilen harainditar batek eraginda mugituz eta erpuru- eta erakusle-mamiak aldizka beheko ezpain hezean bizkor

pasatuz, gordezulotik eskapaturiko «aitaren» keinuak iduri. Kartak eman, kartak batu, pilatu, zabaldu, irauli, haztatu. Azkenean, bi multzotan edo mahaian zabal agertuko ziren, jokoaren amaia erabakia ez balu bezala. Bazen logikaren bat, zeinaren misterioa, inoiz albotik begira, ez haren oso gustura, ezin izan bainuen argitzerik lortu.

- Zer joko mota da hori?
- Ez al duk ikusten?
- Ikusi bai, baina ezin diot antzik hartu.
- Hartuko diok, astiarekin.

Pertsona zahar batengan, bere buruarekin dibertitzeko argitasuna eta lehia bizi-dohainak dirateke, noski, baina batzuetan ezin nuen, neure burua arabera imajinatuz, pentsatzeko abailmenik ekidin: «Horra gure etorkizun garaileena». Aspaldiko lagun brabo bat Errukietzeko ate alboan eserita aurkitu zuen herkide batek. «Buru makur samar daukak, lagunzaharra!» esan zion gupidaz, eta hark erantzun: «Horixe zeukaat, ba, goren!». Nik amari galdetzen nion:

- Zelan da joko hori?–. Banekien alferrik izango zena, erantzuna jakina baitzen:
- Begira ez al hago?
- Baina piloak zeren arabera egiten dituzu?
- Ikusita ateratzeko gauza ez bahaiz, esplikaturik ez duk ulertuko.

Gure amarentzat, ebidentzia ikusmenetik zetorren, ikusten ez zena fedea baitzen. Fedea edo ulertzen saiatzetik eximitzen zintuena. Bitartean, hots, ikusten denetik ikusten ez denera, «burutazioak» zeuden, pentsamenaren zilipurdiak esango genukeena. Ekiten banion, ernegatuko zen, agiraka hasi arte: «Aldeik hortik, nahastu egiten nauk eta!». Kontua zen ez zela azalpenik eman behar, zuzenean behintzat. Bakoitzak berak joan behar zuen bizitzako gakoak aurkitzen eta behar ziren argitasunak harrapatzen.

Gure ama halako kulturatik zetorren, non galderei erantzun zeharria baitzegokien beti, ez era moztailean ere, galdetzaileari beste galdera bat egiten uzteko moduan baizik. Bazirudien jakintzak imitazioz korritu behar zuela, edo obserbazioz, gehienik. Malezia zilegi zen, ezkutua zeno. Susmoa daukat, gure amarengan, joera hori instintiboago zela kontzientea baino, halako eran non, gero, ikaskuntzari irakaskuntzak prezeditu behar ziola edo hala izatearen komenentzia entzuten hasi zenean, haren senak bere nagusitasun atabikoa gehiago gotortu baitzuen. Irakaspena onartuko zuen, gehienez ere, haitzak oroldioa edo lingirda hartzen duen bezala.

Horrela, norbait halako balizko jakintza batera iritsi ez bazen, esan behar zen ez zitzaioala interesatu. Edo haren arreta beste zer batzuetan pausatu zela, jakinik edonork daukala trebetasun bat baino gehiago non bera espezialista baita. Edo ez zuela zenbaitek adinako zortzerik izan. Edo ez zela sasoiari gehiegi ahalegindu. Edo, beste gabe, alfer

samarra izan zela. Hori argibide konbintzentea zen beti. Edo, zergatik ez, alfer hutsa. Zeren, ondo esplikatuz diozuna ulertzeko gauza ez bada, nola irentsi behar duzu ume «mugatua» daukazula?

Azkenean, bere karta-joko bakartiaren sekreturik agertu gabe joan zen. Nik uste dut kartak zabaltzen hasten zela ezkerretik eskuinera, eta karta bat bi palo berdinen artean, edo, nahiz eta palo ezberdinak izan, bi zenbaki berdinen artean tokatzen bazen, karta biak (ala hirurak?) ezkerrean pilatzen zituela, ea, azkenean, denak pilo bakarrean biltzea lortzen zuen, edo... Uste dut ez dudala ulertzen zer esplikatzen ari naizen. Amari inoiz esan nion:

- Zu zeure buruari tranpak egiten ari zara.
- Nire buruan zer dabilen inork ezin dik jakin.

Oraingoan burua jaso zuen, irribarre arin batekin.

Umetan, neu ere karta-jokora itsua bainintzen, amak bakar-jokora zaletu nahi ninduen, bera nire kalakatik libratzearen, duda gabe. Bakar-jokora animatzen niduen, esanez hura exigenteago zela, hartarako edozein talentuk ez zuela balio eta abar. Aldian-aldian meritu berriak niregan aurkituz, ea bakean uzten nion, edo disimuluan lagunduz, behin esan zidan:

- Zergatik dauzkak kartak ahozpez?
- Zelan edukiko ditut, ba?
- Pilo biak heuk ikustekotan, ahoz gora errazago moldatuko haiz.
- Kartak bistan? Zoratu al zara?

Nire umetasun harrotua iraindurik sentitu zen, baina ez zen hain zentzugabea bistan edukitzea ere. Ezkerrean hiru karta, eskuinean beste hiru. Nahiz eta, txandan-txandan, eskuko bi piloak neuk ikusi, ez zen hain erraza beti ahozpez uzten joan behar ziren baza eginen kontua zehatz eroatea. Oraintxe ere, esku-aldatze bizkorretan, ez ahanzte kostatzen bazait, pentsa zazpi-zortzi urterekin. Proba dezagun. Eman kartak, hiruak bi multzotan, ahozpez. Ezkerra hasten bada, lehen bazan behintzat, eskuin multzoan zer dagoen ez dakit. Hautatu botatzeko karta bat ezkerrekin, utz beste biak ahozpez, ikus eskuinarekin beste hirurak, erantzun kartarik egokienez, erretira baza dagokion eskura, har esku bakoitzak beste karta bana erdiko multzo nagusitik, bota aurreko baza egin duen eskuak, erantzun besteak, hartu, bota, erantzun, baza hona, baza horra, alda eskua... jarraitzen duzu, ezta? Ba, ni baino argiagoa zara.

Beharbada, gure amaren karta-joko bakartira itzuliz, zintzotasunaren ariketa etengabe huraxe zen jokoaren zailena, multzo bateko eta beste karten aurretiko ezagutzak ia ezinezko bihurtzen baitzuen ondorengo erabakiaren garbitasuna. Nire kasuan, pentsamenarekiko dema hark, zazpi-zortzi urterekin ohartzen ez banintzen ere, ez zuen gutxi balio izango geroago, seminarioko adin

oraindik samurrean, hamabost bat urterekin, ohartu nintzenez nire pentsamenduak nahi bezain libre eta ezkutu ibil zitezkeela nire buruan, gure amaren karta-jokoan bezala. Ez baitzuen esan «nire buruan zer dabilen inork ez zekik», baizik «nire buruan zer dabilen inork ezin dik jakin». Alegia, hartara makurtu nahi gintuzten domeinu mentala eta morala saihegarri zela. «Nire kontzientzia ezin da inor ibili, Jainkoa salbu». Baina ni Jainkoarekin ondo konpontzen nintzen. Hain ondo ezen gero, existentzia bera kuestionatu nionean, ez baitzen batere kexatu.

Askapen moral hark uste gabeko dibertsioa bat ere ekarriko zuen, zeren, pentsakizunei euren kabuz korritzen uzteak, hots, mozteko edo gidatzeko alferrik ahalegindu behar ez izateak, seminarioko errealitate gordin hartatiko ebasio dohatsuak ekarri baitzituen. Ama Birjinari musu emateko pentsakizuna datorrela? Eman lasai, hura ez baita izango «ken hakit hortik, zerri hori!» jaukitzeko bezain zakarra. Lisieux-ko Done Teresatxo ohe alboan eseri zaizula? Utzi egoten laztanari, baita zeurekin oheratzen ere, nahi badu, bidaltzen saiatuz gero, gehiago tematuko baita gelditzen. Hori guztia pentsamenduaren zelaian nahieran eta inpuneki gertatzea aurkikuntza zoragarria izan zen.

GALTZEAREN ETXE-LOTSA

Apaizgaia nintzela, udako oporretan, anaia-arrebak euren jolas edo erromerietara joaten zirenean, nire ilusioa, arratsalde erdiko arrosario obligatutik bueltan, auzoko senar-emazte haiexek etortzea izaten zen. Etxe aurreko berriketaldiaren ondoren, non munduko joan-etorriaz jabetzen buru-belarri saiatzen bainintzen, kartaldi luze baten ikusle, inoiz jardule, izango nintzen. Pena bakarra zen, apalmenetik ez urrun, gehienetan neure aita-amek galtzen zutela. Diru pilotxoa, gainera, orduan jokatzeko zenerako.

«Zuei tranpak egiten dizkizute horiek!», amorratuko nintzen gero, susmoa bainuen auzotar haiek, arauzko keinuez gainera, zenbait klabe-hitz edo azpi-keinu erabiltzen zutela bitarteko solas arinean, bakoitzak eskuan zer karta zeukan besteak aldiro jakiteko. Bakoitzak baino areago emazteak, kartetan zein edozertan ostarrea baino argiagoa izanik, sugea engainatzeko bezain mihi trebea zeukanak. Haren etorrera, haren sinpatia, haren solas etengabe nobedosoia nire igandeen sedukzio itxarona izaten zen, beste aukera batzuen faltan. Baina irabazi egiten zuten, ia beti. Mintzen nintzen, ez hainbeste zeramaten diruagatik, gurasoak beti galtzaile ikustearen lotsaz baizik, minus samarrak balira bezala.

JAINKOAREKIN IHESI

Ba, ez! Jainko bakarra eta hirukoitza. Ez bi, ez lau, ez hamaika. Hiru pertsona behar ziren justuki, bat berean, hirutan bat, batean hiru. Bat-batera pentsatu beharrekoak, metafisikoki halakoxea zela kontsokratu baitzen. Izatez, semearen odolak ogian ere egon behar zuen, eskaintzen zizuten «Kristoren gorputza» odolgabea ez bazen. Baina odola, propietatez, ardoa zela kontzibitu behar zen, eta hori ere metafisikoki ezinezkoa izanik, adimenaren ezereza onartu behar zen, bere hondakin lotsatuen gainean, Jainkoaren handitasuna nabariago ager zedin. «Jainkoak ezin du horren aldrebesa izan –pentsatzen hasi nintzen–. Misterio biolento hauetan, bitarteko satanikoren batzuek ibili behar izan dute».

Orduan, astiro-astiro, Jainkoarekin zuzenean ulertzea probatzen duzu. Eta nola Jainkoa ez den, izan ere, horren aldrebesa, konfiantza hartzen zoaz, beldurra galtzen diozu, urruntzen hasten zatzaizkio. Eta espetxeko atea zabalik ikustean, ate bat gaintitu, beste bat, kontrolekoa, galeriakoa, kanpokoa, barrutikoa, errepidea gurutzatu, ibaia, mendia, lautada, mundua... eta, atzetik inor ez datorrela sinestean, ihesa amaitutzat ematen duzu (orain itzar zaitezke) eta eurt egin duzu. Hala, Jainkoak, dela gu bere, dela bera gure antzera eginak izan, gutxienez guk adinako zentzua nahitaez izan behar duela suposatzen baituzu, hots egiten duzu: «Deus meus altissimus! Mundualdi koxkor eta bera ere aparentea den honetan, hain buruhauste handietan ibiltzeko denpora laburregia eman diguzunez gero, ez al da hobe izango betiraunean elkar ikus dezagun, astiz eta argitasun handiagoz?». Eta Jainkoa, izan ere, gu baino askoz zentzudunagoa denez gero, bateko errearen irribarre distiratsua ikusten duzu ilunabarreko horizonte mesetarioan, ihes egin berri zaren espetxe pentagonalaren gainean.

VITORIAKO LAPIKOTXA

Nire umetako esperimantu zientifikoetako bat izaten zen, gau zarratuan, amama Pagadikoren etxetik hasi eta Gorozika, Ibarruri, Mendata eta bistan zeuden herri eta auzoetako argitxo guztien parera, banan-banan, ipurtargi bat jaso eta honen eta haien intentsitateak konparatzea. Beharbada, neure ahurrean zegoelako, xume bezain fresko, ipurtargiak irabazten zuen beti. Hala ere, inoiz ez nuen pentsatu ipurtargiak gaua apurtzen zuenik. Bilbo alderantz bakarrik ageri zen, niretzat lekutako mendiak zirenen gainetik, zeru zati gorriska bat, Barakaldoko Labe Garaiena ei zena. Bost urtera arte, eguzki sartua hantxe urrun barik lokartzearen argitasuna zela uste nuen. Goizean beste aldetik zetorrela ikusi arren, mendebaldeko argitasun hura zertan amaitu zen ez nuen pentsatzen.

Egia esan, ez nuen pentsatzen ezer, eguzkiaren inexistentzia hori guztia, gehienbat, nire loaldian gertatzen baitzen. Ez zen, noski, inoiz

gau berdina, ilargi, estaldura, heze, gandu, garden eta hainbat fenomenoren gorabeheran, baina hura guztia gaua zen, neure gaua, argiaren arriskuetatik babesle, gau-txoriekin kidetzen ninduena, saguzarrekin jolasten nuena, eta behin edo behin, lagun min orok bezala (izan ote dut gaua bezain lagun minik?), susto bat edo beste ematen zidana. Neuk ere berari, inoiz, kalabaza argidunezko garezurrekin, estarta bazterrak bortxatzen nizkion, nahiz eta gero, kalabazak eta kandelak alferrik galtzeagatik, «Vitoriako lapikotxa» ikusteko zigorra izango zen, belarrietatik zintzilik. «Ikusten Vitoriako lapikotxa?». Ikusi arte, zintzilik. Laster ikusten zen, bai!

GAU HUTSA

Hona orain, bat-batean, berriro, gau hutsa dudala lagun. Denak joanak direnean, hilak itzuli direla dirudi. Esaera da hauek ez dutela ogirik jaten. Esan nahi baita hilek ez dutela inor estutzen. Suabe-suabe hitz egiten dute, preso taldeak ihes-planari buruz bezala. Betiko irudi ebidenteak saihestearren, hala nola, adibidez, urjauzi baten ondoren, harribilezko ubide azal baten gainean doan murmurra; edo apaizak Ostiral Santuko zeremonian, gurutze santua desbelatzean, Jesukristo untxia bezala buruz behera agertzeak sortu zuen barbaro tentsoa. Hilen barbaroa ulertu egiten da. Zeure gogoko gauzak esaten dituzte; gogorik ez baduzu, isildu egiten dira. Hilekiko elkar-bizitza erraza eta atsegina da. Eurenganaino iristea da kostatzen dena, inork eraman behar baitzaitu. Tabernan sartu gabe. Dendan pickupasa batzuk zorrean utzi gabe. Bakarrik zaudenean, hilak lagun onak dira. Bakarrik egon nahi duzunean, hilek ere traba egiten dute. Gaua. Batzuetan, gau beldurgarria. Gaur, gau lagun mina egokitu zait.

OSOA ETA GOZOA

Bakardade osoa eta gozoa orduan datorkizu noiz, zenbait handitasun kolektibotatik desatxiki ondoren (garapenez edo dezepzioz), banako gizatasun soilaren aurrez geratzen baitzara, zeure itzalaren pentzudan. Badakizu itzala ez dela zu gabe ezer, baina bakardadearen erreferentzia leial bat damaizu, samurra, bariatua. Ez da, zeuk diru mordoa ipini eta gero, hainbesteko lapurretaren susmoz epaitu zintuztenean bezala, non atera baitzenuen gizakia animalia arrazionalki harraparia dela. Definizio berria asmatzeak ez zizun ezer konpondu. Beti zorretan hilko zara.

AMADEUS

Mozart entzutea artrosiarentzat ona ei da. Gorputzak endorfinak askatzean, ongizate sentrazioa dator, eta horrek artrosia leuntzen. Zertarako behar nuen, Wolfgang, zu maitatzeko beste motibo bat? Hutsunean ezer ez, beteunean tokirik ez. Kontrastea ez duzu ulertu, zurea ez baitzen filosofia. Ulertu nahi al duzu? Hara! Imajina nazazu zerura begira, begira, begira. Emazu dena ulertu dudala. Unibertso guztia. Eta? Nire arazoa ez da ez ulertzea, hil beharra baizik. Hori bai. Zorte handia dut, nagoen tokian nagoela, unibertsoaren zentroa izatea. Zu, Amadeus ... Izen horrek apur bat ikaratu egiten nau. Zu, Amadeus, gazteegi joan zinen horrelako pentsaketei ekiteko. Lasai! Ez zaitut alferrik piztuko. Hamaika galdera handi baino nahiago dut erantzun txiki bat. Galdera handiek galdera errepikatzeko bakarrik balio dute.

ZUHAITZEN BESARKADA

Udako oporretan, ilunabarrean, pinadietan zehar joan eta joan, etorri eta etorri. Nola esplikatu behar dut, zertarako, ibilaldi haiek guztiak egiten nituela, aldizka begiak itxi eta ilargiak xarmaturiko bide eta pinadi haiek imajinatzen seminarioan egindako ahalegin antsiosak berritzeko, eta ondoren, begiak ireki eta, bat-batean, dena hantxe egotearen zoramena sentitzeko? Pinu artean furtiboki, baina errespetu zaharren batek baimendurik hazten ziren haritz bakanetako bati gerritik heldurik, berriro begiak itxi eta seminario atzeko pinadian kokatzen nintzen, zuhaitz errukior haien ukituan eta usainean, etxe inguruko zuhaitzen besarkada banan-banan sentituz. Haritza diot, baina, barren-barrenean, pinua nahiago nukeen, zaskaratsua ez balitz. Badakit pinua, gure intsinisa, zikin samarra eta zaskarra dela, adar iharrez ugaria, baita ustelez ere, sarritan deformeaa, gutxitan lerdena. Baina nire bideak harexen sustrai ageriz zeharkaturik zeuden, eta nire pentsaketak erretxina usainean azeleratzen ziren.

Edertasunari, seguruenik, afektuak prezeditzen dio. Zer guztiz berriek, inoiz ikusi gabeek, txunditzen gaituztelakoa edertasun objektiboaren frogatzat hartu aurretik, aztertu beharko genuke ez ote den hori izango azpian dagoen analogia edo kontraste afektiboren bategatik. Nor da gauza, ordea, bere sentimenduak objektiboki sailkatzeko? Badirudi pinua ederresteko baimen eske, edo ederretsi izana justifikatu guran nabilela, baina kode estetikoek ere argitasunetik baino ohituratik gehiago daukatela aspaldi susmatua dudanez gero, orain ez naiz hasiko barkamen eske.

Hala, neure opor-ibilaldietan, lortzen nuenean gogoan seminarioan bene-benetan kokatzea, hain tristura urrun eta ia itxaropen gabean abandonaturik, zer ez zen izango, begien irekitze soil batez, neure betidaniko pinuarekin, bihurguneekin, erromarekin, ilargiarekin bat eginda aurkitzea, hau ere bene-benetan eta berbertan? Bueltan, etxeko

sukaldeko mahaian, berriz ere ilunetan, ariketa berberari ekingo nion, seminarioko mahaietara ahalik joan-etorri fisikoenak egiten saiatuz, eta lortuz, ez baitago toki batean gogo osoa ezartzerik, gorputzak bertaraino lagundu gabe. Aldi berean etxean eta seminarioan, baina nahi nuenean, etxean bakarrik gelditzeko moduan. Beharbada, ez dut jakingo sentimenduen ezaugarriak azaltzen, baina bai haien indarra sentitzen. Hori da balio didana.

NIRE GANBARAKO MUSEOA

Lehen solairuan, logelak banatzen dituen salako atean eskua dudala, ganbararaino jarraitzeko bulkoari ezin izan diot eutsi. Bitarteko beste eskailburu bat, eta hurrengoan, etxearen goren solairua. Ganbara. Ateak kirrinkada herratsua egin du: «Ezin al nauk baketan utzi, neure goiera ahaztuan? – Ez, ba! – darantzut–. Heu haiz nire museora sarbidea». Iluntasun jada sobera ekanduak, teilatu txit zabal eta ez hain erriparean ertz eta bitarteetan, argi zantzu ahul-ahulak iradokitzen ditu, ganduak bezalakoak, galduta baleude bezala, dena neure begien irradiazioa ez bada. Habe, zutabe eta zehar-habezko konposizio inponentea.

Urteko egun handi txit bakanetan, logeletan kabitzeko baino ahaide eta bestaliar gehiago pilatzen zirenean, ospakizunen berezko poz leherkorrari txikiok ganbaran lo egitea gehitzen zitzaion, hainbestean non ez bainekien egunaren ala gauaren zainago egon behar nuen. Zorion gehiegizkoaren dilemak. Egin beharreko zalapartak eta berriketak amaitutakoan, gehienean behetik zetozen agindu geroz zorrotzagoen ondorioz, banekien egunaren exzitazioak eta biharamunaren espektazioak ez zidatela lo egiten utziko. «Zorionez!», pentsatuko nuen, bestela, gaua instante oharkabe bat izango baitzen. Nik gaua itzarririk egin nahi nuen, habe, zutabe eta zehar-habeek osatzen zituzten figurak eta simetriak kontatuz, konparatuz, berriak irudikatuz, gogoia egun berezi haietako bizipenetan finka zedin.

Oso geroago izango zen, nostalgia luzeen eta gorabehera handien ondoren, zureria haren konfigurazioari benetako museoaren eitea esleituko niona, etxea oinarririk gorantz eraiki behar izatearen zentzu guztia erakusketa hartaraxe iristea bailitzan. Gaineko teilatuak ere, funtzionalki alderantziz ei den arren, museo huraxe osotzeaz beste xederik ez baileukan. Izan ere, goitik begiraturik, teilatua bezalako inklinazio bikoitz baten sinpletasunak ez du ematen azpian hainbesteko edertasunik eduki lezakeenik.

ILBETEA ETA NI

Saguari iheska hasi zen ikono-taldea bezala. Pantailaren goi ezkerreko angeluan denak kontuz-kontuz pilatzen nituen, elkar gainka. Bat-batean, baten barren-ertza ukitzea nahikoa izan zen, denak

dziztadan barreia zitezen, kilikili-eztandak jota. «Hauxe virus alegrea!». Katuari deitu nion, eta hari ere zelebren iruditu. «Barrabana! Horretarako ematen al dinat esne epela eta orrazten buztana?». Txakurrari deitzeak ez zuen ezer konpondu. Hizketan ikas lezake, baina ez putz egiten. Atartera irten naiz eta ilargi bete-betea, hori-argia, aurrez aurre dator, ortzi urdinean, hutsean gora. Hutsunea urdina da, ez beltza. Ilargiak forma infinituak har ditzake, baina ez guztiak. Nola daiteke hori? Edo ilargi erdi-zirkular batek nola zabal dezake aura biribila? Horizontea, azpialde lanbroz, ortziaren ebatura baino batura da. Ilbetea eta ni, bakar-bakarrik, beste haustura gabe. Nola laburtzen diren distantziak, ilargi sartuna, hori-hori gau hezean, fundizioko tximini luzearen goi-kopan kokatu zaizunean, izozki kolosal bat bezala! Edertasuna sinpletasun absolutua da. Erretiratu egin behar dut. Honenbesteko kargari ezin zaio eutsi.

EZ DAKIZU

Eztei-eguna iritsia da, eta ez dakizu pozik ala triste zauden. Lanaren domina eman dizute, eta ez dakizu arrakasta ala porrota den. Gero, ea arrakastatik ala porrotetik gehiago ikasten den galdetu dizutenean, ez dakizula ez esatearren, erantzun duzu ikasketak antzina amaitu zenituela. Praketara kaka egin duzu, eta ez dakizu arin ala astiro joan behar duzun. In fragranti harrapatu zaituzte, eta ez dakizu zorionak eman ala beste aukera bat eskatu behar diezun. Fusilamenduko horman tiratu dizute, eta ez dakizu amaitu den ala graziazko tiroari itxaron behar diozun.

TOLOUSE-LAUTRECEN HANKAK

Bilboko kale-zuloak nondik zer irtengo pasatzen nituen haurtzaroko geltoki-aldaketak artearen introdukzio efikaza izan ziren. Beldurrak bazterrei misterio handia eransten die. Kasualitatea norbere irudipenean bakarrik gertatzen da, eta determinismoa tautologia baizik ez da. Orduan nola esplikatzen da nire bizitzaren ibilbidea, baldin ziur banago nire nahimena ezer garantiaz gidatzeko baino makalago dela? Jakitea interesatzen? Ez dut uste. Idazten denak idazlearentzat izan behar du, zeren, irakurlearen onerako izatekotan, hobe litzateke liburuen %99a eliminatzea. «Hi ere ez haiz Tolouse-Lautrec-en hanka motzak baino jenialago» esan niolako, bat haserretu egin zen, iraindurik. «Estimatuko nuke haren hanka motz bakar baten jenialtasuna» erantsi nuenean, dudan gelditu zen.

%99a benignoegia izan dela uste dut. Antzinerara jotzeak ere ez du askorik konpontzen, mitologia ez baita giza miseriaren ederkuntza besterik. Sustoak hartzeko, ez dago avernora jausi beharrik. Nahikoa duzu argia delakoan txirrinari ematea, krrrrnn!, zure eskuak atzera egin dezan, moztu balute bezala. Konparazioa baliozkoa izateko, suposatuta behar da ez dizutela osorik moztu. Gizateriak erremedio zaila

dauka, arrazionala izanez bakarrik izan baitaiteke irrazionala. Bestetik, ez duzu halako adeirik ere nahi non azalpen guztiak ematen zaizkizun, ardura ez dizun gai batean.

AGONIEI SARTZEN UTZI

Ez dakit mundutik ere joanak izango diren, baina ingurutik bai. Denak joan ziren, niri agurrik ere esan gabe. Bakarrik nago, neure askatasunean eta bizidun irrazional guztien artean. Mundutik ere joanak badira, badakit etxe-animaliak hiltzen ariko direla dagoeneko, neure eremutxo hustuaz handiko immensitatean. Pentsa nezake usteltzen eta kirastean ere hasiak direla, eta pentsaketan-pentsaketan, gai nintzateke usain-sentsazioa ere abiarazteko, nahiz eta jakin kirats hura ezin dela fisikoki honaino iritsi. Baldin, ordea, leihoak itxirik eta belarriak tapozturik, distantziaz ezinezko ez diren hil-orroak entzuten badarrait, nola erabaki dezaket egiazkoak ala irudikatuak diren?

Hara! Badakizue zer egingo dudan? Leihoak berriro zabal-zabal jarri eta agoniei sartzen utzi euren bariedade guztian. Gerran, berbertako sarraskietatik biziraun zutenen ume batek honenbesteri eusteko gai izan behar luke, freskura maitalea ohe bigunera datorkion bitartean. Luzeenean ere, egun batzuk barru, amaitua izango da tragedia mundiala. «Ni hiltzen naizen gauean eizue lo lasai». Iritsi da unea.

ARGIA EZ DA PIZTU

Jaiki eta ezertan hasi aurretik, oinutsik eta galtzontzilo hutsean, argiari eman diot. Ez da piztu. Lababoko kaxoian, andrearen nolotil kaxatxo ireki dut. Ez da alerik falta. Umearen hortzore- eta eskuila-edontziari eragin diot. Ez dirudi erabilia izan denik. Besoak leihoan kokaturik, auzorantz begira nago, itzuleraren seinale izpiren bat nondik hautemango. Ez dago inor. Katastrofe baten gainera jaiki den sonanbuluak huskeriak haztatzen dituen moduan, ea mirari katastrofiko batek errealitate hau iratzartzen duen.

Nire adiskide desiatu baten egoeran aurkitzen ote naiz? Suak edo urak desolatu duen hirian zehar badoa, eta ispilutxo biribil bat aurkitzen du, ezpainak pintatzeko horietakoa. Aurpegira hurreratu du eta, ikaraturik, bertan jaregin dio, alde handitzailean katastrofearen tamainako muturra agertu zaionean. Hondamen oraindik berriegitik zekarren izurako predisposizioa apur bat lasaitzean, ispilutxo berriro jaso du, eta alde ez handitzailean aurpegi lagungura bat aurkitu du, gertaeraren magnitudeak, baldin bueltaezina bada, behintzat bere baitan bihozberaki onar dezan. Gudu-zelai suntsitura itzuli den bizirauleak, ulertezinki, panpina gorri-ilun bat aurkitu du, eta kasik iruditu zaio gerra galtzeak merezi izan zuela.

Analogia zirrargarri horretatik itzuliz, neure etxe-barru erdi suntsituan, aurkikuntza txiki batek jabeaz nau izakirik maiteenaren galeraz. Sukaldeko armairuan, trepetxu guztiek kabitu ezinik darraiten kaxoian, gutun baten pasartea dirudien paper-txatala irakurri dut: «Itzultzen ez bazara, hil arte maiteko zaitut». Ba, horrek izorratzen nau apur bat.

EDERTASUN FETALA

Molekulen, bakterien, virusen mundu ñimiñoa handiturik ikustean, itsas hondoa iruditzen zait: marmokak, itsas izarrak, algak... Itsas hondoa, berriz, unibertso minimizatua iruditzen zait. «Dena daukagu bertan, ordea!». Geroz gehiago begiratzen diot naturari, ordu erdiko bizia daukadala iragarri balidate bezala. Natura deskribatzeak hainbeste hunkitzen banau, zergatik ez bera zuzenean gozatu? Badakit. Kontatzea emozioaren formarik emankorrenetakoa ei da. Baina zergatik da oroimena errealitatea baino ederrago, hunkigarriago? Galderak sentipen ederregien egiari buruzko zalantzatik datozenean, hobe da bertan utzi. Erantzunak zehaztasun zapuzgarria ekar dezake.

Espazioaren infinitua imajinatu baino nahiago dut gelditu gaueko argitasun inoiz exultante horiekin, zeinetan izarrak distiratzten baitira eguna bailitzan. Ez dut infartorik behar. Bizirik egon behar dut gozamenaz luzatzeko. Denak joan baziren, edertasunak hemen gelditu dira. Lautada perfektuan, mendi gabe, ilargiaren ganduz, zerua plantxa zapaltzaile bat duzu. Horizonte gabe, bobedarik ez. Edertasun fetala. Bakarrik ez banengo, ikaratuko nintzateke.

URDAIAZPI PENTSALARIAK

Joan ziren. Bakarrik utzi ninduten munduan. Baina ez naiz berehala hilko gosez. Lehenen egin dudana da Eroskira jaitsi eta urdaitegian zintzilik zeuden jenero guztiak kamioian kargatu eta etxera ekarri. Urdaiazpiak, adibidez, hor daude ganbaran, errenkadetan zintzilik, formazio bat hankaz gora bezala.

1. URDAIAZPIA

Lehen urdaiazpia jaitsia da sukaldara. Bazkari-lege gozatsua. Aizto nagusiarekin ebakitako ezpalei botila-erdi batek lagundu die, ondo neurturik, badaezpada, ondorengo lan ez gutxiago gozatsuei gogoz eta kontzientziaz ekiteko. Errioxa, Baigorri, Xerez, Bakio, Borgonia, Toscana, Riveiro... Denak etxeko orain. Internazionalismo alaia, ardo zerutarra barne. Ez dago biagorik.

2. URDAIAZPIA

Bigarren urdaiazpia (gustura nire bizkarrean, zerria!) badator ganbaratik, sagu alaiek katu ernegatuen aurrean korritzen duten museotik. Aurpegi triangularreko felidoak ez zaizkit gustatzen. Lau dobleko izaran baturik, eskailerek ia berez-berez jaisten zaituzte, hain karga usain-giharrean. Ez naiz, hala ere, hain baikor jarriko nola hura, goizean garbitzen hastean, hortzak euforian saltatzen zitzaizkiona, postizoak zirela ahazturik. Ezta hain iluso ere nola sinesten zuena gauez edontzian utzitako postizoez dantzan jarraitzen zutela, izatez hotzezko dardara izanik.

3. URDAIAZPIA

Hirugarren urdaiazpia. Baikortasuna maiz aldarrikatzen bada, kausa jo daiteke galdutzat. Baikorra al zara? Ez. Ezkorra al zara? Ez. Orduan zer zara? Ez baikorra, ez ezkorra. Sinestuna al zara? Ez. Sinesgabea al zara? Ez. Orduan zer zara? Ez sinestuna, ez sinesgabea. Sinetsi nahi nuke ... adibidez, gizateriak bazuela beste bilakaera bat. «Sinetsi nahi». Ederra konfiantza, sinestea nahimen-egintza bihurtu bada. Elizpeko posteei eusten-eusten doan agure-ilara lez, non atzekoek aurrekoen berdina eta alderantziz egiten baitute, elkarren lanaz ezin fidaturik.

4. URDAIAZPIA

Laugarren urdaiazpia. Ez da botila erdiaren kontua. Auzia da botilan zegoenak zergatik ez duen berdina jarraitzen urdailean. Hots, nire baitan hain alai jartzen den zukuaren landarea, mahatsondoa, nola izan daiteke hain tristea? Gure aitak, tabernatik etxeratze batean, mahastia eliminatzea erabaki zuen. Nire haurtzaroko nahigaberik handienetakoa. Badirudi nire oroimenari haurtzaroa bakarrik gogoratzea interesatzen zaiola.

5. URDAIAZPIA

Bosgarren urdaiazpia. Eskailburua lasaiago hartu dut ezkererantz duela astebete baino, noiz, gauez autoan, erreka gaineko bihurgunean, zapatila zuriska bat errepide erdian ikusi bainuen. Katua zelakoan, gurpilen erditik gain-pasatzera joan nintzen, eta andre bat akabatu nuen. Gajoari neuk ez beste guztiek mundutik alde egitea ondo etorri zaio, post mortem epaiketa ere galduko baitzukeen, linterna gabe ibiltzearen. Hargatik izango zen kalean oinez kostata zetorren atsotxoia ere gelditu zenekoa, neuri begira-begira. Zertatik ezagutzen ninduen asmatu ezinik, albotik pasatu nintzaionean, haren irribarre zimeldua, aspaldi zimeldua!, neuretzat izan zela pentsatu nuen, uste duenak bezala ekiloreek bere pasaerari jarraitzen diotela. Edo hura

bezala, zeina, kontrako norabidean sartzen deskuidaturik, harrotzen baitzen denak berari agurka zetozelakoan. Azkenean, atsotxoaren begirada finkoa beldurrarena izan bide zen, zapalduko ote nuen. Orain, hura ere joana, ez dakit bere kabuz ala eramanda. Ez nuke nahi, Daltonen kasuan bezala, besteen gogoan geratzerik gaitz baten izentzat.

6. URDAIAZPIA

Seigarren urdaiazpia. Zorionez, niretzat jada ez da besteen gogorik existitzen. Lehen ere ez dakit zergatik hainbeste motibatzen ninduen batere ardura ez zidatenen aldetik kontsideratua izateak. Libratu naiz, behingoz, adimenak zenbat eta absurdoagotzat aurkeztu, hainbat bere menperago lerratzen nintzen grinatik. Grina alua, zeinak behartzen baininduen, ulertezinki, neuk funtsean arbuiatzen nituenen losentxengatik lehiatzera. Ba, besteen gogorik existitzen ez bada, neu naiz koherentzia absolutua. Bakarrik geratzen zait, nire geriza horma kontratan atzerago zetorrela, norbaitek jazartzen ninduelako turbazio hura sentitzea, zeren gerizak hemen dabiltzala sumatzen baitut.

Heriotzari eusteko gertu nago. Hainbeste bider huts egin dut bere beldurrean, non beldur bainaiz, azkenean, ez ote naizen hilko distrakzio batean. Hiletak hain nituen gaitzi non pentsatzen ari bainintzen neurera ere ez joatea. Geriza galtzea da eraman ezingo nukeen bakarra, nahiz eta betiko gogoan atxiki zitzaidan harako apaizarena, zeinak infernua bere ordeztu geriza utzi eta deabrua engainatu baitzuen.

7. URDAIAZPIA

Zazpigarren urdaiazpia. Hemen gakoa bestea da. Ez al gara negarrez jaio eta isilik hiltzen? Ez al genion aitari ostikoka egin amaren sabeletik? «Zer sentitu zenuen lehen musuan? – Ba, askoz gutxiago lehen horzkadan baino». Zergatik ez didazue galdetzen nolakoa izan zen nire lehen gozokia?

8. URDAIAZPIA

Zortzigarren urdaiazpia.

- Ezkontzaz kanpoko harremanik?
- Lantzean «kanpaitxo» bat, jauna.
- Hil-kanpaia bezalakoa?
- Hain luzea ere ez, jauna.
- Ezer ostu edo?
- Neurea ez den edozer, jauna.
- Ederto! Errezatu aitagure alai bat, semeari ezer kendu barik.

- Eta Espiritu Santua, jauna?
- Ez dizut aipatu, badaezpada. Amen.

9. URDAIAZPIA

Bederatzigarren urdaiazpia. Bai huskeriak gogoratzen zaizkidana! Oroimena, sarritan, txakurkume bat baita, etxeko predarik zirtzilenak atarian zabaltzen dizkizuna, galtzerdi zikinak, zapata zahar ahaztuak, lehen gutunak ... Aktoreak, amodio-eszena amaitzean: «Honek ez al liken merezi benetan egitea? – Ni hauxe egiteagatik egin ninduan aktorea». Moztu! «Ez da igartzen amodioa ala epilepsia izan den». Ene ama! Ergelak ugaritzea komeni da, zentzudunen proportzioak gorputz apur bat hartu ahal dezan. «Zu barik ezin naiz bizi. – Ba, hil zaitez!». Hilak hain dira maitagarriak!

9. URDAIAZPIA

Bederatzigarren urdaiazpia. Segiogun bederatzigarrenari, behingoz gai alai batean barnatuak ginenez gero. Hiletetan, batzuk zenduaren garunak mihizkatzen ikusten nituen, beste batzuk garrasika, haren hezur irentsiak diafragman pitzatu balitzaizkie bezala. Oraindik ez zekiten hila nor zen. Maite dut heriotzaz pentsatzea, baina ez hartaz mintzatzea. Pentsatzean, neure baitan aurkitzen dut. Mintzatzean, besteen aurpegian ikusten dut, eta ikusteak aztoratzen nau.

10. URDAIAZPIA

Hamargarren urdaiazpia. Bitartean ez al dut baten bat jan? «Bederatzigarrena errepikatu duk». «A! Banengoen, ba, zerbait arraroa gertatzen ari zela». Heriotza ulertzea ez da zaila. Onartzea da zaila. Horrela, heriotzari buruzko ikuskerak hain dira ugariak nola diren hura ulertu nahi ez izateko moduak. Bizitza ulertzea ere ez da zaila. Harakina bazara, aitzokada bat, bi eternitate banatzen dituen. Literatoa bazara, bizitza parentesi bat izan daiteke (Benedetti), zeinatik kanpora testurik ez omen baita. Eztabaida bakarra, parentesiaren luzera. Gustatuko litzaidake heriotzari esatea: «Kostatu zain iristea!».

11. URDAIAZPIA

Hamaikagarren urdaiazpia. Errealitatea oroimenean dago ondoen. Hots, errealitatearen alderik positiboena oroimenaren objektu bilakatzea da. Bidaia-lekuak, adibidez, gogoratzen ditut, haietako bakoitzean bizitzeko pentsamenduak eragiten didan atzerakadaren arabera. Sen soil bat, seguruenik, beti arrazoizko izan beharrik ez daukana. Adibidez, euritan, horma bazterrari babes gisan atxikita

joatea, haizeak bertarantz jotzen duela. Horrela euri biak harrapatzen ditut: haizeak dakarrena eta horman behera datorrena. Egiten ditut horrelakoak, baina nik neure senarekin bizi behar dut. Gorilak besoak zerurantz jasotzen ditu, gizakiak otoitzean ikasi baino askoz lehenagotik.

12. URDAIAZPIA

Hamabigarren urdaiazpia. Oraindik inork ez dit esplikatuko euliek zer onura ekologiko daukaten. Autoan larriak emanda, txiza egitea pentsatu duzun bazter paisajistikoan guardia zibilaren kontrola aurkitzea bezala. «Geldi!». Eta berehala: «Mugi!». Zuhaitzen gelditasunari pena harturik, giza izateaz pozten denak pentsatu behar luke haiek ba ote duten mugitzeko gogorik. Ekar, bai, ekar! Guri gauza sanoek ere ez digute kalterik egiten. Ez naiz akaina bezalakoak, inoren odol gozoak azkenean bera lehertzen duena.

13. URDAIAZPIA

Hamahirugarren urdaiazpia. Pentsamena objektu gabeko grina bat ei da. Kokaera gabeko hegada bat. Kokatzen bada, ez da txoria, zuhaitzaren parasittoa baizik. Elkarren ondoan hain xarmagarri ikusten ditugun izar dohatsuak, izatez, unibertsoa bera bezain bakar daude. Bere buruarekin nahikoa ez duen kontzientziak ezin du zorionik pretenditu, bizkarrean urdaiazpi bat badarama ere. Hildakoan, atzazalak mozteaz beste eginbeharririk ez dago. Nik, orain, horixe ere ez daukat nork egin.

14. URDAIAZPIA

Hamalagarren urdaiazpia. Iritsi naiz zenbaki magikora: ezin guztiak gainditzen dituen «hamalagarren ahalegina». Oraindik hasi besterik ez naiz egin, eta noiznahi akabatzeko zorian nago.

15. URDAIAZPIA

Hamabosgarren urdaiazpia. Hau da zero-sabaia jartzen ari dena, ez desertu elurtu hura bezalakoak. Zerua, desertua, elurra. Asoziazio zaila, baina ez daukazu larritu beharrik. Neuk ere behin bakarrik ikusi dut.

Ilargiari zaunka dagion txakurra ez da gutxiago zentzudun hari begiratzen dion poeta baino. Elorri bakartia, lore txundigarriro eskergaz jantzia. Hurbildu zara ikusminez, eta plastiko zurizko hondakinak arantzetan josiak aurkitzen dituzu. Plastikoa ez da, beraz, hain laidogarria. Beraz, poesiak ez dauka egiarekin hainbesteko zerikusirik. Haitz batetik ez dakizu, hurrengo haitzean, sai inperial

haiek horizontez harago ala honago ezkututzen diren. Maite dut haitza, baina ez dut nahi haren gotortasun mugiezinik. Maite dut haizea, baina ez dut nahi haren arintasun geldiezinik. Zorionez, bada bitarteko elementu perfektu bat, neure burua, baina ez nago ziur maite dudan.

N. URDAIAZPIAK

Hamaseigarren urdaiazpia, hamazazpi, hogeita bat, hogeita hamaika, berrogeita hamalau... Hirurogeita hamahiru azkenean, zazpi errenkadatan esekiak. Bakoitzak, batez beste, hamar bat egun irauenez gero, pare bat urterako bizia badaukat. Pare bat urte! Zer izango ote naiz ordurako? Beste zazpi haga gelditzen dira: solomoak, lukainkak, sahieskiak, urdaiak, zezinak, bakailaoak. Horiek sei dira! Ba, sei orduan. Ez naiz hasiko neure buruarekin teman. Eguzkia beti bezala erori da auzo gaineko pinadi ostera, ez «bahago?», ez «bahabil?» galdetzeke. Beraz, suposatu behar da bihar ere etorriko dela.

MUNSTRO TXIKI BAT

Bizitza baten bi muturrak ikus banitza, bitarte guztia ezerezean geldituko litzaidakeela uste dut, nahiz eta jaiotzaren kasua ez den heriotzarena bezain zehatza eta bereiztua. Jaiotzan, haurraz gainera, ama ere hantxe dago, aita ere egon daiteke, medikua, emagina, erizainak, tresnak, aparatuak, berbaroa, eupadak, negarrak, garrasiak... Egintza indibiduala baino gehiago, konkurrentzia ferial bat dirudi, zeina, santuen parte-hartzearen arabera, auto sakramental bat ere izan baitaiteke. Haurra bera, likidotan eta mintzetan itotzear, kasik ezagutezin dator, erdizaillea bera trukatzeko diskreto batek aise engainatzeko moduan. Ez da harritzekoa, garbitasun guztiak eginda ere, munstro txiki bat ematen jarraitzen baitu. Edo handia, iguanakumeekin konparatuz gero. Biziak fede-egintza handia eskatzen du, jaioberriak espezie-itxura zuzena har dezan. Zorionez, laster gertatzen da, gehienetan.

BIZIRIK ETA EGOSITA

Kristauek ezingo zuten lorik hartu, apaiz batek ebanjelioa honela predikatu zuenean:

- Herodesek, Bataiatzailearen burua azpilean ikustean, orro egin zuen: «Hau ez duk nik agindu dudana! Nik buru bizia eskatu diat».
- Baina, Jauna! –soldadu batek–. Burua nola ekarriko genuen bizirik?
- Bizirik eta egosita!
- Honena jada eginda dago, Jauna.
- Ba, topatu beste bat!

Eliztar inkondizional batek txibatazoa pasatu zuen ezen sermoia erregimenaren alegoria izan zela. Apaizak frogatu zuen burua apaingarriztat baino gehiago zuela, agintari txit zuzenen interpretazioari erantzun zionean: «Uler daiteke, bai, horrela ere. Elizakada guztiak adi-adi entzun zuen. Hori erregimenaren kontrako zerbait denean bakarrik gertatzen da».

SENAR ERREA

- Egun on! –dio emazteak.
- Heureztat izango dun ona! –senarrak.
- Jesus! Txarra opatu behar al nian?
- Ba, bai! Txarra denean, txarra behar din, zurikerian ibili barik.
- Nola igartzen zaiok noiz den nolakoa?
- Isilik egonda.

Alferrik da jarraitzea.

ITSASERTZEKO APARRA

Itsasertzeko aparra, sortze etengabea. Lehenengoan mirari ezinezkotzat begiratu niona, kostatu zitzaidan sinestea ez amaitzera kondenaturik zegoela. Halako eran, non, berariaz apurtzen saiatuta ere, edertasuna handitu baizik ez baitzen egiten.

ZORION INPRESIONISTA BAT

Emakumeak begiratu dit, eta bere irribarre barean ulertu dut badakiela noren altzoan dagoen, ez dela erratu, poza berea ere badela, ez dela minik izango, ez dela pasioaren zalapartarik gertatuko. Bulegotik kalerantz, bere autoan eraman nazan, eskailera kiribil eta estuan behera goazela, kirten hori-horiko aterki bat itzuli diot, aurreko asteen nire motxilan gelditu zena. «A, bai, aste guztian falta hartua nian». Klean dohatsuki ezabatu gara.

Nire gogoak nahiago izan du itzar nendin, ametsaren samurtasun jabala ohartuki goza nezan. Zorionaren sentsazioak bere osotasun guztian darrai, hain gozo eta egiazko ezen ez baita planteatzen amaitu izanaren penarik. Kantoi batean, oinez eta eskutik, nik baterantz eta hark besterantz hartu izan bagenu ere, penarik gabe jarraituko nukeen neure bidetik, emeki eta xoraturik, errakuntza dohatsu bat izan zela pentsatuz. Hitz mingarrien arriskura itzuli gabe. Hobe da zorion oso baten oroitzapena gelditzea, luzatzea lorturiko zorion puskatu batena baino.

Tamal bakarra izan liteke aurpegiarik ez niola behar adinako arretaz ikusi, hain ezagun ginelarik, orduan premiarik sentitu ez nuelako.

Orain, itzarrrik, zorionaren sentsazioa luzatzen hainbeste lagunduko lukeen identifikazio zehatza falta zait. Harritzen naiz batzuk begietan, beste batzuk sudurrean, ezpainenetan, belarrietan, fijatzen direla. Nik ikusten dudana, liluraten nauena, aurpegi osoa da, ahal dela irribarrez. Aurpegi hura, edertasun monumental gisan baino gehiago, politasun ingurutzaille, kutsakor, gesalgarri gisan gelditzea komeniko zen. Hitz batez, inpresio gisan, artearen adierazpen maitagarrienetakoa izan den inpresionismoaz loriatzeko.

KOSTU GABEKO ATSEGINA

Alon «fraide ohia» nobedade handia izan zen bere lehen erromerian. Urduri eta izerbera zebilen. Ez ausartzen, bai ausartzen, azkenean, zorabiatzeraino dantzatu behar izan zuen guztiekin, bera konfiantza hartuz zihoalako baino gehiago, plazako neskegan, ongura jobialaren senblantean, abantailaren batetik at gelditzeko kezka zabaldu zelako. Hartan, berak betidanik tentazio ezkutuan amesturiko Angelinak, ez nahi bezain laster, bai uste baino era ederragoan, jaulki zion: «Geuk ere dantzalditxo bat egin beharko diagu, eztuk?». Alonek «nigaitik bai» ahul batekin besoak zabaldu zituen, ez espresioari, ez tonuari araberako markarik ezartzen ausartu gabe. Izatez, Alon transfixioa baino minberago birakatu zen, dantzaldi harexen irudikapen retrospectiboan trumildu zitzaizkion sentipen utopiko guztiak kontaktu egiazkoan txertatu ezinik.

Handik hogeita zazpi urtera, Alonen eta Agateren zilar-ezteiak. Ospakizun handi hartara gonbidatuetako bat Angelina zen, Agateren lehengusina. Txandan txandako dantzetako batean, Alonek behinolako esaldia gogoratu zion Angelinari. «A, bai? Horrela esan al nian?». Alonek erantzun zuen: «Hainbeste urtetara, berbak zehatz gordetzea zaila dun, baina neuk, behintzat, halaxe ulertu ninan. Edo ulertu nahi izan ninan». Alonek bazekien deklarapen atzeratu hark ez zeramala kostu gabeko losentxaren gozoa besterik, urteen joanak eta ezein konpromisoren ezinak liberatua antsiatik, baina ez atseginetik. Eta Angelinaren oroimen ez hain zehatza Alonek nahiago izan zuen ulertu erreserba femeninoaren lausengutzat, hau ere batere kostu gabea.

ALTUBEN BEHERA

Bakoitzak ahal duena baliatzen du. Kanean zoazela, plaza bakar bat ikusi duzu libre. Ez daukazu premiarik, ez hartarako asmorik, baina bertan sartzen duzu kotxea, aparkaleku bat aurkitu izanaren miraria gozatzearren. Beti arrazoia izateko modurik onena arerioari gauza imposibleak eskatzea den bezala, ondo zerbitza zaitzaten txarrena ez da bezeroak inoiz arrazoirik ez balu bezala jokatzeko. Arrazoi on bat nahi baduzu, hona bat: «Kotxe handiek liluratuko ninduteke, txikietan ere partetxo bat bakarrik okupatzeko gauza naizela ez baneki». Altubetik Bilboranzko aldasbeheran, era suizidan aurreratu naute, kotxea bera

bakarrik fugatu bailitzan. «Alua! Horixe harrapatu behar diat». Neu ere suizida jarri eta, Baranbio parean, berak itxaron dit, bazterraren kontra. «Dedio! Neure orde z hil duk!».

ZEZENA ASKAN GORA

Bat-batean, zapla lehenengoz aurkeztu zaidan galderari zer erantzun ez dakidala geratu naiz. «Behiek ez al daukate hilekorik?». Dedukzio oso arrazionalerik, ezetz esango nuke, sekula ez bainuen hartarako seinale seriorik susmatu, ia neure haurtzaro eta gaztaro guztia behien errape artean iraganik. Hori ere ez da, noski, arrazoi sendoegia, mutilok nesken eme-legeez (eta eurak ere suposatzen dut gureez) ez baikin jabetu, sarritan beranduegi izan arte. Ez gutxitan, erremediorik ez izan arte.

Behiena larriagoa zen, biluzik zebiltzanez gainera, edonon ukitzea zilegi eta, batzuetan, obligazio baikenuen, eta eurek ere konfiantza osoz uzten baitzuten, nahiz eta gure behiekin kontuzago ibili behar, ez pudoreagatik, goseagatik baizik. Artean txiki samarra nintzela, eta ikusten nuen zer berri oro gertaera handien seinaleztat jotzeko grina bide zela, bigantxa baten alu-ahoa lohi bat zintzilik hauteman nuen. Arnasestuan joan nintzen aitari esatera:

- Aita! Gure bigaiak txahala egin behar du.
- Txahala egiteko, tripa mehegia zeukak horrek.

Horrelaxe saihestu nahi izan zuen aitak nire irudikapena, ustez biribilki. Baina nik, ordu batzuetan, mirariaren zain jarraitu nuen, harik eta beste egintza oso ezberdin batek ikuspen hura nire oroimenean txertatu zuen arte. Txahal bat jaio zen. Entziklopedian begiratu dut, eta behien hilekoaz ez dio ezer. Seguruenik, ez zuten izan ere egingo. Ez, ez zuten. Nola izango zuten, ba? Galdera hau zergatik egin dudak ez dakit, baina, orduan, zezenak zer egiten zuen? Masturbatu egiten zen, makarra autentikoa bezala. Kostatu zitzaidan konturatzea, ukuilutik halako ohol-hotsak zetozenean, aitak zergatik esaten zuen, batzuetan barre-etzulez: «Gure zezena bazihoak orain ere askan gora». Eta beste batzuetan, ukuilurantz biraoka: «Orain ere ba al hoa, bizioso madarikatu hori?».

Aita aska zaharra konpontzen gogaituta egoteak baino gehiago intrigatzen ninduen «orain ere» horrek, behin ikustea gertatu zitzaidan arte. Zaila ere ez zen gertatzea, aberea saiaturik baitzen langintzan. Kate laburregiak ez zion uzten aurreko hankak askaraino jasotzen, baina, astrapala galanten ondoren, bizkarra noria erara arkutu zuen, eta atze guztiarekin aurrera-kolpe txit zentratuak ematen zituela, zirriztada zuriska bizi-biziak ikusi nituen bere paparrean jotzen eta tanta likinetan erortzen. Gero, gorputza ahalik luzeen eta bizkarra ahalik zokonen ipiniz, askako lasto hondakinak airean zebiltza haren putz

beldurgarriekin. Ordurako kapitulu hartara iritsia bainintzen, oihu egin nion: «A, barrabana! Hik ere badakik horretan, e!».

AHOSKERAK ETA PLAZERAK

Ahoskatuko ez dutena idazten dutelako, frantsesak ergelak direla dioena ez da konturatzen euskaldunok ergelago izan gaitzkeela, idazten dugun guztia ahoskatzen dugulako. Kontua da ingelesak I ikurrean AI dakusan lekuan, euskaldunak I soila dakusala. Ingelesa fantasiosoa ote da, ala euskalduna motza? Batak zein besteak ez diote hurrik ematen gaztelerazko testu bat ahoskera ingelesean kantatzen saiatzeko pitokeriari. Ez da harritzekoa japoniar begien finkotasun fotografikoak argazki-makinen inperioa sortu izana.

Badira batzuk, hitz egitean, hagin-moldea ahoan daramatela erakutsi nahi dutenak, badiren bezala, ipurdia garbitzeko, ilea orraztu behar dutenak. Ez nago mozkor, baina egon nadinerako, mozkortzea denbora galtzeko modu bat dela aldarrikatzeak ez du askorik balio, dibertsioaren helburuetako bat denbora galtzea bada. Bizitzak hain urri damaiguna berau, denbora, baina badakizu. Plazera ondasun urriak ei dakar. Oso zaila izan behar du zenbanahi daukazuna xahutuz gozatzea.

GARI-JOTZEKO MAKINA

Gari-jotzeko makina txundigarri haiek mendiko baserrietaraino iristen hasi ziren. Trena, urrundik, zomorro txiki bat bezala pasatzen ikusi ohi nuenarentzat, makina haien eta inguruko mugida guztiaren etorrera, eta gero soroan, gari-metetatik eta etxetik ahalik hurreneko zelaiunean, atzera-aurrera jendetsu hura guztia, nire lehenengo zirku mundiala izan zen. Liluramenean ez zitzaion beste ezein hurreratuko, ez hura lehenengoa izan zelako, pentsaezina zelako baizik. Estartez beste errepiderik ez zegoen parajera halako aparatuak iristea nire irudimenean ere ez zen inoiz gertatu. Eta bat-batean, makina hura geure auzora zetorrela entzun nuenean, eskolan zabaltzen ziren inkongruentzietako bat gehiago izango zela pentsatu nuen. Makina bazetorren, ordea! Egun hartan, eskolara huts obligatua zen.

Gari-jotzeko makina. Hiru zatitan zetorren. Motordun gurdia idi-uztarri batek zekarren. Beste idi-uztarri batek, eultzi-makina. Aparteko gurdi batean, uhal, toldo, erreminta eta gehigarri guztiak zetozen. Makineria guztia tokian instalatu zutenean, zur gelditu nintzen, tren hark norantz mugitu behar ote zuen, ez bainuen kontzibitzen artifizio hura guztia inora ez joateko ezar zitekeenik. Abiarazi zuten, eta haren tar-tar gorgarriari ernegatu antza hartu nion. Bat-bateko arrapalada sortu zen denean.

Nire lana iturriko ura ekartzea, zerbitzatzea eta, lantzean behin, zahatoa pasatzea zen, eta ez nuen aukera alferrik galdu mugida

tropikal hartako katemaila guztiak obserbatzeko, batez ere «ku-klux-klanak» iruditzen zitzaikidan bi haiek. Izen hori zerbait misteriotsu bezala entzuna nuen, urruntasunak izugarria txundigarri bihurtzeko daukan dohainetik, eta pentsatu nuen: «Hauexek izango dituk». Gero, ku-klux-klanen irudia oso bestelakoa zela ikasiko nuen, euren jantzi eta txano zuri-zorrotzekin. Baina niretzat orduan nahikoa zen hurretik inoiz ikusterik lortu ezin nuen «kukua»-rekin zerikusi enigmatikoren bat edukitzea. Bi haiek, gari-jotzaileek, ez zuten pitxarrik, ez zahatorik hartzen. Ezin zen makinaren martxa eten. Makinak etengabe irensten zuen zinta zabalaren alde banatan, gari-jotzaile bakoitzak gari-azaoa sartu, buelta eman, berriz sartu, eta galtzu-azaoa atzerantz jaurtitzen zuen. Eta guztia azkar. Gari-alea makinaren tripan geratzen zen.

Ingurukoei ura-edo ematera hurreratzen nintzenean, nire begiak mozorro-buru haietantxe zeuden. Batean iruditzen zitzaidan munstroa ase ezinik zebiltzala, bestean, munstroaren tripak heriosuhar ateratzen. Denboratik denborara, txandatu egiten ziren. Lan itogarria izan behar zuen. Atsedean hartzen zutenean, euren ontziak eta euren horniak zeukatzen. Behin edo behin, «hi, mutiko! ekark pitxar hori» agintzen zidatenean, ikusmin beldurtiz hurreratuko nintzen. Mozorro gabe ere, aurpegi mamuzko haiek ezagutzerik ez zegoen, eguzkiak eta hautsak, begi libreak ez ezik, larru osoa harrapatzen baitzieten.

Niretzat mamu ezezagunak ziren. Makinak ekarriak, makinak zeramatzan. Gehienez, sasoiko mutil, euren burua goragokotzat zeukatzen. Bazekiten auzoko arrapalada kasik apokaliptiko hura euren besoetan zegoela. Atsedean txandetan, aurpegiari freskatu bat eman eta trago ase gaitz batzuk eginik (zahatoa beldurgarriro zimeltzen zen haien eskuetan), galtzua mandiora jasotzeko borondatea ere izaten zuten tarteka, hartan ziharduen neskaren baten edo batzuen atzetik. Ni horrek larritu egiten ninduen, batzuetan tardatu egiten baitzuten mandio ilunetik irteten. Batez ere, nire lehengusina kutun bat tartean zenean.

Gari-jotzea, eskuz nahiz makinaz, auzolan gogorra eta lasterra izaten zen, beroa eta hautseztatua. Baina bai zoragarria, umeontzat, iluntzeko otordua, sarritan erromerian luzatzen zena! Umeak pozik ibiltzea mundua ondo joatearen berdintzat joko nukeen, nagusien munduak erremedio zaila zeukala susmatzen hasita egon ez banintz.

ENE ETXE MAITE

Agur, etxe, geratu zaidan maite bakar! Laster itzuliko naiz, ez Aresti suharrak bezala defendatu nahi zaitudalako, baizik behar zaitudalako. Bakartasun osoan gelditurik, isolagunerik beharko ez nuelakoan, nola pentsa nezakeen dortoka oskolari bezain atxikia aurkituko nintzela zuri? Gizakide guztiak aldendurik, zugandik lagunki bereizi ahalko nintzela uste nuena alderantziz gertatu da. Guztiaren jaun aurkitu naizenean, ezin naiz sentimenduetatik libratu.

Ekimen propioz izan balitz, konkistaz, adibidez, uler nezakeen neure grinen gatibu gelditzeko zigorra. Baina nire nahitasunik batere gabe gaineratu den fenomeno honetan, zergatik ezartzen didazu, ene etxe maiteegi horrek, ia menpetasuna dirudien lotura hau, sentimenduzkoa izateak gutxiago zurruntzen ez duena? Ez da zure aurpegia neurearekin erratzen dudala, baizik, zure barruan mugitzean, neure barru inpenetrablean sartzen naizela. Ataritik begiratzen dizut, eta zure barruan neure burua dakusat, zeinaren barruan zu zakusadan, zeinak berriro ni nakusan, amaigabeki. Edertasuna sentimendua bada, hauxe da kasua.

OHE ARROTZEAN

Noizbait, gaua lagun dudala, eta ilargi erdiak osoak bezain argi biribila egiten duela egiaztatu ondoren, museo txiki bat dirudien logelan nago, antzina-kutsuak dena penetratzen duena. Ohe arrotzean sartzeak atzerakada ematen dit. Nor ote zen bertan etzan zen azkena? Galde nezakeen nor ote zen bertan hil zen azkena ere, baina hori ez zait interesatzen. «Sartuko nauk? Ez nauk?». Sartu naiz, eta zirrarratu nau etxetik neuk ekarritako izaren freskurak. Nire gogoia katramila sentimentalean zebilen bitartean, eskuek euren kabuz ohera zabaldu dituzte. Aurreko bertakoak kendu eta zurezko besaulki kankailu batean tolestu dituk. Besaulki honetan eseri zen herenaitiak kardinala izan behar zuen, edo Oizpera iritsitako indiano bat, bere fortuna kezagarria ezkutatzera. Indianoaren historia inbentzio ona izan da lokartzeko. Munduan bakarrik geratu izanak ez dauka zertan eragotzi amets egitea.

NIRE MENDIA

Eguzkia hasi da zuzen begiratzea eragozten. Bai dela zoragarria begiratze hutsa, metafora gabe, deskribatu behar gabe, adierazteko ardura gabe! Ikuskizuna norberak edertasun bihurtu gabe, hartzailea bitartekoaz gehiago txundi dadin fenomenoaz baino. Bakartasunak fenomenoarekin bekoz beko utzi nau. Bestela, hortxe ekingo nion burua apurtzen, hitz egokien, konparazio zirrargarrien bila. Artistari gutxien ardura diona fenomeno dela uste dut, bere despleguaren motibotzat ez bada. Poetak «errealitatean sakontzea» dioenean, «hartatik bereiztea» esan nahi du. Bereizten, gainditzen, harainditzen esan baduzu, loriatuko zaizu. Irteten, saihesten, eskapatzen esan baduzu, haserretu egingo da. Poetak oso infantilak dira. Sinonimoak aldatuz engainatzen dira.

«Horrek kaka dauka!» esanez, barea eskuetatik kendu eta urdai-azala ematen zidatenean bezala. Ez nago ziur bakartasun osoaren efektupean nagoen. Inori kontatu ezin izatearen abantailak baino gehiago, nago ez ote nauen Oizera ekarri behinolako motibo baten malenkoniak. Egunsenti bila natorren bigarren aldi hau nekez

gertatuko zen hura gabe. Tontor honetatik itsasoraino jaisten den Lea Ibarreko Gizaburuagan apaiz nengoela, Donibane goiz batez etorri nintzen, eguzkiak, egun horretan, irteeran egiten duen dantzaldia ikustera.

Oiz ez da mendi garaiegia (1029 m), baina gutxi izango dira hain ikuspegi oso eta urruneko gailurrak. Beharbada, neure bizialdi guztia biltzen duelako iruditzen zait mendirik unibertsalena. Hantxe dago nire jaiotetxe Torreburu, oiztik Bizkargirako katean. Hantxe dago nire jaioterri Etxano, eta nire uri Zornotza. Hantxe dago, harago, Derioko seminarioa, nondik Oizera begira hamahiru urte antsios igaro nituen. Hantxe dago Bilbo ere, trenak eta autobus guztiak bertan hasten eta amaitzen zirena, eta hegazkinak albora bidaltzen zituena, hondakinak bailiran. Hementxe dago, hegoarantz, Durangaldea, eta bertan Berriz, orain bizi naizena. Hortxe dago, iparrerantz, Bizkaiko Golko guztia markatzen duen itsasoa, nire abade-sasoa kresalez eta txaraka usainez bizitu zuena. Nire bizialdiko atal garrantzitsu bakarra falta da hemendik: Zamorako espetxea. Zorionez, Oiztik ikusten ez dena, handik hau ikusten nuen baina.

NI NEUREKIN

Orduantxe hasi nintzen sentimenduen fatalitatea susmatzen. Esan nahi baita, pozaren gailur gaindiezina azkar jotzen den bitartean, okerrean beti dagoela okerragoaren beldur justifikatua. Badakit manipulazio bat izan daitekeela oroimenarena, zeinak poz joanen gailurrak iragan oro hobea izateraino handitzen baititu, eta oraingo nahigabeak ezin handiagotzat aurkezten. Ez dakit. Nik neure oroimenarekin bizi behar dut, ez hari buruzko teoriekin. Nire zahartzaroa hasiko da kostatzen zaidana gehiago denean gozatzen dudana baino. Bitartean, ez saia hainbeste nire bizi-kalitatea hobetzen. Utzidazue apur bat neure erara bizitzen.

TXERRIKUME MOZKORTUA

Bagenuen txerri bat, txakurraren antzera jarraitzen zuena, nahiz eta lasaiago eta zentratuago. Atzetik jarraitzen uzten zuen, ukituz bazen, hobe. Gustura barrabana, txerrien azkura-estasian. Aurrea hartzen banion, hur-hurretik jarraitzen zidan, abarka orpoak jan guran, zenbat eta zaharrago eta apurtuago eurok, hainbat gogotsuago bera, eta setatiago ostikaden kontra. Lagun banaezina, maitemin-hurren, barrabana. Baina alboan joaterik ez zuen inondik ere onartzen, ezta azkura truke ere, zer transbersal oro anti-higienikoa bailitzan.

Beharbada, asimetriaren bat gelditu izango zitzaion, txerrikume zela, etxeko mutikoon esperimentu eutsiezinetakoa bat, gurasoen absentzian, hura mozkortzea izaten baitzen. Gehiegi ezin zitzaion eman, botilan beherakada igar ez zedin, baina berehala pizpiltzen zen

alua, azioa errepikagarri egiten laguntzeko edo. Txerrikume transformatuak ikuskizun elektrizantea garatzen zuen, etengabe sortzailea, beti ateratzen baitzuen deribazio berriren bat. Haurrok fantasiatsuak ginela, baina uste dut txerrikume hark irudimen eszenikoan inimiziazio eminentea paratu zigula.

ETXERA!

Udako oporretan, seminariotik etxera heldutakoan, baserri bateko kontuak beti: abereak, soroa, ortua, basoa... Egun bakartian zehar, pentsaketa ugari eta ilusio ugariago. Zapatuan, Autzaganako tabernara osteratxoa, mandaturen baten aitzakian. Igandean, herria ikusi, elizkizunen inguruan. Astean behin, Zornotzara jaitsi, iltzeak edo sokak edo kateak erostera. Bankuak aurreko espaloitik gurutzatu, atzerriko enbaxadak bailiran. Astelehenean, beharbada, Gernikara, osaba tratulariarekin. Tratu itxurazkorik bazen, gosari-izki bat tabernazulo batean, zuloago eta gurago. Tratu nuloa edo eskasa izan bazen, trenera zuzen, gosaltzeko astirik ez zegoela eta. Txarrean, itzulera osoa oinez. Ni pozik, bideko bazterrak eta auzoak ikusiz, tarteka neskak, euren ama edo aitaren inguruan, atartean, haiek ere zer ikusiko. Santuren baten egunean, norabait gonbidatu joan. Mundu txiki eta isolatuan ere, nobedade asko eta deigarriak, bizitarik gehiena barnetegi kasik autofagoan zeraman gaztetxo batentzat.

Zer izan zezakeen bakartasun hark, ez argi, ez ur, ez bide, gehienei alde egiteko gogoia emango ziokeenak, nire bizitzako desiorik indartsuena «etxera» izan zedin? Adinak eta errepikak nola bizitu zuten desioa, leundu beharrean, obsesioraino, etxeratze bakoitzak itzuli behar irremediablea zekarrelako ez bazen? Ez dakit grina menperaezin hori eskertu ala akartu behar diodan seminarioari, zeren badirudi norabide zentripetua bakarrik gelditu zitzaidala, bizi guztirako. Bekaitz ditut, mundua korritzeko ilusioan, zorion-puska ikusgarriekin itzultzen direnak. Ni, sakon-sakonean, beti neure territorioranzko grinak zurruputzen nau, unibertso fenomenorik intimoena izan behar duela dirudien zulo beltz beldurgarrirantz. Kant ez dut bere pentsamendu inponenteagatik baino gutxiago miresten bere jaiot-hiritik irten gabe hil zelako. Nahiz eta neuk, pentsalari baino agian hedonistago, behin behintzat, kanporatzea ere gomendatuko nukeen, etxeratzearen poza zer den jakiteko.

BIZKARGIREN XARMA

Bizkargi, ginarra-lore tristaberaz apaindua. Ez zeukan Anbotoren, Mugarraren, Gorbeia sistemaren, edo itsasoranzko haitz inponenteen harrigarritasunik. Greziako olinpoek edo bibliako mendi miragarriek, jainko-jainkosen agertoki izan zirenek, ez zuten zail izan nire lilura gorenaz jabetzen. Mendi haietako bizilagunak ere, miserian jainko-izpiak aurkitzeko argitasuna zeukatenak, betiraun promestuaren ez

ezik, zorion terrenalaren jabetzat bekaizten nituen. Ostera, guztien artean ere ez zuten lortu nire golko isil, kasik apalduan, Bizkargi mendiaren lehentasun afektiboa desplazatzerik. Banekien kontraposizio sakrilegoa izan zitekeela, baina ezin nuen ekidin nire mendiak hantxe irauterik, sagar erreak surtauspean bezala epel, ontzen. Eta beste haiekiko sinesteak desegitean, gailur mitikoak ia depresibo bihurtu ziren, eta nire mendiak bere dimentsio naturalak gainditu zituen.

Azken batez, Bizkargi hura, bertan Jainkoa, Adan eta Eba euskararekin edertu zituena, beti berdin agertu ohi zena, neure sorburu izan nuen. Egintza horri, inor liluratzeko, zerbait kolektiboaren epika falta zitzaioela jakiteak are gehiago atxikitzen ninduen kontzientzia inbiolableki bakarraren gozamenera. Bizkargi neure Paris bisiblea zen. Beste haur guztiek Paristik etortzen jarraitzen zuten bitartean, ni Bizkargiko erromeriatik ekarri ninduen soinu batek bere sabelean, osaba soinulariaren besoetan, ijitoen karropetik.

EGUNSENTIA GAUERDIAN

Gaua, egunaren estalaroa. Basoen isiltasun engainagarria. Burrunbatsua ez bada ere, azpi-azantza trinkoz osatua. Bakardadeak ilunetan hartzen duen dimentsio gizagainekoa. Urriko ilargi zuri urdin-nahia, egunsentiaren abiakera dirudiena. Iruditu zaizuna. Iruditu zaizuna ere ez. Sinetsi duzuna. Bai zirrargarria, noraezgarria, egunsentiarekin topo egitea ... gauerdian! Eta gau osorako. Egunsentia, egunaren sentiera. Orduen joanean berbera, norbere transformazio goranzkoan izan ezik. Nietzsche horrelakoxe batean sentitu izango zen supergizon, likantropo ere berdin senti zitekeen moduan. Izarren herabetasuna. Gau izartsuak lasaitzen nau, badakidalako izarrek ez didatela erasoko.

TXAKURRA ETA NI

Txakurra eta ni. Ernai du izena. Bi bakartasunek ezin dute bat egin, bakoitzak bakartasun izaten jarraituz. Bietako bat hil arte bikote bakarra osatzen duten kalaoak bezain fidelak izatera beharturik gaude. «Heriotzak banatu arte». Nora banatzen ditu? Balkoitik «gau on!» esan diot hartatik banatzea hain zail egiten zaidan inguruari, ni zerura begira, txakurra niri begira. Izarrak hutsean maite ditut, baita ilargia ere, baina izar bat ikustean ilargiari segika, ume atzeratua amari bezala, ezin dut ekidin malko bat erdibitzerik bi matrailetarantz. Hau diot begibakarren negarrak ematen zidan beldurragatik. Lotan barnatuz joatearen sentsazioa abian da, bere ezgaitasun progresiboari gustua hartuz doan agurea bezala. Ez du, gizajoak, adeitasun inguratzailea erruki terminalarekin lotzen.

RAPLESIA

Txerria eta oreina fusionatu ditut. Emaitzari goi-kaninoek goiezpaina perforatu diote. «Hau aurkikuntza, Ernai! Babirusa asmatu diagu». Ez ahal zaizkit adarrak bekokirantz arkutuko, babirusa fatalari bezala, garunak zulatzeraino. Natura arraroegia da, ondo ulertua izateko. Munduko lorerik handiena, gorri-gorria, parasittoa da. Izena ere larrialdietakoa: raplesia. Jainkoa beti itzarrik badago, a zer logura behar duen! Kontradikzioak? Arteaz gizakiaz adina gauza kontradiktorio esan daiteke, eta denak egiak. Asko zein gutxi egin, ipurdia berdin garbitu behar da. Norbere buruari barre egitea nartzisismoaren forma bat da. Benetako umorea besteek norberari barre egitearen axola mailatik neurtzen da. Zenbat daude horrelakoak? Humoristetan, gutxi. Pentsaketan ari naiz, loa ekarri guran, baina badirudi ez dela efektiboa. Proba dezadan bertso-sorta batekin. «Neskazaharrak eta apaizak hartuko ditudan aintzat eskatu didate gaitzat ...». Hobeto doala dirudi. Gabon!

OILOZAIN

Oiloak gaua otzarapean igaro zuen. Biharamun goizean amak agindu zidan: «Askatu oiloa eta zaindu». Halako kanpo-errulea zaintzea gorrotoago nuen neuk eguna otzarapean igarotzea baino. Urrunetik jarraitzen bazenion, aise lortzen zuen pinadian galtzea; hur samarretik bazen, igarri egiten zuen. Bere mamala-plantan, ez zuen habiarantz sekularioan hartuko, txuringan gatz ale estimulanteak ipinita ere. Egun hartarako, kriskitintxo bat gordeta neukan, ezpata-dantzari baten praktetatik erauzia. Oiloari hura lepoan lotzea ez zen erraza izan, ateratzen zuen eskandaluan. Estutuz gero ito, nasai utziz gero, irten, burua ere halakoxe ziztrina baitzuen.

Luma pilota otzarapean utzirik, joan zen noizbait, txintxilintxintxilin, sagastian behera, baina pinadian ez zuen sartu nahi. Igartzen zuen, nonbait, bere sekreturantz jarraitzeko moduan ez zihoala. Azkenean, arrautza erori egin zitzaion, sagarrondo baten orpoan. Berri-berri, epel-epel, elorri-arantza batekin bi muturretan zulatu nuen. Arrautza edan nuen eta amari esan nion: «oiloa galdu egin zait». Ez zuen ezer esan, baina uste dut ez zidala sinetsi, geroago galdetu baitzidan: «Mudur horiek zerekin pintatu dituk?».

HASIERA BERDIN AMAIERA

Hutsuneak betekuntza, goseak aseuntza, gabeziak hornikuntza... Horiek guztiak elkarren nahitaezko direla pentsatzea alderantzizkoen derrigorra bezain gratuito litzateke. Izaki absolutu baten eta kontingenteen koexistentzia suposatuz, izaki kontingente guztien iraupen eternala bezain arrazoizko da elkarren ondorengotza eternala. Espezie kontzienteen iraungipena bata bestearen atzean. Zergatik

legoke Jainkoa delako bat obligaturik izaki batzuei, adimendunak direlako, betirauna zor izatera? Horixe baita gakoa: hasiera bat izan zuela ukatu ezin den kontzientzia honek ezin irentsi amaiera bat izan dezakeela. Ba, hasiera eta amaiera gauza bera dira. Norabideak ez du ezer luzatzen. Funts-funtsean, hitz fatidiko bat dago: heriotza. Hitz hori ez da larritasun bat besterik, bizitza «amaituko» delako. Baina larritasunak ez du horixe besterik frogatzen: larritasun bat.

Zer izango litzateke hizkera utopikoan hainbeste bider inbokatzen dugun «zorionera» iristea lortuko bagenu? Ba, alderantziz indartsuago gelditzen da auzia: zenbat eta bizitza dohakabeago, hainbat handiago hilondo dohatsua postulatzeke irritsa. Zoratzekoa da, izan ere, behin jaio erremedio gabeki, eta berean mundualdi miserablea egokitzea. Absurdoa ere bai, batzuetan, aukera irrepitible hori bide erdian moztea. Absurdoena, abiakeran bertan moztea. Pila itzazu alde tragiko guztiak, denak egiazkoak, arbitrario edo zentzugabe diruditenak barne. Eta zer? Hasieraren naturaltasuna berdin-berdin egokitu ahal zaio amaierari.

BASALANDARE LORATUA

Hainbeste hili kantatu diot, ezen pentsatzeko arriskuan izan bainaiz biziaren edukia heriotza ez ote zen. Denboraren misterio guztiak denbora amaitzearen ebidentziaz baitatoz. Lorerik ederrenak inork miretsi gabe zimeltzen dira, hala nola, Oizko troketan barnaturik, ustekabean aurkitu ohi ditudanak. Hobeto esanda, agertu ohi zaizkidanak. Basalandare txundigarriro loratua bezala, belauniko jartzeraino hunkitzen zaituena. O, mirari bat-bateko! Norentzat horrenbeste edertasun, kasualitateak zuregana ekarri ez banindu?

TXANTXANGORRIA BIDE-ERAKUSLE

Beste izakitxo batek, Oizen behera, nire pozkide izan nahi duela dirudi. Jaitsiera suabe baina luzearen erdi inguruan, eskuineko ezponda otatsutik, txantxangorri bat irten da. Hoge metro aurrerago, biderantz okerturiko haritz landare batean kokaturik, «hemendik! hemendik!» indikatzen du, adar gaineko tentaketa bizkorrekin. Kamioia hurbildu zaionean, beste hoge metroko hegada bat egin du, berriz ere biderantz okerturiko landare baten adarrean kokatzeko. Kopilotu eserita datorren txakurrak niri begiratzen dit, nik txantxangorriari, honek kamioiari, bidetik irten ez dadin. Kamioia bigarrenez hurbildu zaionean, bistatik galdu da, hurrengo metroak bihurgunean baitatoz.

Bihurgunetik hoge metroa, txantxangorria berriz agertu da, portaera berdinean. «Ikusten, Ernai? –diotsat txakurrari–. Hemen pozik zeudek bagoazelako». Hurbildu garenean, hegada bat egin du aurrerantz, lehengoaren berdin-berdin. Lehenago, Oiztik oinez

nenbilela, maiz gertatu zitzaidan txoritxo lagunzale honek bide zati batean jarraitzea, harrapatuko nuela sinesteraino.

Ez daiteke izan! Hogeika-hogeika metroz, neur-zintaren doitasunez, txoriak aurrera darrai. Adar egokirik aurkitzen ez duenean, bidezoruaren erdira jaitsi eta, txan-txan-txan, aurrerantz saltatzen du. Egunaren beroa gordetzen duen hormigoizko zuriskari, zaldi eta behi gorotzez nabartuari, gustua hartu bide dio, orain zorutik zorura baitoaz hegadak. Astirotasun uniformeaz, katu erraldoi bihurtutako kamioiaren runrun suabearen gainean, pare bat kilometroko bidaldi ondulantean, bagoaz errepide nagusirantz hurbilduz. Eta txantxangorri urduria hor doa aurrelari, manifestazio konfliktibo bat irekitzera irten den ergeltxo afantsua bezala. Naturaren liraintasun baten xarmatik hasi naizena ikararantz lerratuz noa, baina berriro eta ustez hobeto pentsaturik, ezin dut horren ñimiñotasun xotil bat ezein ondorio terrorifikorekin asoziatu.

Noizbait, hor agertu da, errepide azpian, etxearen teilatu gorri-iluna, zabala, lehengo-lehengo, aurreko belaunaldi guztiak magaltzeko segurantzaren jarrera berberean. Biziak ala hilak izan, etxearentzat xehetasun txikia da. Gailurraren aurreko ertza apaintzen duen teilatxo tentean, hor da txantxangorria, betikoa, etxearen osakina, terrazako nire atzera-aurrerak kontaktzen aspertzen ez zena. Etxe alboan behera, aurrea ikustear, ingurua bitan banatzen duen ataka maitea irekitzen ari naizela, izate guztia golkoan gora datorkit, presentituz, atarian eupada egitean, inor irten ez baledi, atea erantzungo duela.

ERROMERIA ELIZAN

Dena neure esku. Betiko ni, betiko neu. Dena ni, ni. Neu, neu. Buff! Beldurtzekoa ere bada hau. Sukalde txikian hara-hona, leihotik komunera, komunetik erlojura, erlojutik harraskara, saltatzeko beldur naiz, zoru karraskariak ez ote dion eutsiko, baina gorputza bere kasa astintzen zait, ur hotzetik irtendako txakurrari bezala. «Gorputza astindu» esan dut, baina sotanarekin ez da erraza. Etxe barruko bakardadean ere beronekin ibili behar ote dut? Oraindik ez du antzina ilundu. Norbaitek atea joko balu, ez litzateke lantegi eroso hainbeste botoi arrapataka lotu beharra.

Pozak aparte, ilusioak ez dira txikiagoak, «dena ni, neu» horretan sartzen direnak. Neure meza berriko oroigarriari honako idazpurua jarri nion: «Herritarra naiz eta Herriarentzat abade egin naiz». Hemen dago, ba, herri hura nire esku, ni bere mende, idealismo guztia aplikatzeko zabaltasun mugagabea. Abade konbentzionalen dependentzia moral eta dogmatikoetatik ez bakarrik jada aske, baizik askarazteko erabaki osoz. Tentuan beti ere, kontzientziak bat-batean zartarazi gabe. Loturak askatu egin behar dira, ez hautsi. Eta askatzeak

denbora behar du. Prozesu bat, ez aizkorakada bat. Kontu horien guztien ohartun naiz, baina ez dakit nola bilakatuko den guztia.

«Irailgo Andramaria, Arraten erromeria. Neu bere haraxe noia, eiten ez badau euria». Txikitatik hainbeste bider kantatutako koplak horrexen eragina izango zen Gizaburuagako elizan gertatu zen konbultsio txikia. Baten baten gogoan, beharbada, handia. Apaiz berri gisan burutzen nuen lehenengo langintza zen neska-mutilen entsegu batean parte hartzea, irailgo Andra Mari bezperan. Biharamuneko meza nagusirako kanta batzuk errepasatzen ari ziren korupean, eta hantxe gehitu nintzen, harmonio baten inguruan. Eurak ere aztorak samar, ahopeka, apaiz berria lehen aldiz tartean baitzuten. Harmonioarekin laguntzen nielarik, bitarte batean, erromeri koplak horixe jotzen hasi nintzen. Ez nuen amaitu. Hain aurpegi harrituak, desorientatuak hauteman nituen, nesken artean batez ere, non hatzak teklen gainean zizare bihurtu baitziren, ezabatzeko bitarterik ezin aurkituz. Pentsatu nuen:

– Anfora immaterialen bat apurtu diat! –Nolabait erreakzionatu behar, eta jarraitu nuen: –Ama Birjinak ere lantzean gauza alai bat eskertuko du. –Mutilek barre egin zuten, neska batzuek irribarretxoak, eta beste batzuek magia arraro baten amaiaren zain bezala jarraitzen—. Ez al duzue uste? –eraso nien, distentsio guran.

– Seguru! –jaulki zuen mutil gorri batek—. Alaitasunak ez dauka infernua bakarrik egon beharrik.

– Barka irreberentzia iritzi badiozue –gaineratu nuen–, baina nik aita koplari, ama pandero-jole eta osaba soinularia dauzkat, eta atzamarrak igarrik barik joaten zaizkit erromeriara. Neuk ezin izan dudaren partez, seguruenik.

– Geuri ere hobeto etorriko zaigu horrelako bat –beste mutil batek– belarrondokoak ematen dakiena baino.

– Ez uste Ama Birjina –jarraitu nuen– beti aldarean bizi izan denik. Hori Elizaren erabakia izan zen, haren mundualditik mende askotara.

– Ez litzateke harriztekoa –lehenengo mutilak– bera ere ibilia izatea, orduan ere izango baitziren erromeriak.

– San Joserekin nonbait «zertu» beharko zuen –hirugarren mutilak– ezkutuan moldatzen zirela pentsatu behar ez bada.

– Zelako lelokeriak esaten diharduzue? –agiraka egin zien mutilei neska batek.

– Ba, hara! Erdi olgetan, erdi ezustean, auzi mardul samar batera heldu garenez gero –solemnetu nuen tonua, ofizioaren autoritatea baliatzeko oharren osoz– badakizue ebanjelioko miraririk esanguratsuenetako bat Kanaango ezteietakoa izan zela. Ama Birjinak, bazkariaren azken alderantz, edaria amaitu zela ikusirik, Jesusengana hurreratu eta disimuluan diotsa: «Seme! Ardorik ez daukate». Gainerakoa badakizue. Amak ez zion mirari hori semeari eskatu izango, ez honek onartuko, gauza sanoa izan ez balitz bazkal osteko alegiantzia. Erromeria, garbi esanda.

Intzidente hura dohatsutzat jo izango nukeen, baldin, neska-mutil taldean azkenerako nagusitu zen jareintasunaren barruan, bi neskaren aurpegi zurrunen kezka gelditu ez balitzait. Ez nintzen ohartu iragarpen bat izan zitekeela gero bizitzak nire izaeraren ezaugarritzat irakatsiko zidanaz. Hots, muturreko baten minak gehiago eragingo zidala bederatzi musuren atseginak baino.

Entsegua amaiturik, beste guztiak hizketa suabeen kanporatu zirenean, bi neska biltasun osoan belaunikatu ziren, bakoitza banku banatan, expiaziozko iruditu zitzaidan egintzan. Seguruenik, erromeri doinuaren pasadizoak baino gehiago muzindu zituen ondorengo tertuli giroak, elizarako irreberente begitandu bide zitzaienak. Neu ere belaunikatu nintzen beste aldeko banku-ilaran, obserbatzeko bezain atzean, eta eurekiko kidetasuna agertzearekin batera, alegrantzia eta debozioa elkargarri zirela erakusteko gogoz. Aitarenak eta erreberentziak debotoki eginik, kanporantz abiatu zirenean, erdiko pasillotik irten zenak, paretik pasaeran, «agur!» esan zidan. Ezustean, aspaldian entzundako hitzik gozoena iruditu zitzaidan, erdi-ilunak estali zuela suposatu nahi nuen irribarre-antz eta guzti, ilunaren beraren irristada bat izan ez bazen. Atsegin handi horrek, ordea, berriz ere ez zuen berdinduko bazterreko pasillotik burumakurtasun insubornablean aldendu zen beste neskak utzi zidan arrangura.

KONFESIOKO EPISODIOAK

Emakumeen konfesioa albotik eta separazio ondo bermatuz izatearen arrazoia ageria eta konbintzentea zen: ezin zen biderik eman barkamenaren sakramentua bera bilaka zedin alde bateko zein besteko konkupizentzien gudu-zelai. Nola ez zuten gaitzaren prebentzio bera antolatu gizonezkoen konfesioan? Hauen artean, gayen portzentaia bat nahitaezkotzat jo behar zen. Eta litekeena zen konfesorea bera ere joera bereko izatea, berez edo asevide moztuen erreakzioz. Neugan ere nabari nezakeen hori, seminarioa saiatu baitzen, satanizazio guztien txingarpean, orientazio horretara grina gintezen. Elizaren doktrina inplakableak fenomenoak deprabaziotzat kondenatzeak ezin zuen eragotzi sail hartakoa izan zedin, hain zuzen, bekatu huraxe aitortzera zetorrena, ukondoak ate gainean eta burua apaizaren golkoraino sartzera beharturik. Norantz lerratu behar zuen fenomenoak, baldin konfesorea ere kide bazen, eta baldin, konfesiotik bertatik, ezin hobeto bazekien esku artean zeukanaren joeraren berri, zeinak ere, alderantziz, susmatua izango baitzuen apaizarena?

Auzia ez zen gutxiago nahasgarri bietako bat bakarria gaya izatearen suposizioan, neurez ere ondo esperimentatu nuen moduan. Ustez norbera ez izan arren, aitortzaren iturri direktoak haren izaera gayaren berri zehatza emana zizun gizona edo mutila, ilunpean zure besoetara errenditzera beharturik zetorrena, nola hartu behar zenuen erreparo mingarri bat gabe? Suposizio kezkarri eta konprometitu hori askoz bigunagoa zen, hala ere, bigarren kasu posible eta ez hain

bakana baino, non guztien jakineko edo, behintzat, susmopeko joeradun apaizaren esku artetik berdin pasatu behar baitzuten haren joerakoak ez zirenek ere, umeak eta nerabeak barne.

Nire kasuan, umeen konfesioak humanizatzen zuen apur bat errituaren gozakaitza, nahiz eta neu, umetan, ikara handiz hurreratzen nintzen konfesalekura, sekula ez baitakizu, elizako iluntasun orokorraren barruan, burua gortina artetik sartu ondoko iluntasun total hartan, Don Gregorio ala azkonarra aurkituko duzun, edo Txanogorritxoren otoa. Azkenean, amaitu eta gero ere ez zaude hain ziur ez ote zen izan otoa, Don Gregoriotz mozorrotua, edo azkonarren bat ez ote zegoen apaizaren ondoan. Neurearekin gogoraturik, eta umeekin hartzen zaila ere ez zen konfiantzan bermaturik, haien konfesioak jolas serioago bat besterik ez ziren guretzat. Jainkoak eskertuko zuen lantzean irribarre bat egiteko motibo bat. Zortzi urteko neskato bat sumatzen dut lehiatilan, zutik bertara okertua, belauniko ez baita iristen ukondoan pausalekura.

- Agur, Maria, txit garbia.
- Bekatu gabe sortua.
- Don Jabier! Txakurkume bat nahi al duzu?
- Txakurkume bat zelan?
- Gure txakurrak lau ume egin ditu, eta aitak dio bat ez bestea hila egin behar direla, inork hartzen ez baditu. Abadetxean bi ere sar litezke. Hirurak ere bai, agian. Gero denon artean zainduko ditugu, jolasorduetan eta.
- Ez dago txarto pentsatua, baina merezi du hobeto pentsatzea.
- Arin pentsatu behar da, ze gure aitak aitzurrari behingoan heltzen dio.
- Egun batzuetan ez du hori egingo. Neuk esango diot amari gordetzeko aitzurra aitari.
- Orduan, abadetxera?
- Oraindik ama behar dute baina!
- Haiek ama faltarik ez dute igarriko, begirik ere ez dute zabaltzen eta.
- Baina amaren esnea behar dute. Bat-batean ekarrita, hila egingo zaizkigu. Abadetxean ez dago esnerik.
- Neuk ekarriko dut etxetik.
- Baina begiak zabaldu arte, guk emanda ez dute edango.
- Orduan, gero bai?
- Zeozer asmatuko dugu. Kanpoan berba egingo dugu. Orain esan zeure bekatutxoak.
- Nik ez daukat bekatuik. Horixe esatera etorri naiz.
- Bai neskato fina! Errezatu «Jesukristo neure Jauna», eta nik barkamena barik, bedeinkapena emango dizut.

Lehen jaunartzerako konfesioa, entseguak barne, aurretik izan ohi zen, mutiko zein neskato. Aurpegiz aurpegi hitz egin zenezakeen, erdi ilunetan bazen ere. Lehen jaunartzetik aurrera, ipso facto, neskek andrezkoen aldetik etorri behar zuten, sei urteko haurtxoa bazen ere.

Bezperan aurretik, eta biharamunean albotik, saretxo ondo forratuak bereizirik.

- Agur, Maria, txit garbia!
 - Bekatu gabe sortua.
 - Ez da ezer ikusten. Hor zaude?
 - Erantzun dizut. Ez al duzu entzun?
 - Ez dut ezer ikusten.
 - Nire ahotsa ezagutzen duzu.
 - Beldurtu egiten naiz.
 - Badakizu neu naizela.
 - Ez naiz iristen.
 - Jarri zutik. Zutitu al zara?
 - Bai, jauna.
 - Ukondoak pausalekuan ipini ere bai?
 - Beldurtu egiten naiz.
 - Malentxu! Neu naiz. Don Jabier.
 - Baina ni beldur naiz.
 - Ipuintxo bat kontatuko dizut, zeuri gustatzen zaizuna.
 - Orain ez dut ipuinik nahi.
 - Nahi al duzu aurretik eta...
 - Bai!! –Esaldia amaitzeko astirik ez dit eman.
 - Malentxu, Malentxu! Negarrez al zaude?
 - Ia-ia bai.
 - Ia-ia ala negarrez? Malkoak darizkizu.
 - Negarra ozena izaten da.
 - Isilak ere badira, zure oraingoa bezalakoak.
 - Berba eragiten zenidan, eta ezin nuen negar ozenik egin.
 - Amaitu da! Zerk beldurtu zaitu?
 - Hortik ez da iluna besterik ikusten.
 - Ilunak ez du haginka egiten. Begira! Sartu burua barruratxoago.
- Ez dago beste inor. Neu bakarrik nago. Ikusten?
- Honela, bai.
 - Egingo al dugu beste probatxo bat?
 - Ez, ez, ez! Ni albotik ez!
 - Beno, beeno... lasai, laaaasai... Berton egingo dugu.

Orain barregura ematen du, baina horrelaxe ibili ginen mendeetan.

Apaizok, eskualde edo artzapez-barrutian, hilero bilera bat izaten genuen, «erretiro eguna» zeritzona, arauz obligaziozkoa. Barrutiko komentuetako fraideak ere etor zitezkeen, eta etortzen ziren, nahiz eta ez obligazioz. Egun hartan, teologia sakramentalean autoritate gorentzat zegoen hizlari bat etorri zen, ikasketak Salamankan hasi, Erroman amaitu eta Alemanian osatu zituena. Bere liburuak misiolurretan itzuliak izan ziren, hots, kasik mundu guztian. Gotzainak ere iragarria zuen asistentzia, non, gur- eta men-erakutsi inoiz ez nahikoaren bilaketaz harago, aginduzko dei zorrotzen bat susmatzen baikenuen. Azken orduan, Bilbora ezustean etortzekoa zen espainiar ministro baten harreran egon behar zuela eta, bigarren bikario

diozesiarra bidali zuen ordezkari, lehenengoa bere ondoan behar baitzuen, ministroa ezker-eskuin aldamentzeko.

Espektazio biziz itxarona zen hitzaldiaren gaiak zioen: *Penitentzia, Barkamenaren Sakramentua*. Hizlaria saiatu zen azaltzen, magistralki bezain bihozberaki, penitentziaren sakramentuan, ordain-beharraren alde latza ahaztu gabe, barkamenaren espiritu maitekorra zabaldu behar genuela. Konfesioa, betiko kondenatik libratze gisan baino gehiago, Aita eternoaren besoetara itzultze gisan ulertu behar zela. Entzuleriak emoziorako predisposizio osoz jarraitu zuen azalpenaren ondoren, hizlariak galde-erantzunen txanda ireki zuen, dudak argitzeko asmoz adina -pentsatzen dut gaur-, laudorio handiak etorriko zitzaizkion itzaropenez. Zenbait interbentzioren eta euroi zegozkien erantzunen ondoren, neu ere zutitu nintzen, batzarreko gazteena, eta azaldu nuen:

«Hitzaldiaren espiritu zabalkor, onberaren haritik, eta hizlariak transmititu nahi izan digun eta eskertzen diogun konfiantza-giroaz baliaturik, gaur egungo konfesio-praktikan sortu zaizkidan kezka delikatu batzuk azaldu nahi nituzke, ahalik apalkien, noski, neure ofizioango berritasun oraindik ezjakinaren jakitun. Ez dago azaldu beharrik Elizak zer arrazoi ebidenteengatik ezarria duen andrezkoen konfesioa albotik eta belauniko izatea, saretxo ondo forratuzko leihatilak bereizkuntza zorrozki bermatzen duela, hemen dauden moja beneragarriek ondo jakingo dutenez. Hain argi ez dagoena da zergatik ezar zitekeen gizonezkoena aurretik eta tente, konfesalekuaren espazio doi-doiak kontaktu fisikoa ia nahitaezko egiten duela. Fisikoa edo, zergatik ez, argiro hitz eginda, karnala, gauza jakina baita hain hitz polita bezain grina diabolikoa den *libido* horrek sexu ezberdinak zein berdinak kateatzen dituela, internatu zorrotzetatik pasatu garenek geure haragietan ere ondotoxoa sentitu ahal izan dugun moduan. Gure bizitza komunitarioko sloganik inperatiboena zerbaitegatik izan zen *noli me tangere!* (ez ni uki!). Oraindik haurtzaro inozentean apaizgai sartu ginenoi kostatu zitzaigun debekuaren zentzuaz jabetzea.

Eta hona orain, konfesorearen aldean kokatzea egokitu zaidanean, bekatuen aitortzak berak non aurkiarazi didan zer zabalduzko dagoen gaitza penitenteen artean. Areago oraindik, apaizak ere konfesatzen hasi naizenetik, gure saila ere dezente kutsatua dela ikusi dut. Nire natura bekatari eta zoritxarrez ahulegiarentzat, gaitzetik defendatzeko erraztasun apur bat besterik ez dut eskatzen, trantze horretako intzitzazio etengabearen lekuan. Emakumeekiko grinan badut, gutxienez, kastitate-botoak inprimaturiko kemen erantsi bat, baina beste norabidean, ez daukat neure lotsa torturatzaileraz eta konfesoreen aldetiko ez-ikusi inolidarioaz beste heldulekurik.

Azken aldion, turisten aldetik, batez ere, mahuka motzez konfesatzera lasai-lasai etortzeko ohitura abiatzen hasia da, non haragizko kontaktua, espazio soilagatik ia nahitaezkoa, ezin baituzu saihestu. Ez dago mahuka motzeraino jaitsi beharrik, ez baitakit

oraingo alkandora tergalazko horien mahukak ez ote diren ukitze zuzena bera baino kitzikagarriago. Ahaztu gabe emakumeekiko praktika separatzailea ez dela beste zenbait praktikarekin bategi datorrena, zeren, konfesioaren gurentasunari ezer kendu gabe, berau baino sakramentu handiagoa den eukaristian, apaizaren hatzak lasai kontaktatzen dira jaunartzaile femeninoen mihiekin. Badakizue moralista handiak daudela defendatzen dutenak mihia dela organorik lasziboena, eta hatzak, eragile printzipalak.

Gizonezkoetara itzulirik, badakizue konfesio indibidualaren praktika oso mende berankorretan nagusitu zela Elizan. Garai haietan, hain zuzen, non, San Agustinen eraginez batez ere, pentsamendu platonikoa arrakastatsu baitzebil. Batek baino gehiagok susmatua du, dagoeneko, konfesio katolikoaren kointzidentzia Platonen eta, oro har, urrezko Greziaren homo-harremanen ederrespenarekin, gizonezkoen kasuan behintzat. Izaera hori ederretsi ez ezik, erruz praktikatzen bide zuen Platon *konfesoreak* esan izango zukeen: “Bihoaz emakume inofentsiboak albo ikusezina, eta betoz gizon gordinak besoetara!”. Espiritu horrexekin diseinatua dirudi gure konfesioak.

Neure interbentzioa proposamen tonuan amaitzeko, ez al dago, arimen arteko bereizkeria antidibinoak ezabaturik, denak albotik edo denak aurretik konfesatzerik? Edo espiritu horrek onartua eta praktikaratua izaten denbora sekularra beharko bailuke, eta lehen mende luzeetako konfesio komunitarioa birrezartzeko inspiraziorik nekez itxaron baitaiteke Erromatik, ez al legoke, gutxienez, konfesaleku handiagoak diseinatzerik, bi gizaki, sexukide zein ez-kide, nasai eta arrisku gabe kabitzeoak, ahal dela tximini eta guzti?

Bere izate bekatariak mortifikaturik, hura purifikatzeko eginahalean diharduen arima gaizo honen aitorkizunak ulertuko eta diskrezioz baliatuko dituzuelakoan, eskerrik asko zuen arreta luzearen opariagatik».

Eseri nintzanean, ohartu nintzen buruak bakarrik mugitzen zirela, eztul mota nahiko uniforme lagundurik, norabide halaber nahiko berdinetan. Aurretiko adostasun bat suposatzea zaila zenez gero, sen komun ondo garaturen bati zegokiola pentsatu behar zen. Hizlariak bikarioari eta bikarioak hizlariari begiratzen zion, autoritatearen ala jakintzaren unea ote zen dudak. Artzapezak atze eskuinean pilatua zen moja-talderantz begiratzen zuen, nola jarraitzen zuten han kontu hartuz bezala, bazkaria prestatzera joan beharrean. Buruen lehen mugiera flotantea bezalako baten ondoren, hiruak eta seinaka multzotzen hasi zirenean, neuk ere, ukondoak izterretan eta matrailak ahurretan pausatuz, burua altzorantz gorde nuen, sotanaren botoiak kontatzeko zeregin lehen ere maiz praktikatuari ekiteko. Hartan nenbilela, bileran eurak ere partaide izanak ziren fraideetako batek hots egin zuen:

– Gure komentuan, bazkaria mahaian izateko ordua da, eta beraz, gure komunitateak agurtzen zaituzte. Bego Jainkoaren grazia zuekin.

– Besteok ere jaikitzeke ordua dugula iruditzen zait –esan zuen bikarioak–. Gure teologo berri ausartak planteatu dizkigun auzi mortifikatuei buruz, hitz egingo dut artzapezarekin eta gero gotzainarekin, eta iritsiko zaio behar den erantzuna, behar den lekuan.

Geroztik hainbat urtetara, ia grazioso ematen duena orduan pasarte esplosiboa izan zen. Egia da historiak, batzuetan, jauzi ere egiten duela.

APAIZAK HARATEGIAN

– Ene! Apaizak ere harategira? –hots egin zuten, sartu nintzenean.

– «Haragitegira», baina «okela» bila –zehaztu nuen.

Ez dut uste harrapatu zutenik. Horrexegatik ez ditut maite gehiegi hitz-jokoak. Subtilak badira, ez dira harrapatzen. Argiak badira, ebidentziak dira, eta bitartekorik ez dakit baden. Gizaburuaga herri txikian harategirik ez baitzen, Aulestira jo nuen, eta hemen badirudi, ezagutza hurbilik ezagatik edo, gehiago txokatu zitzaizela.

– Berorri ez al dagokio gehiago hegazia? –jaulki du harakin-andreak irribarre zeharrean.

– Joño! –zurtu naiz naiz neurekiko–. Honek harrapatu dik, antza. –Eta darantzut: –Jakingo duzu hegazti handi samarrei okela gustatzen zaiela. «Beleei», adibidez–. (Apaizak, sotana beltzagatik, «beleak» ziren).

– Uuufi! Berak esan, gainera! Apaiz moderno hauek mundu bitxia ipini behar digutela uste dut.

– Batzuetan –darrait–, besteen pentsamenduari norberak aurea hartzea bezalakorik ez dago.

– Haor, ba! Hor ibiltzen gaitun gu –sartzen da autuan beste emakume bat– geure pekatutxook nola esan asmatu ezinda. Honen aurrean belaunikatzea nahikoa izango dinagu, dena berak jakiteko.

– Ondo baderitzozue, etorri lasai Gizaburuagara, baina apenas ekarriko duzuen han entzunda ez nagoenik.

– Mundua denean baita berdintsua –harakin-andreak.

– Jainkoa bezala, orduan –beste emakumeak.

– Ni Jainkoarekin ederto konpontzen naiz –eransten dut–. Haren beldur bazarete, etorri eta esango dizuet nola den kontua.

– Zelako okela ipiniko diot orduan? –harakin-andreak.

– Ez dakit, ba. Egostekoa, behintzat.

Aulestiko herrian laster zabaldu zen Gizaburuagako apaiz berria okelatan izan zela harategian, eta han joan zela paketea sotanapean-da, pare bat txakur txiki atzetik zaunkaka zituela. Kilikatzen nintzen neure kautan halako uhinak hedatzen zirelako nitaz, baina beldurtzen

ninduen pentsatzeak, hain gauza txikiengatik halako zeresana sortzen bazen, zer izango ote zen, benetan handiak zetozenean.

EZKONTZAKO PROTOKOLOA

Ezkontzak jasotasunez, ia arrandiaz egiteraino aurreraturik zegoen bizimodua. Hirurogeiko hamarkadan, lana ugaltzen hasia zen, eta ni, 1965ean, Gizaburuagara apaiz joan nintzenerako, dirua ere maneiatzen zen bazterretan. Ezkontzak oparoak ziren, ez gutxien apaizarentzat. Hain elizkizun distiratsua eta, itxuraz behintzat, denon aldetik zoriontsua ofiziatzeak samurtzen ninduen, bekaizten ere bai apur bat, hanpatzen ere ez gutxi, ikusiz nola, elizan bezala kanpoan, apaizari halako goitasuna esleitzen zitzaion, inoiz ezkonberrien protagonismoa lausotzeraino. Gutxien itxaroten nuena zen, ezteibazkari jaukal hartan, jantokiko ohore-mahaiko jarlekuen banakuntza txit erritualizatuan, non eta ezkonberrien erdian eserraraziko nindutela.

– Ez, ez, ez! –atera zait barru-barrutik, lotsaz bainoago suminpuntu instintibo batez.

Berehala pentsatu dut nire erreakzioak ez ote dituen iraindu ingurukoak, ezkonberrien gurasoak eta ahaide hurbilak, batez ere. Mesprexutzat hartu ote duten kezka, galdetzen dut tonu apalean:

– Honela al da ohitura?

– Ohitura honelaxe da, inguru honetan behintzat –berretsi didate ezkonberriek.

– Ondo begitantzen al zaizue?

– Guk honelaxe ikusi dugu beti. Gure aldetik, intentziorik onenez izan da.

– Ez daukat dudarik. Nola pentsatuko nuen zuen intentzio txarrik, guztiz alderantziz baizik?

– Bazkaria bizkor joan ohi da –animatu nahi nau neska ezkonberriak–. Gero jendea berehala hasten da mugitzen, eta berori ere nahi duen lekura alda liteke.

– Ez da horregaitik, Maritxu.

Saiatu nintzen azaltzen ni haien artean pozik eta harro egongo nintzela. Gustura ere bai, estutzen baninduten. Baina nola jarri behar nuen haien erdian, neuk banatuz oraintsu neuk batu nuena, aldarean aldarrikatua genuen moduan? Neuk ezarritako «uztarria» nola apurtu behar nuen, lehen okasioan? Kostatu zitzaidan, neure ezuste urdurian, arrazoi ustez konbintzente batzuk harilkatzea. Uztarriaren sinbolo ezagun eta txit popularrak berbaro distenditua eta joria eragin zuen, giroa egunari zegokion umorera itzularaziz.

– Alde batera, arrazoia da, izan ere –dio solasera biltzen hasiak zirenetako batek.

– Eta bestera ez ala? –bere ondokoak.

– Ez zekiat! –hots egin du astunki mutil ezkonberriaren aititak, mahaiaren muturreko kokapenetik–. Makina bat urte zeramaagu munduan, eta alde batetik eta bestetik arrazoia zela dirudiena nola ez diagu inork ikusi, oraintxe arte?

– Gauza bat egingo dugu –diotset ezkonberriei, eta bide batez, ilara guztiari.

Banekien nire auzia beraiek erabakitzea gogor egingo zitzaizela, eta konponbide ustez erraz bat proposatu nuen. Ezkonberriak ondoratu, korritu aulki bat ilara guztian, eta ni aititaren ondoan eseriko nintzen mahaiaren muturrean. Horrela, ni lasaiago egongo nintzen, aitita apaizaren ondoan ez zen kexu izango, eta ezkonberriek ere izango zuten, nahi bazuten, banatzeko denbora. Baina ez lehen egunean, eta gutxiago, apaiz bat bitarteko zela. Halaxe egin zen. Dena ondo eta alai joan zen, eta ohitura mediebal bat atzean geratu zen, inolako karraskadarik gabe.

DONINA

Konfesorik izan ez balitz, ez genukeen gozatzeko aukerarik izango hainbeste ipuin ingenios, batzuetan zorrotz, inoiz korrosibo. Hori guztia kanpotik, konfesioa motibotzat harturik. Zer esan barruan bertan sor zitezkeen kontu bitxiez? Bitxienetakoa konfesalekua abadetxera aldatu beharra izan zen. Neska bati horixe proposatu nion, eta onartu zuen, ez erreparo zenbait gabe. Abadetxeko aretoan, umeak edonoiz zebiltzan sar-irtenean, eta sukaldean hitz egitea proposatu nion. Ondo iruditu zitzaion. Urduri nengoen, eta bera ere baietz suposatu behar da. Sartu ginen eta honelaxe abiatu zen «Platonen dialogo bat» pentsarazi zidana.

– Eseri hementxe, Donina, jauregi itxurarik ez dauka baina.

– Sukalde buñueldar bat dirudi.

– Nahi al duzu freskagarri bat, neskafe bat...

– Askaldu berri naiz. Har lasai berorrek.

– Donina! –hasi nintzen itzulunguruak moztu nahian–. Jende aurrean edo elizan egoki izan liteke, baina hemen, sukalde-zoko batean, «berorika» hitz egitea gogor egiten zait. Trata nazazu zuka, ahal baduzu.

– Barka, jauna, baina honela bat-batean, gogorregi egingo litzaidake.

– Ondo dago! Ez gara huskeria batengatik estutzen hasiko.

Kontua zen banuela harekin astiz eta bakarrean hitz egiteko gogoia, bezperan konfesalekuan esan nionez. Ezertara behartzeko asmo gabe, beti ere. Bazirudien bera ez zela konturatzen, baina haren konfesioak herrian hizpidea ematen hasita zeuden. Jendeak ez zuen ulertzen zeri ekin ahal genion hain denbora luzean, batez ere atzean errenkada bat zain zegoela. Eta, jakina, horrelakoetan, jende bat errimeka da susmorik okerrenak garatzen.

– Otu ere ez zait egin horrelakorik, jauna –jaulkitzen du Doninak, eguzki sortunaren kolorea aurpegiratzen zaiola.

Beldur naiz, eta hori ziur egotea baino larriagoa da, jendearengan deskargatu ditudan «susmo okerrak» neurekiko erreferentzian ulertu ez ote dituen.

– Jendeari otu zaio, ba –berresten dut bere kezka–. Eta neurri bateraino ulergarri ere bada. Zeuk ere pentsa zenezake minutu bat edo biko «pasara», konfesioa gehientzat horixe baita, hamar minutura eta inoiz gehiagora luzatzeak etsigarri izan behar duela atzean zain daudenentzat. Eta aieruak, ba, pentsa. «Zer egiten du neska horrek konfesio amaiezin horietan»?

– Ez zait bururaten zer konponbide izan litekeen.

– Ez daukazu aitorkizunak horrenbeste xehetu beharrik, bekatua izendatu eta aurrera baizik.

Bere era «luzea» ez zen, nonbait, berak asmatua. Berez, labur kontatzen hasi zen, baina galderak eta galderak egiten zizkioten, bekatuak, ondo barkatuak izateko, ondo azalduak izan behar zutela eta. Bai baitziren halako konfesioak ere. Azkenean, halaxe ohitu zen, eta zelanbait esateko, gustua hartu zion bestela sufrikario bat izan ohi zenari.

– Donina! Nik ez dut horrelako zehaztasunik behar. Izatekotan, alderantziz.

– Baina ni ezin naz lasai gelditu, «mutilarekin halako zerak egin» esanda bakarrik.

– Zer pentsatuko luke zure mutilak horrelako xehetasun intimoak apaizen belarri estuetan dabiltzala baleki?

– Nik ez daukat mutilik, jauna.

– Mutilik ez? Orduan zer da kontatzen duzuna?

– Pentsakizunak ez al dira berdin bekatu?

Elefantekumea tronpatik zintzilik baino galduago utzi ninduen. Hain noraezik aurkitu nintzen auziak kolpera hartu zuen norabidean ezen lehenen pentsatu nuena, edo nire barruko domingiloren batek pentsatu zuena, izan baitzen: «Neu hartzen ote nau honek bere fantasien objektutzat?». Domingiloa bere zulora bidali eta elkarrizketari jarraipen bare bat ematen saiatuz, diot:

– Ez daukazu konfesio bakoitzean den-dena zehaztu beharrik. Behin entzun badut, aurrerantzean nahikoa duzu «horixe» esatea, nik «horixe guztia» ulertu dezadan.

Ez zegoen erarik ikusmolde horretara makur zedin. Eulia amaraunean bezala sentitzen nintzen, harrapatua. Eta jareinbiderik ezin aurkituz, esan zuenean beti ez zela mutil bera izaten pentsamenduan zebilena. Orduan, kasua ezberdina izanik, xehetasunak ere ezberdinak ziren eta, beraz, konfesioan azaldu beharrekoak.

Alferrik saiatu nintzen azaltzen ezberdintasun horiek, obligazio bat baino gehiago, zorte bat zirela.

– Donina! Espiral horrek zoroetxeko atean ipini zaitzake.

– Edo infernukoan. Berorrek laxo dakusa kontua, baina ni larri nabil, jauna.

– Zer nahi duzu? Neu larritzea? Zeren, mutilik ez baduzu, neugan ere pentsatzen duzula pentsa nezake.

– Egia aitortzeko, nire pentsakizunak berorrekin ere katigatzen dira.

– Hara! Horixe behar nuen espirala neure gainean sentitzeko.

– Ene Jainko errukior! Ustelduta nago! –auhen egiten zuen erdi negarrez.

– Mesedez, Donina! Ez eidazu negarrik egin, ankertzat gelditu ez nadin. Proba bat egingo dugu. Hurrengo konfesatzera zatozenean, zuk esan «horixe, jauna», nik erantzun «ederto! aurrera!», eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Behingoagatik, infernua ez da handituko.

– Ez dakit gauza izango naizen, jauna.

Gehiago ez zen niregana etorri. Pena hartu nuen harremana moztu zelako. Eta berriz ikusi nuen zer zaila zen, batzuetan, kontzientziak askatzea.

HITZAK ETA PENTSAMENA

Eragile-ondorioen jatorrizko ordena nolana hikoia zela, badirudi hizkuntza eta pentsamena korrelazio banaezinean gertatzen direla. Arau orokorra eta kasu partikularra neugan biltzeko fenomenora iritsi naizenean, argi dago hitzik gabe ez dakidala pentsatzen. Eta pentsatu gabe, agian, ez nekike sentitzen ere. Nola eutsi behar diet hitzei, norekin hitz egin ez badut? Hala behar duela sumatzen dudana moduan, hitzak ahanzten has banadi, hizkuntza ere joaten hasiko zait. Hizkuntza joan badakit, pentsatzeko ahalmena joango. Horrek ez ninduke hainbeste larrituko, beldur ez banintz, ziur ez banengo, pentsamenarekin batera, kontzientzia joango zaidala. «Eta zer?», dioste eurek ni inguratzeaz zoriontzen diren eta ni eurek inguratua izateaz zoriontzen naizen animaliek. Eskerrik asko, bizikide laztanok, baina neure buruaren oharmena galtzen badut, alferrik izango naiz zoriontsu. Hizketan ahantz badakit, ezabatua da kontzientzia. Halaber, gozamen kontzientea. Halaber, gozamena bera. Ez al da larritzekoa?

BARBARAREN KONFESIOA

Konfesioko sarrera-hitzak eta aitorkizunak irristan pasatuz, arnasan ere pasioaren aztoramena igartzen zitzaion. Eliza ilun bateko konfesaleku ilunago batean, biok bakarrik geunden, egoera horixe bilatzen baitzuen Barbarak, nahi beste denbora edukitzeko, lasai eta destorbu gabe. Neuk ere ez nion batere hitz-trabarrik jarri, nahi zuen tokira lehenbailehen irits zedin.

- Gari zelan? Ezer aipatu al zion berorri? –galdetzen dit urduri.
- Neska jatorra zarela esan zidan.
- Jatorra bakarrik?
- Jatorra izatea ez da gutxi, e!
- Bere aldetik ez al zuen halako «zerik» halakotu?
- Mutilak badakizu horretan nahiko zokorrak izaten direla, leloak ez esatearren.
- Urduri egon al zen?
- Gari mundu handiko mutila da, baina, bihotz kontuetan, oraindik nahiko infantila, sasoi horretako mutil gehienak lez.
- Neskagun finkorik ba al dauka?
- Ez dut uste, baina ezin dizut ziur esan, neuri ere ez dit den-dena kontatzen eta.
- Hurrengo noiz etorriko denik ez al zion aipatu berorri?
- Egunk ez genuen izendatu, baina «laster arte» esanda banandu ginen.
- Hurrengo datorrenean, jakinaraziko dit, ezta?
- Bai, Barbara. Nire aldetik, ez duzu hutsik izango.
- Ai, Don Jabier! Ez daki zenbat eskertzen dudan berorren borondatea!
- Orain, ondo baderitzozu, amaitu egingo dugu. Penitentziatzat erreza ezazu... nahi duzuna. Amen!

Elkarrizketa askoz luzeago izan zen, jakina. Neuk erabaki ez banu, haren galderak eta xehetasun eskeak ez ziren amaituko. Hurrengo konfesioan, berriz ere gai bera. Eta berriz ere eliza guztia hutsik eta ilun, Barbarak zirkunstantzia horixe nahi baitzuen, nahi beste denbora edukitzeko. Eliza hutsik, eta bera eta ni, konfesalekuak irentsiak.

- Bai? Hori esan al zuen?
- Esan-esan, ez zuen esan, baina badakizu mutilak zer dorpeak diren euren sentierak azaltzen.
- Ai, jauna! Ez dakit zelan eskertu berorren laguntasuna.

Denbora aurrera zihoan, edo generaman, Barbarak intentsoki, nik jakin-minez. Harik eta susmo kezagarri bat, arbitrariotzat baztertzen saiatu nintzena, zitzaka hasi zitzaidan arte. Nire penitentea bere maiteagana iristeko helburuak baino gehiago ez ote zuen seduzitzen mezuen joan-etorriak berak? Iruditu zitzaidan egoerari gustua hartu ziola. Eta bitartekari-lanak gutxitzen ez zirenez, eta Barbararen jorana ere ematen ez zenez, eta haren niganako konfiantzatik neuk ere berarekin berdin izatea onartuko zuela suposatzen nuenez, behin esan nion, edo eskapatu zitzaidan:

- Aizu, Barbara! Ba al dakizu zer pentsatzen dihardudan?
- Zer, jauna, zer?
- Ba, niri honenbeste zeregin ematekotan, kasik hobe zela neurekin maitemindu bazina.
- Berorrekin maitemintzea posible al da?

– Lasai, Barbara! Esan-modu bat izan da. Freskura bat, nahi baduzu.

– Hori niretzat ez da freskura bat. Ni berorrekin maitemindu izan banintz, berorrek zer egingo zuen?

– Oraintxe egiten dudana gutxi gorabehera, baina atzera-aurrera gutxiagoz. Esan izan dizut zure Garirekikoa ezinezko ikusten dudala. Nirekin ere, berdin esan izango nizun, baina, behintzat, alde biak zuzenean ulertuko ginateke. Orain, batzuetan ez dut jakiten faltan ala traban nagoen.

– Ai, Don Jabier! Traban ez! Hain gutxi, hori posible bada.

– Erabaki ezazu lehenbailehen, ze, bestela, hementxe zorabiatuko gara.

Historia ez zen askorik luzatu, luzatu zena gozoa izan bazen ere. Gozoa edo ... «Kasu bat», oraintxe ere sinestea kostatzen zaidana. Nik laster amaitu nuen kartzelan, eta Barbarak eta Garik ez nuen entzun ezertan aurrera egin zutenik. Zubia erortzean, urertzak aldendu ziren, antza. Inoiz, kezka jo izan nau ezen, auzia beste aukera baterantz bideratu izan banu, neuganantz alegia, seguruenik arrakasta izango zela. Bego bertan, zeren, bataila galduak gutxi ez direla, posibleak ere gain-hartzea zama handiegia bailitzateke.

¡SAQUE LA DOCUMENTACIÓN!

Lantzean leku batean afaltzera gonbidatzen ninduten, eta onartzea ez zitzaidan kostatzen, ez hainbeste neure etxean, abadetxean, inor nire zain ez zegoelako, baizik abadeok inon traban ez sentitzeko inkontzientzia kasik genitala genuelako. Inoiz, agurtzekoak agurturik, denbora azkarregi igaro izanaren penaz, ilargiak nire Lambretta gorriari Karraspioko hondartzarantz tiratzen zion, neure deitate Lekeitio itsasoarekin maita nezan, giza gerizen absentzia totalean. Egunsentiari ere itxaron izango niokeen, bueltan guardia zibilaren kuartel aurretik pasatu beharra izan ez balitz. Behin majo damutu zitzaidan ateko guardia erdi uzkuruari, gauez hormarekin kolore bakarra egiten zuenari, hiru turutada jotzea, tru-tru-tru. Atzetik jarraitu eta Oletan harrapatu ninduten.

– ¿Usted no sabe que no se puede bocinear delante del cuartel?

– Nire asmoa ez da izan inor asaldatzea, jauna.

– ¿Y sí vacilar al guardia de la puerta?

– Ate horretan, gauez, inor ez da ikusten.

– Entonces, ¿quería usted vacilar a todo el cuartel? ¡Saque la documentación!

– Poltsa zahar hau arakatzean, beldur naiz berriro ez ote duzuen tru-tru-tru entzun beharko.

– ¿Acaso lleva usted la bocina en la documentación?

– Giltza manillarretik askatuta dago, eta dingiliz ez erabiltzearren, poltsan daramat. Haizeak zabaltzen didan sotana biltzeko, belaunak

estutzean, turuta erdian harrapatzen dut, eta hau beti dago jotzeko prest.

– ¿No sabe usted de algún garaje donde le puedan solucionar el embrollo?

– Ez daukagu oso soldata luzea, jauna, zuena ere izango ez den beldur naizen bezala.

– Ahí tiene usted razón. ¡Quién me hubiera dicho que escucharía una buena verdad de boca de un cura rebelde!

– Egia errebeldea baita.

– La verdad es un orden cuya servidumbre nos encumbra.

– Olatu bat, beste bati darraiona.

– Que garantiza sosiego y genera prosperidad.

– Iraganaren bihurtze permanentea.

– Imagen de Dios en unidad y grandeza.

– Zapalkuntzatik askapen gutxienez morala.

– La revolución permanentemente terminada.

– Kontzientzia bat, ahalegin indibidual txikiekin harri handiak mugitzekoa.

– Defensa contra un mundo emperrado en corromperse.

– Gertatuko denaren edo litekeenaren poz aurreratua.

– Lo que unió la guerra no lo separe la paz.

– Egiak izan lezake aurpegi bakarria, baina aurpegiak zahartu egiten dira.

– Siendo el Pueblo Vasco tan antiguo como dicen, ¿por qué porfían ustedes en prolongar su vejez?

– Espainia hain handia izanik, zergatik tematzen ote dira bertan ezin kabitzen?

– Creo que nos entendemos, ¿verdad?

– Intelligentia, pauca.

– Tenga su documentación y continúe.

– Eskerrik asko, baina ez betirako.

LUKREZIO

Tito Lukrezio Karok gonbidatu nauenean, ez dut dudarik izan solasgune ospetsu honetara asistitzeko, Atenasko Pathos hariztiko zelai biribilean. Zirkuluan eserita, dena belarri bainoago begi naiz lehenengotan, ezin sinetsiz bere ingurura bildu garela suposatzen den Sokrates hori ez dela irudimenean nekarren gizaseme iletsu, bizartsu, eskultural hura, baizik Jose Migel Barandiaranen antzeko gizontxo bat, betaurreko gabe eta, sotana orde, berna erdirainoko tunika grisberdexka batekin, belarrarekiko kamaleoi-efektua ez bada. Burua, matrailetatik gorantz, nabarmenki estutzen zaio, errematea kasik gailur eran eginez, jaiotzako opresio akzidentalaren baten ondorioz, seguruenik.

Gauza anekdotikoak kontatzean, astiro eta patxadaz hitz egiten du, esaterako: «Nik ez dut u-rik e-da-ten. Nik es-ne-a e-da-ten dut». Gero, eztabaida gaietan, geroz bizkorrago ekiten dio, etxera joateko presa

balu bezala. Hori ez da inoiz gertatzen, bera gelditzen baita beti azken. Batzuetan, etxerik baduen ere dudan gelditzen naiz, beti norabide ezberdinerantz agurtzen baita, inorantz erreferentzia finkorik ez balu bezala. Zaila baita pentsatzea Atenas guztia berea dela. Gehien harritu nauena, hala ere, bere txilibitu-ahotsa da, itxura fisikoarekin bat datorrena, noski, baina ezin da aurre-uste guztien aurkako inpresio orokor koherente bat kolpe bakarrean jaso. Dozena bat laguneko zirkuluan, Lukreziok, diskrezioz, lantzean informazio bat damait:

- Hori Platon duk. Beste hori, Teles.
- Tales esan nahiko duzu.
- Teles esan diat.
- Aristos?
- Bera. Orain heldu dena, Fanes.
- Hori ere Aristos?
- Biak Aristos. Teles eta Fanes.

Platonek gizaseme mardula dirudi, guria eta apatza, buru borobilaren goialde garbiro soilduarekin, eta arrats gorritik harako ilargi apur bat ukendatuaren kolore melankolikoz. Kolore hori beltzaranduz gero, Marcel Prousten monsieur de Charlus-en antzekoa esango nuke, baina konparazioa ez da fidagarria, lehenago Charlus bera irudikatu bainuen Platonen antzeko. Txinpantze erara eserita gauden zirkuluak iluntzeko eguzki erortunaren gorritasun ahuldua hartzen du, Troiatik ekarria omen den haritz izugarriri kapelatsuen kontrara. Sokrates Maisuak gidaturiko galde-erantzunen beroketa ondoren, elkarrizketa akademikoa abiatzen da.

- Platon: Naturak ez zuen ondo egin, ugaltze-grina eta eros-grina aparte garatuz. Badirudi ugalketa zigortzat ezarri digula.
- Maisu: Natura kuestionatzea ergelkeria da. Planteatu duzun korapilo hori saia zaitez, biharko, askaturik ekartzen.
- Teles: Fisia eta metafisia kontrako izatea kontradikzio itxurazkoa besterik ez da.
- Lukrezio: Fikzio horietan hasten bazarete, ni banoa etxera.
- Maisu: «Eguzkia joan da bere amagana. Bihar etorriko naz denpora ona bada».

Bueltan, Lukreziorekin elkarrizketa labur bat izan dut.

- Ni: Platonek aipatzen zuen «ideien mundu erreal» horrek zer esan nahi du?
- Lukrezio: Hori despistatzeko duk.
- Ni: Despistatu, nor edo zer?
- Lukrezio: Gauza ulertezinen aurrean, pentsalarien joera innatoa duk esplikazio ulertezinagoak taxutzea.

ZIRKULU ZORAGARRIA

Nire zirkulu gozokien gogoratuak haurtzaro eta nerabezarokoek izaten darraite. Zergatik gozoen, pentsatu beharko nuke. Zergatik gogoratuen, ez da hain zaila. Bizkargiko Santakurtz eguna, edo Oizko San Kristobal, adibidez. Herriko letanian edo «erromerian» bazen ere, independente joatea gustatzen zitzaidan neure maletatxoarekin, gero eguerdian denak, euren zamauak lurrean zabalduz, taldeka esertzen zirenean, askatasuna izan nezan hara-hona ikusmiran ibiltzeko. Ibiltzeko, edo gustuko talde batean abegitua izateko. Neure otartekoa jan eta neure limonada edandakoan, zelaian zehar norabait joateko plantan, kuadrilen ingurutik pasatzen nintzen. Batzuek, jabetasun gabe nenbilerakoan-edo, jana eskaintzen zidaten.

- Hi, mutiko! Eutso kopautxo bat –batean.
- Platano bat gura duk? Laranja bat? –beste batean.
- Hi nongoa haiz?
- Torreburukoa.

Janari ezetz niotsan, nahiz eta platanoak tentatzen ninduen. Zeren bila nenbilen? Gogoratzen naizenetik, ez dut uste neuk ere argi neukanik, ohartuki behintzat, nahiz eta derrigor izan behar zuen desio instintiboren bat. Bertatik ikuspegi osoa zegoen tontorgune batean, hogeit hamar laguneko korruan, tarterak batzen eta postreak zabaltzen ari ziren, mahatsa, platanoak eta etxean egindako pastelak.

- Mahats-morda bat gura duk? –Andre eskaintzailea ezagutzen nuen, eta taldeko beste batzuk ere bai, Etxanokoak ez izan arren.
- Bazkalduta nago –erantzun nuen, baina ez nuen alde egiten.
- Bakarrik etorri haiz?
- Amarekin etorri naz, baina eguerdirako itzuli egin behar izan du.
- Eser hadi hementxe gurekin, pastel zatitxo bat jateko.

Andrearen tarte bat egin eta, besotik oraturik, bere eta bere alaba izan zitekeenaren erdian jarri ninduen. Korru guztiak berriketa animosoan ziharduen. Nik mahatsari eta pastelari inbidia handia nien, baina gehien estimatu nuena agindua bera izan zen: «Eser hadi hementxe gurekin». Zirkulu zoragarria. Denerik zegoen, gizon, andre, neska, mutil, txakur... Umerik ez zegoen, eta nik halaxe nahiago, bestela, noiznahi etorriko baitzen beste agindu bat, muturrak garbiarazita: «Ale! Zuek segi orain jolasera». Nik hantxe egon nahi nuen, dena ikusiz, dena entzunez, lantzean korrukide baten buru-igurtziak hartuz («hau duk hau mutikoa!»), zerbait hartzera zutitzen zenean. Ia erromeria guztietan aurkitzen nuen zirkulu gogoko bat, ezezka-ezezka, selekzio luzea burutu ondoren. Igarri egiten zidatela uste dut, umeez aurpegiaren daramaten arima ez beti egiazkoari jarraituz. Nire kasuan, egia zen erromeria amesgarri haietako ilusio nagusia (aurpegiak, historiak, tokiak, intrigak), ondorengo egunetan nire pentsaketa gehien okupatuko zuena, halakoxe zirkulu batean hartua izatea zela. Neugan hasi eta amaitzeko apropos sortua zirudien zirkulu mitologikoa.

ANIMALIEN MUSIKA

Animaliak ingurutik ezin kendu. Proba dezadan beste metodo bat, itsasotik urruntzean, beti aldean daramadana: korneta atonala, launa desakorde tonaleko serie laukoitza jotzeko diseinatua. Estridentzia birziklaezinen tarratada bat. Fragmentu bat izan zitekeena bezalakoa, musika halako uneraino eboluzionatu zenean non esan baitzuten: «Ongi! Heldu gara gaizkiago egiterik ez dagoen puntura». Aitortza larrutuegia iruditurik, era literarioan aldarrikatzea pentsatu zuten: «Hainbeste aurreratu ginen non, itzuli beharra gertatu zenean, bidea ezabatua baitzen». Kornetaldiaren aurretik, beti ere, preludio eszenikoa bezalako saiakera leunago bat abiarazi ohi dut, zeinak huts egin baleza, musikara joko dudana, B plan bortitzagora bezala.

– Zer, lagunak? –diotset animaliei–. Txarto zein ondo, aurpegikera berdina? Ea honi zer deritzozen.

Atera dut korneta, kanpo-zuria eta barru-horia, bietatik distiratsua, eguzkiak orain bezala ematen dionean. Egun lainotsuan koloreek alde egiten diote, zurezkoa bailitza. Animalia guztiek begiratzen didate magia baten zain bezala. Stravinskyren solo bat itxaroten bezala. «Hasiko nauk?». Matrailak haizatu ditut, bakoitzean apo bana kukuturik bezala, paparra hanpatu dut, zahagia bailitza, banoa indar osoz putz egitera, inor ez da izutu, magiaren zain, eta hor doaz desakorde tonalak. Neuk eraginak direla ez baneki, musikaren kolikoa esango nuke. Mugitu dira, bai, su zirkular bati erditik haizeak eraso balio bezala, nahiz eta mugimenduak ez dirudien hain biolentoa. Elkar oztopatze soil bat. Animalion garun amorala ez da eboluzionatu elkar zapaltzeari gustu hartzeraino. Bilkura osatu den bezain jaiton barreiatu da, nahiz eta era naturalagoan, eta bideari jarraitzea besterik ez daukat. Noranzkoa martxan erabakiko dut, beti bezala. Hots, beste era bat izaterik ez dudana eran.

FULDAIN

Fuldain izeneko alkate frankistari, beste guztiak bezain egun entregatu bateko iluntze batean, gutun bat heldu zaio, berak hain maite duen egoitzako idazpuruarekin. Gutunazala, emozioz irekitzea lortu ondoren, irakurtzen du:

Mugimenduaren eta Falangearen Bizkaiko Ordezkaritza Probintziala
Bilbao, 1968ko Maiatzaren 13a
Fulminio Dartañaga Inkamendi

Jaun eta kide agurgarri hori:

Zure zerbitzu eta kausara entregu sutsua behar adina inoiz eskertzerik eta goraipterik ez genukeela aitortu ondoren, oharrok guk bidaltzean bezain gogorik sanoenez hartuko dituzula itxaroten dugu. Informatzaile gutarren aldetik, berriak jaso ditugu herriko apaiz batekin etsaigo handi samarrean zabiltzala, jende guztiaren jakinean. Badakigu Don Kausino delako hori ez dela harribitxi bat, baina ez dirudi arerio arriskutsua ere. Gure Mugimendu noblearen aliatu nagusia Eliza dela jakinik, gure ordezkariak ahalegin berezia egin behar dute apaizekin eta, oro har, elizgizon guztiaren ahalik ondoen konpontzen, bai gure printzipio organikoak herriaren begietan erakarkor garatzeko, bai arriskutsuegia izan litekeen estamentu bat arerio ez bihurtzeko. Tinko eta bortitz jokatu behar da, noski, baina gure Mugimendu nobleak horretarako daukan antolakuntza banatuaren eta mailakatuaren barruan. Zure karguari dagokionez –Mugimendu eta Falangearen Eskualdeko Ordezkarik–, zure eginkizuna ez da hainbeste justizia zeure esku hartzea eta tirabirak sortzea, nola ahalik informazio gehien jaso eta igotzea, era bikainean egiten ari zaren bezala, gero dagozkien agintariak eta gure beste eragile efektiboak esku har dezaten.

Oharpen hau onez hartuko duzulakoan, eta betetzen saiatuko zarela, har ezazu gure ondohirik anaikor eta benetakoena.

¡Viva Franco! ¡Arriba España! El Ilustrísimo Delegado Provincial del Movimiento y Falange de Vizcaya, Don Higinio Bocabajo Tejerino.

Horrelakoxe gutuna iritsi zitzaion Bizkaiko Lea Ibarreko alkate bati. Nork bidalita? Gutunak argi dio. Baina ez zen horrela izan. Herriko apaiza bera izan zen, Don Kausino, era bitxian eskuratua zuen zigilu ofizial eta guzti. Artean, alkatearekin beti gatazkan baitzebilien, azpikeria horrekin lortu zuen agintaria erabat apaltzea. Alkatea mantsotu zen, bai. Apaizaren oin-garbitzailea zirudien.

Apaiza aspertu zen Euskal Herrian, bere apaiz-lagun bati konfesatu zionez: «Arerioak amaitu zaizkit». Eta Ameriketara joan zen. Alkatea, handik urteetara, jokaldiaren ezjakinean hilko zen. Hemen izenak aldatuak daude, baina apaiza nire aurretik Gizaburuagan egon zirenetako bat izan zen, eta Fuldain jaunak, nire apaiz garaian, berak jarraitzen zuen alkate. Alkatearen eta Don Kausinoren arteko gatazkaren motiboak ez ziren izan inondik ere politikoak. Nire garaian izan ziren batzuk, baina ez ginen gaizki konpondu. Alkatea ondo ikasita zegoen apaizekin nola moldatu, edo nola saihestu. Herriko jaien aurretik, adibidez, Errioxara alde egiten zuen, denboraldi baterako.

HAU EZIN DUT SINATU

Goiz hartan, abadetxea bereziki garbi zegoen, bisita solemnea itxaroten baitzen. Eskualdeko gotzain-ordezkariak, artzapezak, pare bat laguntzaile kanonikoz inguraturik, erregistro-liburuen urteko sinatze arauzkoa formalizatu behar zuen. Jaiotzak, heriotzak eta ezkontzak. Atarian itxaron nien, ni ere neure lekuaren jabe. Elkarri bostekoak emanik, barrurakoan apaiz-kapelu beltzak erantzi zituzten, etxea buruen aski babes bailitzan. Mahai gainean jada zabalik zeuden hiru liburu astunen gainera makurtu zenean, artzapezak eskuan luze zekarren urre koloreko idazluma airean gelditu zitzaion, noraezean, eskolan paperezko hegazkintxoak gelditzen zitzaigunean bezala, maisua begira zegoela sumatzean.

- Baina... –hots egin zuen, perplexutasunaren terminoak ezin lotuz–. Hau euskaraz dago!
- Bataioak, hiletak eta ezkontzak ofiziatu izan diren moduan.
- Eskatu al diozu gotzainari araudia hausteko baimenik?
- Ez dut pentsatu ezer hausten nuenik. Sakramentua euskaraz duinki eta balioz ospatua izan bazen, bidezkoa zen erregistroa hizkuntza berean egitea.
- Aurreko erregistroak ez al dituzu gaztelaniaz ikusi?
- Horiek sakramentuak latinez zirenekoak dira. Orain, elizkizun oro ama-hizkuntzan egitea onartua denean, bidezko da erregistroak araberako izatea.
- Nik ezin dut hau sinatu.
- Jainkoak sinatuko luke.
- Erregistroak ez dira Jainkoarentzat idazten, munduko beharkizunetarako baizik.
- Nork esan du euskarak ezin diela erantzun munduko beharkizunei?
- Ezin dut eztabaidan jarraitu. Bidaliko dut txosten bat gotzaindegira, eta izango duzu beharreko oharpena.
- Neuk ere azalduko diot herriari zure jokaera, eta izango duzu beharreko epaia. Eta zuek –laguntzaileei–, sinaketaren lekuko etorri zareten era berean, ukoaren lekuko ere egingo duzuela itxaroten dut.

Laguntzaileak ahalik hitz gutxien egiten saiatu ziren, etxearen arkitekturari buruzko iruzkin distraktibo batzuetatik aparte. Adeitsu eta paternal sartua zen artzapeza, gizaseme ohartuki lerdan eta lerdan zaindua, serio eta apur bat desitxuran irten zen, pasillo estuaren alboei sorbaldaka bezala. Kanpoko aireak eta argitasunak berreskuratzen lagundu zioten gailentasun hierarkikoarekin, taxian sartzea estimatu zuela iruditu zitzaidan.

APAIZA ETA MAISTRA

Munitibarreranzko arro estuan, zerua zuriskatu zen, larriturik bezala. Gerrikaitzen gora, Galarragarantz hartu nuenean, bihurgune itxi-itxi batetik irteeran, neska bat stop seinalean aurkitu nuen. Stop egiten zidan lehen neska. Sotanaz nenbilenean, inor ez zen horretara ausartzen.

– Kaixo! Nora zoaz? –galdetu nion tentelki, neure ezustea kokatzeko astia atera guran.

– Ganbera.

– Tiradatxoa dago.

– Horrexegatik, hain zuzen.

– Uste dut aurretik gauza bat jakinarazi behar dizudala. Ni abadea naiz. Ganben eta inguru honetan ondo ezagutzen naute. Neurez ez daukat eragozpenik, baina, beharbada, zuk gurago izan zenezake abade batekin motorrean ikusia ez izatea.

– Ni maistra naiz, Ganbeko eskolan. Badakite nondik eta nola etortzen naizen, eta ez dut uste inork txarrik pentsatuko duenik. Baldin berorrenzat konpromisoa ez bada.

– Igo lasai. Hau ere beste eskola-mota bat izan daiteke.

Pare bat kilometroko bidea genuen.

– Abadea naizela esan dizut, baina ez nongoa. Gizaburuaga eta Amоротoko abadea naiz.

– Ni Gernikakoa naiz.

– Egunero ez duzu izango baten bat aurkitzeko zortea.

– Astea Ganben bertan igarotzen dut. Astelehenetako kontua bakarrik izaten da.

– Astelehenero pasatu beharko naiz, beraz.

– Orduantxe bai sortuko litzateke esamesa.

– Hori neuri ere ez zait komeni. Esamesak baino kontu garrantzitsuagoak dauzkagu garaiotan, zeuk ere izango dituzun moduan.

– Batzuk baditut, bai. Zortea opa diot berorri.

– «Dizut», mesedez. Gehiago elkar ikustea inprobablea denez gero, gera bedi gaurkoa pertsona soil biren topaketa gogoragarri bat bezala.

– Eskerrik asko!

Halaxe izan zen. Gehiago ez dugu elkar ikusi. Haren oroimenean zer gelditu zen pozik jakingo nuke, baina ez naiz saiatu. Bera ere ez, nahi izanez gero, erraza izango zuen baina. Episodio gehienak bakoitzaren oroimenean daude ondoen.

JAN PASTELA

Seminarioko musika-arduradunak, udako opor aurreko astean, deitu eta diost: «Hain herritako apaiza etorri zait esanez kantari bat nahi lukeela meza nagusirako, bere elizako zaindari-egunean. Zuregan pentsatu dut. Joango al zinateke?». Baietz erantzun nuen, neure kautan pozak zorutzen. Apaizgai batentzat, hain mundu-aukera urria zegoen mendi-baserri batetik halako herri batean egun-pasa distiratsu bat edukitzera, jauzi mirarizkoa zegoen. Meza nagusi bat, eliza bete-betea. Apaizak oso txeratsu hartu ondoren, bakarlari gonbidatu gisan aurkeztu ninduen dozena bat neskak osatzen zuten koruari. Neska batzuk neure adineko, zaharragoak ere gazte oraindik, euren artean mutil bakar ni, hain hur, hain ondo hartua, emozioz urtzear nengoen. Meza kantatuan zehar, hiru bider egin nuen bakarlari, elizkizun hartako nobedade nagusi bihurtuz. Meza ondoren, herritarrak «nor da mutil hori?» galdezka, neuri ere «nongoa zara?», apaizak harro aurkezten ninduen denei, berak fitxatutako figura moduan.

Gero koruarentzat, neu ere tarteko, hamaiketako berezia prestatua zen jatetxe ospetsu batean. Berba ere lasai egiteko moduan ginen. Neska nagusiek karinoz tratatzen ninduten, jabeturik bezala laguntza behar nuela halako lagunartean egoteko. Gazte-gazteek ez zuten berba askorik egiten, bai arretaz begiratzen. Haiek ere apaizgai bat ondoan inoiz eduki gabeak, seguruenik. Zazpigarren egoitzatik goragoko liluran nenbilen, hainbesteko poza bekatuzkoa izango ez ote zen kezkaraino. Apaizgaiok ezin ginen neskengana hurbildu, eta bat-batean, han nengoen mutil bakar, neska-talde baten erdi-erdian.

Ordu biak aldera, bazkari jaukala jatetxe berean, apaizaren mahaian. Han ere dena dena zen hitz gozo eta txeratsu, jatetxeko guztien aldetik. Bazkal ondoren, apaizak diost: «Goazen abadetxera». Pentsatu nuen: «Zerbait ordaindu nahi ote dit?». Orduan dirua, bere urriagatik, nire irrika handienetakoa baitzen. Sukaldeko mahai gainean, pastel eder bat zabaldu zuen. «Zeuretzat apropos agindua». Zati bat ebaki zidan, eseri nintzen, eta jaten hasi nintzenean, fereka batzuk nabari nituen buruan, garondoan, «jan pastela» entzuten nuela. Saiatu nintzen apur bat neure aulkian horma kontrara saihesten, baina ezin ausartu mugimendu nabarmenik egiten. Konfiantza hartu zuenean, hartu egin baitzuen nik eman gabe, aitortza intimoak egiten hasi zitzaidan.

– Zer politak diren gure neskak, ezta, Jabitxu? Zelako zoramena izan behar duen emakume bati honelako ferekak egitea! Gure haragiak haragi baitirau botoekin ere. Berezko sentimenduak dira, ez duzu uste? Gure Jainkoak hori guztia ulertzen du. Baita barkatzen ere. Ez al duzu horrela sentitzen, Jabitxu?

Bero handia egiten zuen. «Sotana erantz dezadan ez dizu ardura izango, ezta, Jabitxu?». Nola esan baietz, bere etxean bazegoen? Zer figura modu ikusiko ote nuen arranguraz, txunditu nintzen, hark

sotana erantzten, bainu-jantzi urdin, distiratsu, estu-estu bat agertu zenean. Berezko guritasunak iradoki zezakeen baino gorputz beltzaranagoa zeukan, hondartzan-edo maiz ibiliaren seinale. Bel-beltza ere bai papar, sorbalda eta bizkar-erreten bilotsuan behera. «Zeuk ere erantzi alkandora lasai, Jabitxu. Etxean gaude». Obeditzea bidezko zen, kontraste ridikulua baitzen Jainkoaren ordezkari gurgarria bainu-jantzian, eta mutil zapo bat jantzitasun piadosoan.

Pastel gozoa mahaian, zatiak ebakiz, «jan beldur gabe» agintzen zidan, gero eta igurtzi estuagoak eta osoagoak eginez, ia gorputz guztian. Sotana behar zen tokian esekitzeko aitzakian, dio: «Jabitxu! Zatoz hona, non lo egiten dudan ikustera». «Jabitxu» horren ez-titasunak ondoez handia eragiten zidan. Lau ateko armairu gaztainazko baten bi ate irekirik, sotanapean erabiltzeko zela pentsatuko nukeen baino arropa-ilara oparoago eta eleganteagoari ukituak egiten hasi zen, sotana non eseki pentsatuz. «Eseri hortxe, ohe gainean». Zorurainoko ohazal zuri labainaren gainean toalla handi urdin bat zabal-zabal zegoen. Eseri nintzen. Armairua itxi eta ondoan eseri zitzaidan.

– Hementxe bizi naiz ni, Jabitxu. Hementxe sentitzen dut apaizen bakardade mingotsa. Ez zaizu axola eskutik heltzea, ezta?

Ezeta ulertu zuen eta, nire eskugaina ferekatuz, muin damait bertan, gotzainaren eratzunari ematen zaion moduan, baina luze, xurga kilikorrean, burua bertarantz makurtuz, bertan ezkutatu. Minutu laurden eternal baten ondoren, etzan egin da. Esku batekin nireari bere papar bilotsuaren kontra eutsiz, bestearekin besoan gora ferekatzen nau, elastikoaren tiranteetaraino. «Etzan neure ondoan, Jabitxu. Ez izan beldurrik». Bere tirakadan deseroso bainengoen, etzan nintzen. Badirudi egintza horrekin nire borondate osoa bere alde ulertu zuela, eta alboz baina gorputz osoz besarkatu ninduen, aurpegia nire okozpean ezkutatu. «Egon bakarrik, honelaxe. Utzidazu erakusten zenbat maite zaitudan. Behin bakarrik». Ez dakit zer egin. Geldi-geldi nago, egoera bere kontura bilaka dadin utziz. Uzten diot estu nazan, laztan nazan, nire eskua bere izter artean bero dezan. Bainu-praken labaintasunak azpiko bultoa nabariago sentiarazten dit. Izter bat gorputzaren gainetik pasatzen dit, hobeto estutzeko. «Barka, Jabitxu. Behin bakarrik. Behin bakarrik». Begiak itxi eta mugimenduei itsuan jarraitzen ahalegintzen naiz.

Oso egun beroa den arren, logelan hainbestekoa ez den tenperaturari dagokion baino izerdi handiagoa nabari dut. «Barka, Jabitxu! Ai! Behin bakarrik, Jabitxu, behin bakarrik. Ba al dakizu zer litzatekeen emakume bat honela besarkatzea?». Mugimendu guztiak bateratu egin direla ematen dit. Bateratzeak kasik oldar biolentoa abiarazi du. «Behin bakarrik, Jabitxu. Behin bakarrik. Bai ... Bai ... Baaai!». Hitzak urruma bihurtu dira. Urrumak urruma dakar, negar tragiko bat lez. Autobusa galdu behar ote dut? Arrapalada bat nabari dut. Ene ama! Honi zerbait gertatu behar zaio. Gertatu zaio. Aurpegia

nire golkotik erretiratu du. Begiak disimuluan zabaldu ditut, eta bereak gorantz itxita daude, aurpegia desfiguraturik, tripako min bizi batek eman balio lez. «Barka, Jabitxu. Hauxe bakarrik. Gehiago ez, ez, ez... Eskerrik asko!».

Tripako mina joan zaiola dirudi. Ez daukat autobusa galdu beharrik. Geldi-geldi gaude biok, bere arnasa hasperentsua entzuten. Denbora batera, «jaiki naiteke?» itauntzen dut, eta berak darantzu, ahul-ahul, emeki-emeki: «Bai, Jabitxu! Jaiki eta jan pastela, merezi duzu eta». Sukaldean nago. Zer egin jakin ez eta pastel guztia jan dut. Eskuak garbitzeko aitzakian, komuna eskatu dut. «Hortxe, Jabitxu». Kisketari barrutik eman diodanean, liberazioa sentitu dut. Baita harridura ere, ispilu oinean hainbeste kolonia, ukendu eta krema mota ikustean. Gure etxean ez zegoen halakorik. Ezta nire apaiz-idea austeroan ere. Sentsazioei jarraitzerik ez zegoen, irten egin behar baitzen. Denbora batera, bera jantzita itzuli da, sotana eta guzti. «Zatoz berriro logelara». Oraintxe bai ez dakidala zer egin. «Ez beldurtu, Jabitxu. Ez dizut ukiturik egingo». Ez dago fidatzeaz beste erremediorik.

Logelako atalasean taket gelditu naiz. Apaiza ohearen kontra balauniko dago, albo-hormara begira, Arsko apaiz aszetikoa sarritan irudikarazi diguten moduan. «Aurrera, Jabitxu! Belaunikatu zeu ere nire ondoan. Horma honen beste aldean sagrarioa dago. Hortxe dago Jesus, gure makaltasuna ulertzen, barkatzen». Ez zidala ukiturik egingo, baina esku batetik heldu eta ohe gainera zapaltzen dit. «Zuk ez daukazu errurik, Jabitxu. Barka, Jauna! Barka, Jesus maite! Barka, Amatxo laztan! Ez Jabitxuri konturik eskatu. Jabitxuk ez du ezer egin. Barka zeuk ere, Jabitxu».

Apaiza otoitzean geratu da. Ni banoa noizbait autobusean, gerta berri dena nola ulertu behar den pentsatu nahian.

Kontua da, autobusera abiatu aurretik, proposamen bat egin didala egunaren «erreparazio» moduan. Eta baita eskertzeko ere «nire portaera bekataria aurpegiratu ez didazulako». Proposamena da egun-pasa bat Bakioko hondartzan. Onartu nuen. Alde batetik, ezetz esatea gogor egiten zitzaidan, eta bestetik, sinetsi nuen «behin bakarrik» izango zela errepikatu zuen hura egia izango zela, promestutako «erreparazioaren» arabera. Funts-funtsean, ziurtzat jo nuen ezingo zuela ezertan saiatu, eguna jende artean igaro beharko baikenuen.

Goiz batez, abiatu gara Vespa urdin garbi-garbi batean, bera aurrean eta ni atzean. Txorierrin zehar, Artebakarran gora diost: «Arrimatu gehiago, Jabitxu, bihurguneak hobeto hartzeko». Zorioneko «Jabitxu» berriz ere! Obeditu beharra sentitu nuen, motorrean baikindoazen. Handik laster: «Heldu estuago nire gerriari. Ez beldurtu, Jabitxu». Ez nion, antza, berak nahi bezala heldu, eta esku batekin berak lagundu zidan estutzen. Meñakan zehar, Bakioko mendatean gora, diost: «Jabitxu! Sartu eskuak sotanaren

poltsikoetatik. Horrela hobeto helduko didazu, hemen bihurgune txarrak datoz eta». Eskuak sotanaren poltsikoetan sartu nituen eta berak: «Ez. Hortik ez, Jabitxu. Sartu irekiduratik». Sotanen poltsikoek, euron paraleloan, halakoxe irekidura bana baitzuten goitik behera. Esku batekin berak lagundu zion sartzen nire esku bati, eta gero bestearekin, nire beste eskuari. Motorra, gehienez, esku bakarrean zihoan, haren eskuek, txandaka, nire izter biak zaplatzen eta igurtzen baitzituzten. Beldur mota ezberdinak zebiltzan nire barruan.

Eskuak «behar zen lekuetatik» sartzean, harritu nintzen azpitik bainu-jantzi estu-estu bat baizik ez zeramala. Ia biluzik baitzegoen, nire eskuek bainu-jantziaren azpitik bultoa pausatu behar zuten nahitaez, nahiz eta eskuek apaizaren azala baino nahiago izan bainu-jantziaren tergalak ukitzea. Berak, sotanaren gainetik, esku batekin sakatu egiten zidan, eta bai. Hantxe zegoen «bitxoa», geroz beteago. Ezin nion kontrarik egin, nik haren eskuak manillarrean nahi bainituen. Pentsatzen nuen: «Laster gaituk Bakion eta amaituko duk zerrikeria hau ere».

Bakion, motorra aparkatu eta, ez dakit nora eta nola aldendurik, bueltan han agertu zen bainu-jantzi hutsean, bere gorputz guri eta mardulean. Hondartzan libre sentitzen nintzen jende artean, bai hondarrean, bai uretan. Bera ur sakonera sartu zen. Igerilari trebea zirudien. «Etorri aurrera!» oihu egiten zidan. Nik ez nekiela igeri esaten nion, eta hartatik etorri zen beste sekuentzia lorrin bat. «A, ba, neuk irakatsiko dizut. Erraz-erraza da». Etzan nendila igeri-posizioan, eta berak eutsiko zidala azpitik eskuekin. Eskuak nire gorputz guztian ibili ziren atzera eta aurrera, haztatuz, arakatuz. Zorionez, ezin zen ezer larriegirik gertatu, beste hainbat igerilariren artean aise saihesten bainintzen, hara eta hona mugituz. Goiza nahiko ondo salbatu zen.

Bazkal orduan, ostatu-andreak prestaturiko poltsa eskuan-da, diost: «Goazen harako haitzetara, Jabitxu». Nik ezetz. «Haitzek beldurra ematen didate». Ez dakit nire «beldura» nola ulertu zuen. Behintzat, ez zuen gehiegi tematu. Arratsaldean, berriz ere goizeko antzera. Iluntzean elizkizun bat zeukala entzuna bainion, eta batez ere, nik autobusa zazpiak eta erdietan hartu behar bainuen, laster bete zen denbora. Berriz ere, ez dakit non eta nola, sotana erreperatu zuen, eta bagentzen bueltan. Oraingoan ez zidan eskatzen joanean bezalako arrimurik.

Bide erdian diost: «Jabitxu! Neure jaiotetxera joango gara, nire gurasoak bisitatuz. Adinekoak ere badira, eta bertan lo egingo dugu». Ez nuen aurkitu ezetz esateko motiborik, pentsatu bainuen: «Gurasoak inguruan direla, ezin da sortu inolako larriunerik». Baserri handi batean errespetu handiko andre-gizon edadetuak aurkitu genituen. Apaiza erabat transformatu zen haien aurrean, berorika bie. Afari bikaina, eta ni ezin hobeto hartua eta tratatua. Poza. Oherakoan, eskailerak igo eta goiko solairuan, logela bat neuretzat izango zelakoan, apaizak atea ireki eta dio: «Hementxe lo egingo dugu,

Jabitzu». Dugu? Lehen susto dardaratuan, baretu nintzen bi ohe estu ikustean. «Behintzat, ohe banatan etzango gara». Halaxe izan zen. Baina, mesanotxe koxkor bat bitarteko, ohetik ohera eskua luzatu zidan, neurea eskatuz eta besoetan igurtziak eginez. Beldurtu nintzen. «Ea neure ohean sartzea bururatzen zaion!». Zorionez, denbora batera, argia itzali eta «gabon!» esan zuen. Laster hasi zen zurrungaz, baina ni ezin izan nintzen alertatik jaitsi, harik eta biharamun goizean, sukaldean, apaizaren gurasoekin elkartu arte. Gosaria konpromisoz jan nuen.

Handik apaizaren etxera ez zen ezer seinalagarriarik gertatu, motorrean bere atzean joan beharra besterik. Isiltasun nahiko terminala bion aldetik. Autobusean sartu eta, jada abiadura normalean, zuhaitzak atzerantz bizkor pasatzen hasi zirenean, ezin nuen asmatu nola kokatu neure burua lasaitasunean. Uda amaitu zen, seminariora itzuli nintzen, eta kontzientzian, premia bat baino areago, zama bat sentitu nuen kasua norbaiti jakinarazi behar niola. Zuzendari espiritualari. Arretaz entzun zuen, «eutsi gogo horri» animatu ninduen, eta hortxe amaitu zen historia. Nik erabakia nuen gehiago ez nintzela apaiz harengana inguratuko. Bera ere ez zen saiatu gehiago niregana jotzen.

Kasua horrela izanik –«kasuetako bat» orduko historian–, nireak baditu, neure pertzepzioan, berezitasun batzuk.

1) Lehen-lehenik, esperientzia txar hark ez zidan utzi inolako ondorio traumatikorik. Ez nuen hartu, neure pertsonarentzat, trantze larritzat ere. Askoz larriagoak bizi izan nituen seminarioan. Adibidez, 14 urte nituela, nire pentsioa ordaintzeke zegoelako, azterketa gabe utzi nindutenean. Nire eta ni bezalako beste dohakabe batzuen izenak «pikota» zeritzon taula publiko batean ipini zituzten, komunitate osoaren begietan. Gutxitan pairatu izan dut nire eta neure etxearen apalmenu hain angustiosik. «Gutxitan» diot, izan baitziren episodio gehiago, batzuk ez hain larriak, beste batzuk larriagoak.

Kontatu dudan kasuak ez zidan utzi zauririk. Hurririk ere ez pikotakoak bezalakorik. Gehienik ere, higuin puntu bat, abadetxe haren kontra-kontratik doan errepide nagusitik pasatu beharra dudan aldi ugarietan errepikatzen dena. Denborarekin, higuin punturik ere ez, baina gogoratu, beti. Nire buruan, orduan, pentsamendu bakarra geratu zen: «Ni ez naiz horrelakoa izango». Eta bai bainekien halako kasuak bazirena, ia-ia normalizat jo nuen. «Horra, ba! Heuri ere tokatu zaik».

2) Bada alderdi bat, ordea, neu ere, gerora, beti harritu nauena. Nik orduan 20 urte nituen. Humanitateetako 6 eta Filosofiako 3 urteak eginik, teologiako lehenengoan sartua nintzen. Ordurako, nire kontzientzia morala, soziala, kulturala eta politikoa oso aurreraturik zeuden. Ia erabat garaturik esango nuke. Nola ez nintzen gauza izan eraso hari aurre egiteko?

Badut printzipio orokor bat, «Oromenderrieta» izeneko saiakeran luzeki garatu nuena: «Erasoa defentsaren aurrekoa da beti». Lege unibertatsalki baliozko hori honako eran ikusten dut kontatu dudak kasuan. Ni motibo pozgarri handi batetik abiatu nintzen. Neskengana hurreratzeko debeku morala zeukan apaizgai gazte bat, bat-batean, motibo noble batekin, neska hutsezko koru baten erdian aurkitu zen, figuratxo bat bezala, egun handi batean, herri berri batean, mendi bakarti batetik jaitsia, eta denek ongi hartua, ia mimatua. Erasotzaileak pentsatua zuenaren bilakaera guztia buruan zeukan, eta bilakaera gradualki joango zen, kalkulaturik. Nire defentsa ez zen ausartzen katemaila jakin bati, bakarrean txiki iruditzen zitzaionari, oposizio oso batekin erantzuten. Eta hala, ahultasun bati ezuste total bat, eremu arrotz bat, beldur-zalantza bat eta bilakaera gradual bat gehitzen badizkiozu, erasoak, ez beti, bai maiz, irabazi egingo du. Orduan ez nuen horrelako pentsaketarik egin, baina gertaeraren esplikazioa hortik joan daiteke.

3) Handik urte gutxira, apaiz egin nintzen. Jada neu ere banintzen autoritate bat, eta oso gutxitan gertatu zitzaidan apaiz hura parean. Uste dut saihestu egiten ninduela. Bestalde, ni «apaiz errebeldeak» izeneko mugidan nenbilen, eta hura beste muturrean. Kartzelatik bueltan, bertsotan hasi nintzenean, haren herrian eta inguru hurbiletan sarri kantatzen nuen. Haren etxeokak, ilobak, auzoak, maiz izaten ziren entzule eta etortzen zitzaizkidan agurtzera. Pentsatzen nuen: «Bai litzatekeela kolpe mingarria hauentzat, euren familiako apaiz beneratuaren portaera zabalduko balitz!». Egia esan, orduan oraindik ez zegoen geroagoko salatze-kontzientziarik. Orain, barruak ez dit ematen ezagutzen eta maite ditudan eta maite nautela uste dudak hainbat pertsonari horrelako min bat ematea, aspaldi hildako apaiz baten izen-abizenak jakitera emateagatik.

SOINU BATEN BARRUAN

Nire haurtzarora xarma osoan igaro zen, sinetsita osaba soinulariak bere tresnaren barruan ekarri ninduela Bizkargiko erromeriatik, ijitoei ostuta, maiatzaren hiruan. Sinestea zortzi bat urtez luzatu bazen ere, gero legendaren eskusibaz harrotzen jarraitu nuen, orduan haur guztiak Paristik etorriak baitziren, zikoinaren mokoan. Kondaira horiek kontatuak ditu beste narrazio batzuetan.

Hamazortzi urte nituela, jada filosofian nintzen. Hots, komentu eta seminario, baneraman zazpi kurtsoko «gizontzea». Gabon oportetan, ama eta biok sutondoan geunden, ni eskuak berotzen, bera artilezko galtzerdi zulatuei puntuak hartzen. Sutondoak tximiniaren parean kaxa bat bezalakoa egiten zuen, sua gordeago aurki zedin. Hondo-hormaren kontra, berau beteko burdina-plantxa bat altxatzen zen, eta altxatzen da oraindik ere. Laukizuzen tente bat, arkuan errematatua, printzeen oheburu dekoroso baten antzera.

Hondoko horma suaren goritasun zuzenetik babesteko balio zuen plantxak hiru figura zeuzkan: txakur bat bere eserkerak tipikoan; oilar bat, hego astinduak bildu berri bezala; eta erdian, ardoa zerbitzatzeko ontzi bat, lepoa animalien paretik goratzen zuena. Hiruren artean triangelu bat osatzen zuten. Zentzuaz jabetu nintzenetik intrigatu ninduen erliebe hark. Txakurra onartuko nukeen burdinan, sukaldean ohiko animaliak baitzen, baina oilarraren presentziak noraezten ninduen. Baita esku-bonba itxurako edontzi lepo-luze eta aho-zabal hark ere. Oilarrarentzat nahiko argitasun sinesgarria izan zen aitari entzun niona, hizketan hasi berri nintzela.

– Oilarra suari itzaltzen ez uzteko duk. Sua moteltzean, oilarrak hegoekin haizea ematen ziok.

– Eta txakurrak?

– Txakurrak oilarra zaintzen dik, eskapatu ez dadin.

– Eta edontziak?

– Horrek sua animatzen dik, egurra falta denean.

Apur bat kazkontzean, ez nuen esplikazio sinesgarriagorik eskatu, gure etxean, bestela ere, dena baitzen erdi legendazko, aita bide zela. Errealitatearekin zerikusi hurbil samarra zeukana inkoherentzia bat zen. Fantasiez baino olioaz kezkatuago zebilen gure amak «asmukeriak!» hots egingo zuen muzin airean, baina nik, deskalifikazio gisan baino gehiago, misterio erantsi bat bezala hartzen nuen. Gabon-opor haietan, amari esan nion sutondoko burdina-plantxako hirutasun hura beti asoziazio arraroa iruditu zitzaidala, eta zurturik geratu nintzen, gaineratu zuenean:

– Animalia horiexek ikusi hinduten hi jaiotzen.

Ez nintzen gutxi harritu amak jaiotza erreala hala aipatzeaz. Pentsatu izango zuen, apaizgorantz hurbiltzen zihoan batentzat, bazela egia gordinak jakiteko garaia. Deskuidatu egin zela ere esango nuke, artegatasun bat nabaritu baitzitzaion solasari jarraitzeko, galdetu nionean:

– Ez al nintzen, ba, Bizkargitik etorri, osabaren soinu barruan?

– Honezkero jakin behar huke hori guztia aitaren asmazio bat izan zela.

– Ez dakit zuk jaulki berri duzuna asmazio handiagoa ez den.

– Jaiotza kontuak amak hobeto jakiten ditik aitak baino.

– Ez diot antzik hartzen. Oilarrak eta txakurrak zer zerikusi daukate nire jaiotzan?

– Esan diat. Euron aurrean jaio hintzen.

– Hemen? Sutondoan?

– Oraintxe hagoen leku-lekuan.

– Zelan? Zergatik?

Bet-betan, begien dzistada batean, nire jaiotzaren Bizkargiko legenda guztia baino bertsio fantastikoagoa zen egia erreala jakin

nuen, azaltzeaz gozatzen zuela igartzen zitzaion amaren ahotik. Maiatzaren hiruan, Bizkargiko Santakurtzera, letaniak igotzen ziren Gorozika, Morga, Larrabetzu, Zornotza eta Etxanotik. Hemendik letania nagusia, Etxanoko partea baitzen baseliza. Letaniak errezatze edo kantatzea azken kilometro erdiko kontua zen. Aurreko guztia, herri bakoitzetik irteerako ordu jakina barne, erromeria alai eta geroz jendetsuago bat izango zen, bidean gehituz zihoazen erromes berriekin. Gure ama, etxe ondotik pasatzen ziren beste asko bezala, urtero joana izango zen Etxanoko letaniari Autzaganan irtetera, baina egun hartan huts egin beharra zegoen, erditze-eguna betetzear baitzuen.

Arratsaldean, behi-uztarriarekin narran edo leran ziharduen soroan. Aurre-erditze aproposa. «Narra» edo lera gurpil gabeko plataforma karratu bat zen, sendoera berdintsuko urritz-makilak bilbatuz egina. Gaietan harri batzuk kargatu eta abereek arrastaturik, sokilak hausteko balio zuen. Behiak heziak edo konfiantzakoak baziren, edo gidari joateko itaurlariren bat bazen (nire haurtzaroko lanik gorrotatuena), atzeko itzaina ere, beti pertsona nagusia, leran joango zen, pisu gehiago egiteko eta, bide batez, deskantsuaz baliatzeko. Horrexek ematen zigun umeoi ernegurik handiena: norberak aurrean tente eta zuzen joan behar, sokil artean estropozuka, eta atzekoa lera gaietan pintxo-pintxo, agindu guztiak ematen, aida, o!, gora, behera, eurt. Agindu guztiak gogaikarriak, amaierako «nahikoa da gaurko» izan ezik. Hau ere iritsiko zen noizbait, baina noizko! Mutiko batentzat, hiru-lau ordu horrela, inoiz egun osoa, fraide joatea erabakitze moduko desesperazio amaigabea izaten zen, neuk ere egin nuen bezala, behin, atzean zebilen amari mehatxua jaurti nionean:

- Noiz amaitu behar dugu atzera-aurrera hau?
- Arloa amaitzen denean.
- Bai, ni fraide joango naiz, eta gehiago ez nauzue hemen harrapatuko!

Ama ez bide zuen mehatxuak gaitzitu, azkenean horixe egin bainuen, bere begion osoz. Arestian aipatu egunean, osteran, ni sabelean nenbilen, amari pisu eginez, amak lerari, lerak sokilei. Lau eta bost urteko bi neba-arreba zaharragoak oraindik txikiegiak baitziren langintza hartarako, eta aitak kanpoan lan egiten baitzuen, amak bakarrik ekin behar, ez itaurlari ez ezer, nahiz gure behiak, heziak izan arren, hain fidagarriak ez izan, eurak ere gerraosteko gabezietan ernegaturik. Iluntze aldera, fraide joatea aurreratu nahi nuelako, edo sokilak handitu zirelako, edo behiak armindu zirelako, ama larritu zen. Handik hamazortzi urtera esango zidan moduan:

- Narraren tringi-tranguak umea mugitu zian, antza. Eta ni erabat larritu. Behiek geldi egon gura ez, ni, bihurtuta, mugitu ezin, bete-bete sinetsi nian narran bertan erdituko nintzela hitaz. Inguruan zebiltzan ume biei oihera egin nian: «Imanol! Jarri behien aurrean! Miren! Joan arin amamarenera, eta esan amamari etortzeko

berehala!». Umeek, ikaraturik, txistik egin barik obeditu ziaten. Apur bat arnasa bueltatu nuenean, behiak narratik askatu eta kontuz-kontuz etxeratu ninduan, larri ere larri, bidean lehertuko ote nintzen. «Imanol! Zaindu behiok apur baten!». Pentsa, lau urteko umea, deabruaren sardea baino abere okerragoak zaintzen. Kasu honetan, behiak ere kargutu zituan, antza, unearen larriaz, mantso-mantso egon baitziren uztarrian. Etxeratu nintzenerako, amama han zegoan atean.

– Zer don, ume?

– Behiak! Ikusi behiak nola dauden, umeari eta euren buruei okerren bat egin ez diezaien.

– Behiak ondo zeuden. Orain dagigun egin beharrekoa.

– Emaginari deitu al diozue?

– Bidali dinat gure Pedro Uxarrera –amamak.

– Ai, ama! Bata hara eta bestea hona heldu orduko!

– Goazen ohera lehenbailehen! Etzanda lasaituko haiz.

– Ez dago astirik.

– Umea ez zain bat-batean etorriko.

Atetik barruko portalera sartzean, gorako eskailerari begiratu nioan, eta kalbarioko gurutzea begitandu zitzaidaan, tente-tente, estu-estu. Amamak atzetik sakaturik eta neuk eskudelari esku biekini heldurik, igotzen hasi nintzenean, hots egin nian, ahots hilkorrez: «Ezin dut». Amama ikaratu zuan, eta agindu zidaan: «Hator sukaldera!». Urak zerizkidala, odola ere bai, sukaldera iritsi ginenean, agindu zidaan: «Heldu gogor esku biekini tximini ertzari, eta estutu hankak ahalik indartsuen, goitik eskuzapi eta izara-manta garbiak neuk ekarri arte». Odola eta ura parrastan nabari nitian izterretan behera. Bertan hustu behar nintzela uste nian, ume eta dena. Itzultzean, amamak hots egin zian: «Umetxoak! Itxi atea kanpotik! Kendu batak euliak behiei, eta besteak ez utzi txakurrari eta katuei barrura sartzen». Ume gaixoez ketatik pasatako espirtuek lez obeditzen ziaten dena, ama hiltzen ari ote zen beldurrez.

– Emagina heldu arte eusteko gauza izango haiz? –itaundu zidan amamak, eta larritasun mortalean erantzun nioan:

– Ez! Ez!! Hau badator!

– Zabaldu hankak! Heldu tximiniari gogor, eta utzi neure besoetara jausten, lehenengoa ere ez dun eta.

– Umeak zertan dira?

– Umeei utzi orain bakean –amamak oihuz– eta saka datorrenari.

Amamak jarraitu ei zuen:

– Bazetorren! Ondo zetorren! Sakatu beldur gabe! Gaitzena egin dun. Burua kanpoan din. Hemen zetorren gure «Buruhanditxo!». Segi! Bultza! Aupa, Buruhanditxo, mutiko bedeinkatu! Egik negar gozatsu, Jainko errukiarrari eskerrak emateko. Hik ere –amamak nire amari– egin negar, ulu, arrantza, gura donana.

Amak honela osatu zuen kontakizuna:

– Hura zuan lorrina atera genuena! Ni sukaldearen erdian, manta gainean etzanda, baina hi sano, mahai gaineko izara-manten gainean. Negarti eta ostikalari, lohietatik libratu guran. Emagina iritsi zenerako, munduari antz bat hartua hintzen, sutondoko oilar, txakur eta edontziari esker.

Geroztik badakit zer den egintza beraren oroitzapen bikoitza. Bizkargiko legenda kontatzean («zelan zuan Bizkargitik soinu barruan etorri hintzena?»), nik beti, neurekiko, jaiotza errealarekin nahasten nuen. Hamazortzi urterekin jakindako bertsioa bide, dena askoz fantastikoago geratu zen nire oroimenean, jaiotza hartantxe baitzeuden nire bizitzako elementurik esanguratsuenak.

SERMOI BAT

Amorotoko elizan, 1967an. Data zehatza ez daukat gogoan. Herriko maisua eskola-umeei euskaraz egitea debekatzen hasi zen, bai gela barruan, baita jolasorduetan. Eta hori egiten zuen «motibo kulturalengatik». Umeen garapena askoz aberatsago izango zen, hizkuntza «handi» batean. Ni ere «kultura-gizon» omen bainintzen, kausan kidetzat hartzen ninduen, kulturaren izenean. Eztabaida luzeak izan genituen. Nik esaten nion hori ezin zuela inondik ere egin, noiz eta praktika hura Amoroto bezalako herrietan jada desagertua zenean. Hura berean, ni neurean, mehatxu egin nion, hartan jarraitzen bazuen, sermoi bat egingo nuela, bere jokabide zapaltzailea salatuz. «Baliteke nik kartzelan amaitzea, baina zuk herri honetatik alde egin beharko duzu». Ez zuen sinesten, edo ez zuen amore eman nahi. Herriko gurasoekin hitz egin nuen, eta azkenean, sermoiaren mehatxua bete egin nuen, maisua eta bere lagun batzuk aurrean zirela. Sermoi honakoa izan zen:

«Amorotoko eliztar eta herritar maiteok! Sermoi hau promesa bat betetzera dator, eta asistentziatik dirudienez, bazen zerbaiten irrika, bakan batzuegan alderantziz izan daiteke baina. Pentsa dezagun apur bat. Ez naiz hasiko eskolatze guztia gaztelania hutsaren gainean eraikitzea bat-batean kuestionatzen, nahiz eta balegokeen zeresana, han-hemen sortzen hasiak diren euskarazko eskolakuntzen mugimendu pozgarriaz. Baina indarrean dagoen eredu ezarriaren barruan ere, zer arrazoi eta, batez ere, zer eskubide moral edo kultural dago, gaztelaniaren eta europar hizkuntza guztien aurrekoa den hizkuntza baten erabilera zigortzeko, batik bat, praktika hori, eskola gehienetan, jada zentzugabetzat baztertua denean? Hizkuntza baten antzinatasun, izaera eta baliotik aparte, nor da nor umeei euren ama-hizkuntza, eurek aukeratu gabe bertan jaio zirena, bat-batean erauzi nahi izateko, tumore bat balitz lez?

Baina, kristau maiteok! Alde etnikoak, kulturalak, justiziazkoak, eskubidezkoak albora utzita, gatozen estatu konfesional katoliko honek bere balore oinarrizkotzat aldarrikatzen dauen kristautasunera. Ez dugu tematuko gure euskara paradisuako lehen hizkuntza izan zenetz, legenda maitagarriak kontatzen digun moduan, ohore berdintsua bindikatzen duten munduko beste hizkuntza guztiekin alferrik ez leihatzeke. Kultura bakoitzak segi biezaio bere egia kontsolagarriei, besteenik zapaltzen ez duen bitartean. Zertarako haserretuko gara inorekin, paradisukoa besteko mirariak edo handiagoak eliza honetantxe gertatzen badira, gure misterio santuotan? Kristau baten arimak goza lezakeen interbentziorik dohatsuena, transformaziorik sublimeena, sakramentuak ez al dira? Hona, ba, mendeetan agindu duen latinaren lekuan, orain, zuen umeak euskaraz bataiatuak direla. Euskaraz konfirmatuak dira. Euskaraz ezkontzen zarie. Euskaraz hartzen duzue bekatuen parkamena. Euskaraz, azken oliadura. Eta handiena, euskaraz ospatzen dugu Berri Onaren eta Eukaristiaren miraria, ogi-ardoak Kristoren gorputz-odol bihurtzen dituen. Jainkoak misteriorik handien horiek guztiak euskaraz onartzen eta saritzen baditu, eta Eliza Ama Doneak berak ere euskarari, orain, latinaren duintasun berdina aitortzen badio, nola izan daiteke estatu konfesional katoliko baten funtzionarioa den maisu batek, guri arbuiatzerik sekula otuko ez litzaigukeen kultura baten izenean, gure umeei euren ama-hizkuntza, euren etxe-hizkuntza, euren herri-hizkuntza debekatzea, eta inkomplimendua hain basaki zigortzea? Hori ezin daiteke izan guk berari «Aita gurea» kantatzea hain atseginez hartzen duen Jainkoaren borondatea.

Kristauok! Lehen ere ez zarete gutxi ikusiak, eta beste gerrarik ez diogu inori ezergatik opa. Baina gure umeen aurkako biolentzia prepotente hori, beharbada berari aurre egiteko modurik oraindik ez daukagun hori, gaitzetsi eta salatu gabe ezin dugu utzi. Euskaldunok euskaldun lez bere mahaian hain maitakor eta eskuzabal hartzen gaituen Jainko ahalguztidunak eman biezagu argitasuna, eta araberako kemena eta elkartasuna, gure izate mendetsua ahalik duinen defendatzeko gauza izan gaitezen, ez hainbeste mendetsua delako, geurea delako baino».

«¡Estimados cristianos! Ante el asombro seguramente unánime, aunque contrapuesto en motivos, de toda la concurrencia que hoy abarrotta esta iglesia de San Martín de Amoroto, permitidme que por una vez, como dolorosa excepción que confirme una noble regla, me decida a cumplir el desvariante decreto pastoral de nuestro Obispo monseñor Pablo Gurrutxaga Beope, hijo de Otsagabia y euskaldun de cuna tan vasco parlante como cualquiera de nosotros, según el cual en toda misa de cualquier rincón de Vizcaya, a la que asista algún fiel, sea turista, cazador o montañero casual, que no entiende el vascuence, el oficiante o predicador deberá ofrecer un resumen en castellano del sermón pronunciado. En una ocasión tan singular como ésta, no será exactamente un resumen, sino más bien el anuncio y la promesa de que éste sermón, íntegra y literalmente traducido, será entregado con

reverencia al grupo de las personas interesadas o aludidas en él, que han tenido la gentileza cristiana de honrarme con su atenta presencia, a fin de que no tengan que molestarse en verificar informaciones lejanamente indirectas o directamente confidenciales, cuya veracidad, al final, corre el peligro de basarse en jirones perdidos o lastres acumulados en el camino, a pesar del innegable celo, profesional o voluntario, de los hilos que componen la extensa y secreta red de nuestro atento régimen».

Eta, honenbestez, kristau maiteok, ez hain maitagarriok barne, jarrai dezagun ospakizun salbagarri hau, geure fedearen aitortza lasaigarria berrituz: «Sinesten dut Jainko bakar, Aita ahalguztidun, zeru-lurren egile, eta bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna... betiko bizia. Amen».

- Jauna zuekin. («Posible bada»).
- Eta zure espirituarekin. («Dena beharko baita»).
- Zoazte Jaunaren bakean. («Bakea ... bakea ...»).

Ondoren, gorago aipatutako iragarpen biak bete egin ziren. Nik kartzelan amaitu nuen, eta maisua betiko desagertu zen inguru haietatik.

AI, BILBO, BILBO!

Agurea makur-makur zihoan kalean trabes. «Zeren bila zabilta zoruan, gizontxo? – Hurbiltzen bertara, azken kolpea handiegia izan ez dadin». Orduan, euskaraz nola esaten da «electrón»? Ez da esaten. Baina galdetu duzunez gero, hasiko gara esaten. Hasi gara, eta ezin dugu burutu. Zurezko hankadunari «hanka hoztu behar zaizu» esatea bezala. Nondik zatoz? Nahiago dut ez gogoratu. Nora zoaz? Baneki! Udazken berankor horietako izadi magistrala. Zer egin dezaket mirakuluaren aurka? «Ai Bilbo, Bilbo! Ez dago Bilbo langorik». Indautxun aparkatu, eta kafetxoa. Gobernu militarra, eta kriantza bat eta lehen pintxoa, hotza. Gobernu zibilera, eta beste txikito bat eta pintxoa, oraingoan beroa. Corte Ingelesera, eta erreserba bat eta bi pintxo, hotza eta beroa. Guggenheimera, eta txakurrari txiza egin. Etixerantz, Bilbo konkistaturik, Requiem bat entzun. Ockeghem, Lasso, Mozart, List, Berlioz, Schuman, Verdi, Dvorak, Britten, Stravinski, Penderecki, Benguerel, Azilu... Aukera mortala. Hiri eder bat izan zen.

SUZIRI MENTALAK

Nire izatearen adierazpen goren bat: oinak uretan, eguzkiari usin bat. Ilargi erdiak nola egin dezake itzal osoa? Maitasunaren onena bere posibilitatea da. «Maita ezazue elkar». Horretarako, maitagarriak izan behar, ezta? Askotxo suposatzea. Eskertzen dut maita nazaten; ez

gutxiago, behar nazaten. Maitatzeko ez dakit zenbat era dauden, baina izorratzeko, badira batzuk. Ba, bai. Zer esanik ez dudanean, maitasunari kantatzen diot.

Auto-stop egiten ari denaren aurretik pasa zaitez astiro-astiro, agur eginez, ezagutu duzula pentsateko moduan. Era efektiboagoa nahi baduzu, oinezlari azkar baten parean, galdeiozu ea eramatea nahi duen, norabait iristeko presa larrian doala ulertu bazenu bezala. Iraultza ez dakit posible den, baina beharrezko da. Ez dakit zein den arriskutsuago, botereduna ala botere bila dabilena. Zer berri Bizkai aldean? Hortxe izorratu nauk. Munduan galdetu bahu, baina Bizkaia handia baita! Euskaldun gutxitxo, aukeran. O! Euskaldungoa duk tribu bat, tribuago izaten gozatzen duena. Kostata harrapatutako eulia leihotik bizirik jaurti badut, ez da izan bihozkorra naizelako, hura ahurrean txikitzearen higuina ekiditearren baizik. Higuin dut biolentzia bisualizatu gabe egin ezin den artea. Higuinago, obra baten alderdi biolentoeekin hobeto irabazten den publikoa.

EVERESTEN ERRAKUNTZAZ

Gailur hartantxe nor egon litekeen! Handik, beste bat gorago. Azkenean, Everestera iritsi zara, eta berehala zatoz beherantz, erratu bazina bezala. Neu ere noizean behin deskuidatzen naiz, humanoa naizela frogatzeko. Telefono horiek bezala, zenbakiz erratzean bakarrik erantzuten dizutenak. Mundu guztiaren jabetzak neure territoriora gehiago mugarazi banau, esan nahi du grina ez zela hainbeste mundua konkistatzea, baizik besteei kentzea. Poetak ezin du errealitaterik ezagutu, beti baitabil haragoko erlazioen bila. Errealismoa? Ahate bat alboz marraztu duzunean, haurtxoak galdetu du: «Eta beste begia?». Artea. Neuk egiten ez dakidan edozer geniala iruditzen zait.

GIBELAREKIN SENTITU

Heriotzak azkenean beti du arrazoia. Eta zer? Onena joanda badago, txarrena ahalik ondoen ezin al da pasatu? «Ez daukazu bihotzik!». Ez dio ardura. Nik gibelarekin sentitzen dut. Zuhaitz-adarrak neguan biluz, eder, elurrez xuri. Bai edertasunaren diseinu konbintzentea! Gogoa ilun denean, adar horiek beso desesperatuak dira, gorputzetik eskapatu nahian. Ikusten gibela nola den sentitzeko gauza? Tokiek sentiberatzen naute, eurretan utziak ditudan sentimenduen arabera. Bazterrak miatzea ere maite nuen, mugikorra belarrian-da, disimulatzeko. Aurikularrak ere bai. Brun, brun, brun! Musika batzuek ziruditen metalezko pabilioiak desmuntatzen. Edo eraisten! Takoi altuekin edo oinetako estrabaganteekin zorua zigortzen. Zenbat ahalegintzen ginen munduko ibilera zailtzen, berez errazegia balitz bezala! Ez naiz arduratzen zoriontsu izateko zer behar den, ez baitut behar zorionik.

HERIO ETORBIDEA

Bi zuhaitz-lerroren sarrera-arkuak dio: «Herio Etorbidea». Nabe itzaltsuan barnatu naiz, milaka musika egokietako bat entzunez. «Bozkarioaren Oda». «Maitia nun zira». Nabe luze-luzea da, eten-une gabea. Dena une jarraikorra. Sartzetik laster, tuneletako oharretan bezala, dio: «Herio Etorbidea zeharkatzen ari zara». Harago beste bat: «Zeharkatzen ari zara». Harago: «Ari zara». Han: «Zara». Zer polita izan den! Hor al zaudete?

AZAROAREN 4a

1968-11-4. Azaroaren 4a, arratsaldeko 4rak, 4 puntu kardinal, 4 pelotoi. Eguna ezin zen huts egin. Orduak exaktoa behar zuen. 4 puntuena ez zen kapritxo astrologiko bat. Operazioa burutzeko era kartesiar bat zen.

Laurak hamar gutxiagotan, azken koneksio monosilaboa. Prest? Bai! Minutu eta erdi doi barru, laurak zortzi eta erdi gutxiagotan, denak batera abiatuko dira, adostutako kontsignaren arabera. Kontua da, pentsatutako lau-lauretan, helburuaren ate-atean egongo direla. Daudela. Derioko Seminarioan. Ia mila laguneko gotorlekua, animaliak kontatu gabe. Zaila zen jende arrotza hango barru sakonera iristea. Eta iritsiz gero, erraza hango zoko eta labirintoetan galtzea.

Abantailarik handiena zen asko zailtzen zela poliziaren interbentzio posiblea. Gainera, horretarako, gotzainaren baimena behar zen, konkordatuaren arabera. Kontua da, azkenean, 70 apaizek ia hilabete egin genuela itxialdian, ordezkaritza bat Vatikanora bidalita. Dokumentu luze batean, Ezlizari eskatzen zitzaion Euskal Herriaren eskubideak bete eta defenda zitzala. Lortu al zen? Ez ginen hain ilusoak. Bai lortu zen nahi genuen helburu nagusia: inpaktu sozial handi bat, eskubide politiko eta sozialen alde eta frankismoaren aurka.

BONBILA HEPATIKOAK

Ilundutakoan, leiho argidun eta hain gabe guztiak (mila bat) gauaren atxilo aurkitu direnean, seminario bakartiak dimentsio paleontologikoak hartu ditu, batez ere sotoetan, non zutabetzar biluzien formazio sarrian, bonbila mehatz eta hepatikoen ezaxolaz, zutabe bakoitzak gau ezberdina ostentzen duela pentsarazten baitu.

PALMONDOA ETA ARTEONDOA

Zuhaitz milenario baten aurrean belaunikatzen naizeneko emozio mitikoa ez da hainbeste bere iragan kasik hasiera gabeagatik, baizik dardaratzen naizelako pentsatuz antzinaki bizidun horrek nire izateari nasaiki biziraungo diola. Bi zuhaitz izan ziren nire apaiz-urteen animatzaile. Bata, Gizaburuagako abadetxea jagoten zuen palmondoa. Bestea, Amorotoko elizostea dominatzen zuen arteondoa.

PENTSAMENDU KONDENATUAK

Pentsatzea maite dut, baina besteen pentsamenduak ez zaizkit interesatzen. Konklusio horretara heldu nintzen, ikusi nuenean besteei nire pentsamendurik ez zitzaiela interesatzen. Ni desiatzen azaltzeko, baina «zelan bizi gara?» eta horrelako enigmak galdetzen zizkidaten. Inoiz, nire pentsamenduaz galdetzen bazidaten, gero eurena entzun nezan izaten zen. Pentsalari onak ebidentziaren ukoa oinarritzen daki. Pentsalari genialak ebidentziari ebidentzia jarkitzen daki. Pentsalari arina ebidentzia gainditzen saiatzen da.

Torturen existentzia ukatzen dutenak ez dira gaiztoak. Kolaboratzaileak dira. Euskal Herriaren miraria zen nola hainbeste mugidaz, hain gutxi aurreratzen zen. Hori entzuterik ez zitzaien gustatzen. Ez zuten ulertu nahi batuketa biderketa baino gehiago zela. $1 + 1 = 2$. Eta $1 \times 1 = 1$. Bat bider bat bider bat bider bat... berdin bat. Bat bider infinitua ez da infinitu bat. Bat gehi infinitua, berriz, infinitu bat. Erdi + erdi = bat. Erdi x erdi = laurden. Zerotik beherantz gorantz adina zenbaki dagoela kontuan hartuz gero, eta $bi + bi$ eta $bi \times bi$ berdinak izatearen salbuespenetik aparte, batuketa xumea maizago da gehiago biderketa harroa baino.

Harrotuko nintzateke mundua neure kontzientziarekin hasi zelakoaz, penatuko ez banindu berarekin amaituko delakoak. Ekiloreak, eguzki betean, niri jarraitzen badit, zer pentsatu behar dut? Zein da kamalehoiaren kolore naturala? Izar bat aski dut bakarrik ez sentitzeko, baina izarra bera ni baino bakarrago dago.

AQUI RADIO PARÍS

«Radio Bilbao, Radio Nacional de España. Un grupo indefinido y todavía no identificado de sacerdotes vizcaínos ocupa el seminario de Derio, con una proclama de fondo separatista y tufo cismático. El obispo de Bilbao, profundamente afectado, califica la iniciativa de rebeldía satánica, y conmina a sus sacerdotes, de persistir en su actitud, con la suspensión de todos los ministerios y el ulterior proceso de excomuniación».

«Aquí Radio París, onda internacional, emisión en castellano». Horixe entzun nahi genuen. Esango ote du? Ez ote du?

«Nixonek, Estatu Batuetako presidente berriak, bere aurreko eta alderdikide Eisenhowerren Espainiara bisita, Estatu Batuetako ezein presidentek eginiko lehenengoa, errepikatuko duela dirudi.... Carrero Blanco Espainiako presidenteordea gobernuko presidentetza prestatzen ari dela zabaldu da, Francoren oniritzipean... Mediterraneoko turismoa... Salbuespen egoera... Asturiasko grebak...».

Orduerdi bateko denbora duen informatiboa badoa gupidagabeki azkenerantz, eta noiznahi amaituko ote den ikaraz, dantzugu:

«Conmoción en la Iglesia española. Un grupo de 70 sacerdotes vascos de la diócesis de Bilbao ocupan el seminario de Derio, exigiendo de Roma, en una larga carta dirigida a Su Santidad el Papa Pablo VI, respuesta a una serie de reivindicaciones. Así mismo, anuncian su intención de mantenerse encerrados, mientras no se les comunique el nombramiento de un administrador apostólico con el que habría de iniciarse un diálogo sobre la resolución de las cuestiones planteadas».

– Aufiiiiiii!!!

Final baten azken uneko gol irabazlearena bezalako urrumaldiak estali du esaldia. Inguratzen gaituen polizia izan daiteke bakarra, gure poz eztanda ulertu duena.

Paris Irratiak darrai:

«Egoera politiko itogarria eta Elizaren diktadurarekiko mentasuna, oro har, eta Euskal Herriak jasaten duen zapalkuntza larria salatu ondoren, «eliza pobrea –eskatzen dute–, bai baliabide ekonomikoetan, bai bizitzaren aurreko jarreran. Eliza librea, bai kanpo loturetatik, bai barne bekatuetatik. Eliza dinamikoa, giztasunaren abangoardia izango dena, eta ez gaur egungo oztopo». Azkenik, «Eliza autoktonoa, bertokoa, euskalduna gura dugu» esanez amaitzen dute errebindikazio zerrenda. Bilboko gotzain Pablo Gulpide monsinorearen lehen neurria, bere diozesiari eramapen kristaua eskatzen dion alokuzioan, apaiz errebeldeak ministerio-lizentzien moztearekin komminatzea izan da, euren jarreran atzera egiten ez badute».

ERROMAKO GAUA

Erromako gauean barnatu naizenean, argirik urrienero kaleak bilatzen ditut, establezimenduen idazkunak doi-doi ikusteko lain. Albinoni kalean, bar Frescobaldi, Arcimboldo melodenda, Bramante kafetegia, Cannibaldi janaridenda, Elisabetta Sirani edergintza eta bar Pizzicato gairidurik, Piazza di Hostiliano-n agertu naiz. Erroma guztia kalean dabilela dirudi. Kalearen izena jakin arte ez bainaiz inon seguru aurkitzen, lortu dut beste idazkun bat: Vespasiano Etorbidea. Hurrengo hauteman dudana: La Fontana di Nefertari. Aurrera. Guttuso Kafetegia, Bar Allegro, Galerio Ostatua, Stradivari Musikadenda, Vitrubio Materialak, Kaligula Harategia, Bar Crescendo, Tiziano Alfonbrak, Piazza di Nabucco.

Eta barbaro inpenetrablea, eta musika deigarria edonon, eta marionetak edozein kantoitan, eta txilioak ere bai kale txiki transbersaletan. Ezker-eskuin ostentzen eta inoiz amaitzen ez diren kaleska horiek, hala nola: Kurtzio Malaparte Zerbait, Germaniko Perdigoiak, Vasari Bitxidenda, Gordini Torlojuak, Tocini Txarkuteria, Monteverdi Kluba, Norma Biletxea, Bar Bustini ... Lehoiak ez dira euren harrietatik mugitu.

OSO EDUKATUAK

Zein erraza izan zen ezina! Nahi zutena egiten utziz gero, oso edukatuak ziren.

MULTZO INFORMEAK

Zazpirehun preso atxikitzen zituen Zamorako presondegiko patio zentrolean, ehunka lagun harrabotsa zebilen, ulu-lehia bat bailitzan. Multzo informeak hur-hur pasatzen ziren, begiluze, ekipoa nola muntatzen zen begira, agintzen, alferreko laguntzak eskaintzen. Galdera bitxiak, zakarkeria handiak, eta egoera miserableek sortzen dituzten genialitateak. Denak ziren preso sozialak, gure taldea salbu: hemeretzi apaiz. Hogei metroko tunela egina zen. Ihesa bakarrik falta. Harrapatu ziguten. Okerrena izan zen, zigorrak eta denak igarotakoan, kartzelro batek esan zigunean: «Zergatik ez zenidaten neuri esan?».

BILBORA MOTORREAN

Nafarroako mendialdean, gero Leitzarango autobideak zehartuko zuen Urtubi herriska oso apartean, Abel Arrigorrieta izeneko apaiz batek hor dantzu, goizeko irratian, bost apaiz bizkaitar Bilboko gotzaindegian itxi direla, gose-greba mugagabea, halako asmo eta eskakizunekin. Parte «nazionalaren» tonu furiosotik, ez dago dudarik ekintza badela. Gizona, dena bertan utzita, Bilborantz abiatu da

motorrean, bera ere ekintzara biltzeko erabaki irmoan. Zoritxarrez, bidea luzea da, motorra geldo doa, polizia zenbait kasutan azkarra da, eta gotzaindegiek ere badakite efektiboak izaten. «Elizgizon bat ezin sartu gotzaindegira?». Poliziak, dokumentuak eskatu ondoren, argudiatzen du: «Zu ez zara bizkaitarra». Gizonak, apaltasun frantziskanoz, asmorik espiritualenak agertzen ditu, bere fisionomia nabarmenki mistikoa baliatuz. San Joan Gurutzekoaren klonaziotzat pasa liteke. Saiatzen da, subtiltasun osoz, Goyaren Akelarreko deabrua inkarnatzen ere, baina kasu honetan, zeruak ez du uzten infernuak ziria sar diezaion. Bere gogoz kontra, dozena bat urteko espetxe-zigorretik libratu zen.

ALMORRANENTZAT

Eskarian, betiko jeneroak: olioak, gatzak, ozpina eta halakoak. Espetxeko ekonomatoan ez zegoena mandatugileari aginduko zitzaion, emakume xahar bat berau, inoiz urrunera ikusi uste genuena, zentroko kabinako lehiatilara okertua. Orria atzera bueltan. «Zerbitzuruak dio berakatzik ezin dela eskatu». Beti kalaka bera! Su txiki elektriko bat baimendua zen, esnea berotzeko-eta, baina sukaltzea debeku zen, ulertzerik ez zegoen arrazoiengatik. Urdai gordina erostea zilegi bazen, zergatik ezin zen apur bat epeldu? Erantzunik gabeko galderak maite dituzten pentsalarientzat, gozamina izan behar du kartzelako bizitzak. Berakatz-sorta sukaltzeko izango zela susmatzen bide zuten, eta ezetza beti eskariari. Berriz orria harantz, sorta erdi eskatuz. Berriz orria bueltan, ezetzarekin. Berriz harantz, sorta laurdena eskatuz. Hirugarrenean, zerbitzuru haserre dator, papertxo eskuan-da, galdezka:

- Zertarako nahi duzue horrenbeste berakatz?
- Almorranentzat! –erantzun zuen batek.

Arrazoi konbintzentea iruditu zitzaion.

DESESPERAZIOAREN INDARRA

Desesperazioaren indarra handia da, baina desesperatzeko ere indarra behar da. Iruditzen al duzu izaki eternoki torturazaila bat? Ba, izaki hori izan da.

NATURALA ALA BIOLENTOA?

«Hautespen naturala». «Naturala» ala «biolentoa»? Susmatzen dut, Darwin, zure kalifikatzaile bigunduaren arrazoa. Ezin zenion esanarazi Jainkoari (oraindik): «Haz eta ugal zaitezte, elkar hilez eta janez. Aurrera ahaltsuenak!». Borrokak ez dauka propietate magikorik. Indar guztiek dakite borrokan. Gaizki neurtzea galtzailearen akatsa da. Irabaztea galtzea baino probableago izateko moduan bakarrik izan daiteke indar bat «arrazionala». Edo gutxienez, aurreratzea atzeratzea baino probableago izateko moduan. Kontrakoa lege natural biolentoaren jarraipena baizik ez da.

OKERRAGOEN BIZIPOZA

Probabilitateen kalkulua (zure gaietako bat, Pascal) oso kontra eduki arren, zorigaitz handiagoa etorri ahal zaizula pentsatzea bizipoz bat izan daiteke. Beharbada, ez da izango pentsatzeko modurik zuzenena, baina pentsatze horrek askotan salbatu nau.

ARRAZOI GABE ON

Inteligentzia emozionala baino nahiago dut emozio inteligentea. Tristura da sentimendu bat, arrazoi gabe gara daitekeena. Alaitasuna ere bai. Biak izan daitezke berdin arrazoi gabeak, baina bigarrena, behintzat, ongarri zaizu.

BIZITZA LUZEA

Bizitza ez da hainbeste luzatu. Zahartzaroa luzatu da. Pixka bat nekatzen hasita nago luzapenaz. Nahiz eta, luzean-luzean, badituen abantaila batzuk. Handiena izango da, seguruenik, ikusi nahi ez zenituen asko ez daudela zure bistan.

LAPURRAK

«Harrikoa egin gabe ezin da etxetik irten!». Arrazoi duzu. Lapurrak sartzen badira, ez bitez entretenitu harrikoa egiten. Ni sekula ez naiz irten harrikoa egin gabe, baina senarra umea zaintzen utzi nuen, eta bueltan mozkorturik zegoen. Umeak txupetea sartu nahi zion sudurretik.

ZOLITASUN EULERIANOA

Kartzelero gogoangarri! Maite nuen zure gureganako inpietate shakespeareanoa agintarien aurrean, eta zure zolitasun eulerianoa guregatiko arriskuak disimulatzen. Behin egon nintzen zu gorrotatzear, gure tunel amaitua erori eta gero, haserrez galdetu zenigunean: «Zergatik ez zenidaten neuri esan?». Geu izan ginen huts egin genuenak motiboa, zeinagatik are maiteago izan beharko zintugun.

NI EZ NAIZ ZU

Ez dakit argi zezenak benetan sufritzen duen. Ez dakidan bezala adar batek gibela zeharkatu dion toreroak benetan sufritzen duen. Ez dakit zuk benetan sufritzen zenuen, sokatik eseki zintuztenean. Arrazoia sinplea da. Ni ez naiz zu.

HIL DUZU ZINEA

Arteak behar badu efektu artistikoak oinarritzea biolentziaren exhibizio exasperantean, zeuretzat ondare guztia. Tiro bakarra nahikoa den tokian, zergatik jasan behar dugu ehuneko tarratada bat? Ulertzen dut. Ken biolentzia eta hil duzu zinea.

EZ ZAIT INTERESATZEN

Hilezkortasuna zer den ez dakit, «baina izan behar du zerbait». Hori diote. «Zerbait». Esaterako, koman zaude. Organismo bizi bat, oso bat zara. Nahikoa al litzateke koma-egoera eterno bat, «zerbait» izateko? Korde gabe zaude. Gizaki bizia eta osoa zara. Pertsona bat zara. Nahikoa al litzateke inkontzientzia eterno bat, «zerbait» izateko? Lo zaude, osasun osoan. Nahikoa al litzateke lo eterno bat, «zerbait» izateko? Kontzientzia argi bat tarteko ez bada, eta kontzientzia hori «ni» ez banaiz, nork sentitu behar du «zerbait» hori? Beste kontzientzia batek? Ez zait interesatzen.

DISTANTZIAKO MAITEMINA

Maite-harreman asegarririk lortuko ez bazenu, beti dago idealizazioa. Honek ez du inoiz huts egiten. Zein erraza den distantzian maitemintzea! Eta bai dela ona, distantziari eusten jakinez gero! Zergatik ez? Inork ez du jakingo. Neure pentsamendua da. Neu naiz. Nori min egiten diot neu izateagatik?

BAI, PASCAL

Baita esan zenuen: «Nahiago dut ez den jainko bat sinetsiz erratu, baden jainko bat ez sinetsiz erratu baino. Zeren, gero ezer ez badago, inoiz ez dut jakingo, betiko ezerezean honda nadinean. Baina zerbait badago, norbait badago, neure uko-jarreraren kontua eman beharko dut». Jainko humanoegia suposatu zenuen, Pascal! Eta humanoetan, inhumanoegia. «Zerbait badago», asko poztuko naiz, biongatik. Ulertzen dut, dudaren kasuan, arrazoizko dela posibilitate onenari heltzea. Arazoa da, Pascal, zer egin, inolako dudarik ez dagoenean. Jainkoa badela sinesteko beste arrazoi dago ni Jainkoa naizela sinesteko.

AMETSAK BAI

Eternitateaz ez naiz arduratzen, bai baitakit hara itzuliko naizela, handik sortua naizenez gero. Bitartean, ez dut maite neure buruaren bila inora joaterik, beldur bainaiz, ni iristean, bera ez ote den joana izango handik. Xumekiago esanda, nire amets gehienak sasira joan dira, baina ametsak izan dira.

BANOA

Askatasun osoa bakarrik izan daiteke norbera bakarrik egonda munduan. Orduan ez luke ezertarako balioko. Egin ditut, bai, gauza on batzuk bizitzan. Adibidez, ez neukan animo bat eman edo ez neukan alaitasun bat zabaldu. Izan ongi!